KIRMEN URIBE

MUSSCHE

Kirmen Uribe

Mussche

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Kirmen Uribe
© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 2012ko azaroa
Edizio hau: 2012ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Nereari

– Zenbaitek uste du geure burua egiten goazela, eta neurri batean egia da. Baina, bestalde, egin egiten gaituzte. Ni neu egin egin naute, hasieran gurasoek eta gero bizitzan zehar ezagutu ditudan pertsonek, eta zortea izan dut. Baina batzuetan iraganak pisu handiegia du gure bizitzetan, ez da gauza bera mihise zuri batean margotzea edo aurretik belztuta dagoen batean. Zaila da hor koloreak ateratzea.

– Mutil koskorra zinela irten zinen Bilbotik eta ez zara geroztik itzuli. Gurasoen erabakia zuzena izan zela uste al duzu?

– Ez zegoen beste aukerarik.

Paulinorekin, 36ko gerrako haur batekin
izandako elkarrizketa, Bogotan, 2011n

LEHEN ZATIA

1

Gernikako bonbardaketaren ondoren, haurrak babesean jartzeko erabakia sendotu egin zuen Jose Antonio Agirre Lehendakariak. 1937. urte hartan, maiatzetik ekainera bitartean, 19.000 haur atera ziren Bilboko portutik Europako hainbat herrialdetara bidean. Frantzian, Sobietar Batasunean, Britainia Handian eta Belgikan gorde ziren gehienak. Gurasorik gabe joan ziren erbestera, bakarrik, eurak laguntzeko gertu zeuden irakasle andana baino ez zutela bidaide.

Maiatzaren 6an itsasoratu zen lehen aldiz *Habana* ontzia Santurtziko portutik Arroxelarantz. 2.483 errefuxiatu zihoazen barruan. Bilbo-Habana-Mexiko-New York ibilbidea egiten zuen luxuzko transozeanikoa izan zen *Habana* garai batean, hura zen konpainiako izarra, Sestaoko La Naval ontziolan arrandiaz egina. *Alfontso XIII.* izenez bataiatu zuten hogeiko hamarkadan, baina mudatu egin zioten izena Errepublika jalgi zelarik. Urte argitsu haiek joandako ura ziren ordea. Gerra hasi orduko Gobernuak beretzat hartu zuen ontzia, kaian bertan lotu eta ospitale bat egitearen karietara. Hala eta guztiz ere bestelakoa izan zen *Habana-*

ren egitekoa. Moilari atxikita geratu ordez makina bat bidaia egin zuen Bilbo eta Frantziako kaien bitartean, *Seven Seas Spray* ontzi britainiarrak libratu zuen minarik gabeko itsas igarobide estua baliatuz. Ostera oro zelatan izango zuten Francoren Armadako destruktoreek, batez ere *Almirante Cervera* zeritzonak.

Ez zen erraza erabat blokeatuta zegoen Bilboko itsas muturretik irtetea. Royal Navyko ontzien laguntza barik ez zuten lortuko. Britainiarren babes hori ez zuen begi onez ikusi altxatutako armadak; legez kanpokoa zela iritzi zion atzerriko herrialde baten eskuhartzeari, eta haurrez betetako ontziak hondoratzeko mehatxua ere egin zuten. Amenazuak, dena den, ez ziren gauzatu, eta *Habana*k osterak egiten jarraitu zuen hilabetez. Azken bidaia ekainaren 13an egingo zuen, Bilbo erori baino astebete eskas lehenago hain justu, 4.500 haurrekin ontzian.

Zenbait gauza ez dira sekula ahazten. Karmentxu Cundin Gil izan zen *Habana*n ontziratu zen umeetako bat. Zortzi urte baino ez zituen neskatoak. Bi urte nagusiagoa zen neba Ramon eta biak Gantera bidean jarri zituzten etxekoek. Guztira 3.278 haur iritsi ziren Euskal Herritik Belgikara; kopuru handia, herrialdearen tamaina kontuan hartzen bada. Nolakoa izango

zen Karmentxu Cundin eta neba Ramonen itsasoratze hura? Karmentxuren bidaia hura irudikatu guran, ibilbide bera egin zuten bi emakumerengana jo nuen, Mirante ahizpengana. Laurogei urte pasatxo dituzte bibiek eta Ganten bizi dira oraindik. *Habana* hartan atera ziren beste hainbeste haur bezala, ez dira sekula bueltatu sorterrira. «Badakit gaixorik nagoela, baina bidaia hori ez dut egundo ahaztuko», esan zidan bietako gazteenak. Alzheimerra zuen emakume hark xehetasun osoz kontatu zidan nolakoak izan ziren haurtzaroko egun mingots horiek.

Bonbardaketez mintzatu zen lehenik. «Hasieran jolas bat baino ez zen, haurrok gustuko izaten genuen Bilborantz zetozen hegazkinei begira geratzea». Baina gero konturatu ziren ez zeudela olgetarako. Behin, lantegietako sirenak hoska hasi eta Mallona eskaileretako babeslekura zihoazela, Lezamako trenaren tunela baitzen garai hartan bonbardaketen aurkako babeslekua, auzoko emakume batek buelta eman zuen. Mantuko haurra zuen besoetan. «Sutan utzi dut lapikoa». Ai ama, etxera bueltatu zen sua itzaltzera. Hegazkinen orroa baretu zenean, babeslekutik atera eta konturatu ziren andre haren etxea suntsituta zegoela, lurrarekin berdindu zutela. Hilik zetzan emakumea,

eta haurra, zikin eta hondakin artean, intzirika, aulki baten zurezko hanka gorputzean sartuta zuela, eta hala ere bizirik. Bonbardaketek izu-ikara sortu zuten bilbotarrengan. Eta amorrua. Nonbait bonbardaketetan parte hartzen ari zen hegazkinetako bat kolpatu egin zen Bilbo inguruko mendietan eta emakume talde batek, hegazkin porroskatua zegoen tokira joanda, bizirik aurkitu zuen pilotua. Gorputza galtzorratzez josi eta bertan hil zuten gizona.

Bilbotik alde egin zuten eguna ere ez zuten ahaztuta Mirante ahizpek. Egun beltza izan zen. Ehunka ume itsasontzi handi haren bizkarrean, nora zihoazen ere jakin gabe, haurrak eta haurrak botaka egiten, auhen batean. Ekaitza zen itsasoan. «Gauza batean jarri zure arreta eta ikusiko duzu nola ingurukoaz ahazten zaren», esan omen zien amak agurtu baino lehen. Umeak zapatetan jarri zuen arreta, amak distiratu berri zizkion zapatetan. Hatz txikiekin lokarriak askatzen zituen, eta gero lotu, amak esanda bezala: «Arrosa bat egin behar duzu sokekin, bata bestearen gainean jarrita, horrela». Eta aixubeta lotu, aixubeta askatu, era horretan ahaztu zen denaz, ekaitzaz, bera bezalako haurren lanturuez, lehorrean utzitako familiaz. Odiseako Penelope hura bezala, josi eta desjosi,

denbora azkarrago igaro zedin, maite zituen haien hutsuneaz ahaztu zen. «Gaur goizeko kontuez ez naiz gomutatzen. Ahaztu egin zait zu bisitan etorriko zinela ere. Baina irudi horiek ondo txertatuta daude nire oroimenean», esan zidan ukabilarekin bekokiari kolpetxo batzuk ematen zizkion bitartean.

Eta orain bai, mirantetarren testigantzak aintzat hartuta, Karmentxu Cundin irudika nezake *Habana* itsasontzian, Mirante ahizpak bezalaxe, zapatak lotu eta aska, gerora jostun izango zen Karmentxu txiki hura. Begira-begira, zapatei so, Karmentxu Cundinek ez du botaka egin bidaia osoan. Neba Ramonek bai, ordea. «Ni handiagoa naiz, ni izango naiz orain aita», esan zion Bilbotik atera zirenean. Elkarri bizkar emanda egingo dute lo, eta ez dira konturatuko hautsak belztutako beren aurpegiez, ezta ere isilean isuritako malko beltzen arrastoez, ilargiko erreka lehorren emariaz, biharamunean aurrez aurre jarri arte. Uretara botatako zapata kutxa huts haren barrenean dena da ilunpe.

Ganten, dantza-gela zabal batera eraman dituzte haur guztiak. *Balzaal* deritzon baltseoan egiteko aretoan sartu dira. Tren bete ume eszenatoki gainean. Bakoitzak txarteltxo bat du lepotik zintzilik, izen-abi-

zenekin. Karmentxuk dantza-gelako atariaren gainean dagoen beirate itzel batean jarri du arreta. Koloretako beirate hartan, gizon gihartsu talde bat gurpil handi bat mugiarazi nahian dabil, lokatzetatik libratu nahi dute oholtzar batzuez baliaturik. Gurdiari tiraka ari zaio emakume bakar bat aurretik, besoan umetxo bat daukala, gizonak bezain bulartsua andre hura ere. Beraien atzean, konposizioaren erdian, bandera gorri harro bat ageri da, haizearekin zafla egiten.

Hantxe bertan bananduko dituzte neba-arrebak, eszenatokian bertan, eta bakoitza egokitzen zaion familiarekin lotuko dute. Zu honekin, zu beste harekin. «Zuek beti batera egon, ez utzi sekula banantzen», esan zien amonak portuan biak batera besarkatu zituenean, beso banatan hartuta. Hala ere, beirateko gurpil handi hark eraman du neba, jendartean desagertu da Ramon, agurrik esateko aukerarik gabe ia.

Amiñi batera, betaurrekodun gazte bat hurbildu zaio Karmentxuri.

– Kaixo, ni Robert naiz, Robert Mussche –esan dio gaztelaniaz, irribarre batekin.

Karmentxuk arnasa hartu du eta, orduan bai, botaka egin du arrotzaren traje ilunean.

Herman lehenago esnatu da. Roberten arnasa lasaia sentitzen du alboan. Elkarrekin lo egin dute, bizkar eta bular, arrantzaleen etxetxo batean. 1929ko abuztuan, Andra Mari egunez, Belgikako kostaldean daude, Oostduinkerken, egun batzuk pasatzen.

Oholezko etxe zurian dautza bi-biak, itsastarrek arrantza-aparailuak gordetzeko erabiltzen duten soto batean, bizileku karratuan, leiho ñimiño batzuekin ateen gainean. Tamainari erreparaturik, umeentzakoa ematen du, jostailuzkoa, ametsetakoa. Ilaratan jarrita daude soto zuriak, ohi bezala, itsasoari bizkarra eman eta lehorreko eguzkiari beha.

Hermanek atzetik dakusa Roberten lepoa, bere ile beltzaren distira. Tirantedun kamiseta zuria du soinean eta bizkarreko giharrak nabari zaizkio. Gustuko du Hermanek haren usaina. Ez da gizon heldu batena oraindik, gozoa da. Atzamar luzearekin sorbalda laztandu dio, olgeta-benetan, ukitu gabe ia. Gero, beso azpitik igaro du eskua eta bular gainean jarri dio. Bere kontra estutu du Roberten gorputza. Berari atxikia sentitzen du laguna, haren gorputz sendala. Azkartu egin zaizkio bihotzeko taupadak, dardarka dagoela konturatu da.

Begiak itxi ditu Hermanek. Bainatzen egon dira arratsalde partean. Roberten giharrak eguzkitan. Kirola egiten duela ezagun du haren gorpuzkeran. Argala da baina indartsua. Uretan, Hermanen gainera igotzen da Robert, hankak haren sorbalda gainean jarri eta jauzi egiten du olatu azpira. Barrez, ura irentsi du. Hermanek erabat aske ikusten du Robert. Bere lagun serio isila umekeriak egiten. Une batez auzo lotsa ere sentitu du Hermanek, lekuz kanpo balego bezala Roberten zoriontasun hura.

Herman Thieryrentzat, halaxe idatziko du gainera, Robert Mussche izan da bere lehenengo maitasuna. Hamazazpi urterekin ez dute neskatilentzako begirik. Atzetik ibiltzen zaizkie, hori bai, zelatan parkeko irudien gibelean ezkutatuta; eta gozatzen dute haien edertasunaz, egia da, baina benetako maitasuna, barru-barrukoa, Roberti zor dio. Hamabost urterekin eskolan elkar ezagutu zutenetik ez dira banandu. Ikastetxetik etxerako bidean atzeratu egiten ziren, beti iristen ziren berandu, biderik luzeena hautatzen zuten elkarrekin denbora gehiago egoteko. Solasean sarritan, batzuetan seriotan, besteetan umorez.

Hermanek maite zuen Roberten iritzi sendotasuna. Zaila zen hari ezetz esatea, segurtasunez hitz egi-

ten zuen, liderra zen. Herman, aldiz, hagitzez kaotikoagoa zen, gorabeherak izaten zituen eskolan, baina xarma handiko pertsona zen mintzatzen zenean, deabrua bera ere nahastuko zukeen bere berbekin. Hermanek uste zuen osagarriak zirela Robert eta bera. Batak ez zeukana besteak zeukan. Begirada batekin elkar ulertzen zuten. Ez zuten beste inor behar ondoan gustura egoteko. Eta orain, arrantzaleen etxola hartan, bi-biak lo zeuden elkarren ondoan.

Izango al dut bizian une zoriontsuagorik hau baino?, pentsatu du bere kolkorako Hermanek. Edozein gauza egingo zuten une hartan elkarrengatik. Etxetik ihes egin behar bazuten, ihes. Mundua bidazti antzo ibili behar bazuten, ibili. Elkar ondo hartzea beste kezkarik gabe. Edo hori uste zuen behintzat Hermanek, nahiz eta pertsonen arteko maitasuna ez den sekula simetrikoa izaten, hala adiskideen artean nola maitaleen artean. Ez dago erabat justua den maitasunik.

Hondar duna batean eseri dira aurreko goizean, honetaz eta hartaz solas egiteko. Gold Dollar zigarro bat eman dio Robertek. Oraindik ere ahoan du Hermanek zigarroaren zaporea. Ondotik, Robertek gogoan hartu du zigarroa lehen aldiz erre zuen aldi hura. Hermanek eman zion probatzeko. «Nik nahastu zintudan

horretan ere. Gazte garbi eta lerdena, neuk nahas». Lehena erre zuenez geroztik Robertek zigarroa izango zuen hatz artean. Baita Hermanek ere, nahiz eta Herman aristokratagoa izan eta lantzean behin nahiago izaten zuen pipa erre. Irri egin du bere bostean Hermanek, Roberten alboan etzanda eta begiak itxita, bere buruari buruz barre, handinahi izate horrengatik. Oostduinkerkeko hondartza amaiezinak ikusten zituzten dunatik. Arrantzaleak mandoekin sareari tiraka. Mando parea sarea zabaltzen eta biltzen. Urertzera iristean, bat-batean ur azalera agertzen zen sarea eta ero moduan mugitzen hasten ziren arrainak, jauzika, ihes egin nahian.

Begiak zabaldu ditu eta ostera ere Roberten bizkarrari begira jarri da. Nola aldatu den mutiko hau. Ihariharra zen gaztetan, oso lotsatia. Ez zuen ia hitzik egiten. Hain zen heldua gure aldean, ezen guk haur literaturaz jarduten genuen bitartean hark Marxi buruz hitz egiten baitzigun, Gabonetako *Sinterklaas* santu opari-emaile hari buruz haur batek hitz egiten duen naturaltasun eta fede berdinarekin. Aldaketarik handiena, baina, gaixorik egon zen udalehen hartan egin zuen. Luzaroan egon zen ospitalean apendizitis baten kausaz. Irakurri eta irakurri egin zuen makalaldi har-

tan. Batez ere Bredene-aan-Zeen itsasertzeko herrian egindako egonaldian. Camille Flammarionen mundu miragarriak, Emile Zola eta idazle aurrerakoiak. «Beste bat zinen eskolara bueltatu zinenean».

Ile distiratsu ugaria laztandu zion Hermanek, ez esnatzeko moduan. Horrenbeste maite zuen mutil hura, bere bihotzeko laguna. Eskutik helduta paseatzen zuten elkarrekin Lys ibai ertzetik, Ganteko kanaletan zehar udagoieneko arratsaldeetan. Udako gau epeletan, aldiz, Roberten etxe txikian egoten ziren biak. Haren gurasoek patata frijituak saltzen gurditxo batekin lan egiten zutenez, bakarrik egoten ziren, edo Georges anaiarekin batera. Baina Georgesek laster uzten zituen bakarrik, elkarri txanda gorde ezinik berbetan hasten zirenean: idazleez, pentsalariez, munduaren pauso okerraz. «Zuek ulertzerik ez dago» esan eta bere gauzetara joaten zen Georges. Bi anaiek ez zuten zerikusirik. Edonork esango luke ez zirela familia berekoak. Georgesek ez zuen Roberten irakurzaletasuna, ezta engaiamendurako joera ere. Laketago zuen lagun giroa eta alferkeria. Auzoko mutila zen eta ez zion bizitzari gauza berezirik eskatzen; akaso, lana eta neskalaguna.

Ferrerlaango etxe txiki hartatik mundu osoa zuten jomuga Hermanek eta Robertek. Leihotik begira jartzen ziren zigarroa eskuan, kaletik zihoazenei kirika eginez. «Egon behar du mundua hobetzeko moduren bat, gauzak beste era batera antolatzekoa», esaten zion Robertek gau haietan. Trankil hasten zen berbetan eta sutsu ipintzen zen gero, bidegabekeriak bata bestearen atzetik aipatzean. Hermanek arrazoia ematen zion, zuzen zegoela, baietz, egon behar duela beste era bat. Nolanahi ere, halakoetan izu suerte batek hartzen zuen Hermanen barrua. Ez ote zen Robert ausartegia, edo inozoegia, gauzei benetako atzea ikusteko. Eta orduan beldurra sartzen zitzaion Hermani, laguna galtzeko izua. Behatu egiten zion, zigarroa eskuan, esaten zuenaz ziur, udako gau epelean. Eta ikara sartzen zitzaion berari. Zuzenegia zen mutila, pentsatzen zuena esaten zuen, eta horrek mina baino ez zion ekarriko bizitzan. Babesten ikasi behar luke Robertek, ezin du bere burua horren agerian agertu.

Roberten arnasa azkartu egin da derrepente. Hermanek laztantzeari utzi dio, hatzak pixka bat aldenduta. Ez luke esnarazi nahi. Zer pentsatuko luke berari buruz horrela laztantzen sentituko balu? Lotsaz hilko litzateke Herman. Baretu egin da berriz ere Roberten

hatsa. Begiak itxi ditu Hermanek. Halaxe egon da minutu batzuez, Roberten lurrin gozoa hartzen, itsasoko olatuak entzuten, eta oroitzapenak ere halaxe etortzen zitzaizkiola, lehertzen, uhinen gisa, bata besteren atzetik. Irudi batek beste bat ekartzen dio, forma desberdinak sortuz, moldatuz, ibaiko uretan nork bere aurpegia ikusten duenean bezala.

Egun argi da, eguzkiaren ñirñira gelara sartzen hasi da leihoetako mihise artetik. Lo da Herman. Ez du loaldi luzea izan, ordu erdi bateko kuluxka egingo zuen. Argi errainuek esnarazi dute. Tiraka egin dio egunak mandoek arrantzaleen sareari bezala, eta sare bustiaren zuloek eguzki izpiekin egiten duten bristada sumatu du begiak zabaltzean, begiak itxiarazi dizkion dirdira.

Ohetik altxatzeko keinua egin du.

– Ez altxatu oraindik –esan dio ustekabean Robertek, burua bueltatu gabe–, gustura nengoen zuk besarkatuta.

Aspaldi zen Robert esna zegoela.

Carmen Musscheren lehen oroitzapena.

1945. Hiru urte ditu Carmenek. Amari eskutik heldu eta etxetik Sint-Pieters geltokirako bidea egiten ari dira oinez. Koning Albertlaan etorbide luzea. Haur oin txikiekin, are luzeago. «Carmen, azkarrago, berandu goaz-eta». Amak besotik tira egiten dio Carmeni geratzen den bakoitzean. Okindegiko erakusleihoan, kale bazterreko belarrei begira, edozerk arreta deitzen dio haur txikiari. «Goazen ba, Carmen, aita itxaroten dugu-eta». Kontzentrazio esparruetatik egunero iristen ziren trenak. Haietako batean izan behar zuen aitak. Inork ez zekien zeinetan, zer egunez, baina etorri behar zuen.

Gante-Sint-Pieters geltokia erraldoia egiten zitzaion Carmeni. Sarrerako zutabe gotor horiek, sabaian marraztuta dauden urre eta zilar koloreko irudiak, erregeak eta sainduak. Sarrerak bi tuneletara ematen du. Luze eta ilunak dira, lur azpian daude. Tuneletara isurtzen da jendea, ezker eskuin, trenbideetatik datozen eskaileretatik behera, estolda handi bat balitz bezala. Uholde hark ekarriko du aita. Baina Carmenek ez du ezagutzen, amak argazkia erakusten badio ere gauero, lotarakoan musua eman eta gabon esan arren, nola ezagutuko du umeak, zer itxurarekin

etorriko den ere ez dakite-eta, sasoi onean edo makalduta izango ote den.

Carmen arineketan joaten da trenetatik jaisten diren gizon ezezagunengana. Orain batari orain besteari begiratzen die. Gero, «Aita, aita» esan eta zangotik besarkatzen du hurbilen duena.

Zenbait gauza ez dira sekula ahazten.

2

Ezagukizun den tokia hotza izaten da sarritan. Halako ilunabar ainube batek hartzen du norbere barrua eta falta izaten da iraganean utzitako pertsonena.

Halaxe bizi izango zituzten Bilbotik ateratako haur haiek bidaia hartako lehen egunak. Dena den, ume askorentzat atsedena ere izan zela helmugara iristea, jakitea Gante izango zela beren etxea, denboraldi baterako behintzat. Izan ere, ez ziren helmugara berehalaxe iritsi. Arroxelan lehorreratu eta Frantzia osorik zeharkatu behar izan zuten. Belgikara iritsita, txertoak hartu eta berrogeialdia igaro behar izan zuten kostaldeko kolonia batean. Handik sakabanatu zituzten Belgikako hiri desberdinetara, tartean, tren bete Gantera.

Belgikara iritsitako 3.278 haurretatik hiru bat mila familiatan hartu zituzten, ez ziren eskoletan edo umezurtz-etxeetan egon, esate baterako, Frantzian errefuxiatu zirenei jazo zitzaien bezala. Ganten, guraso berri gehienak Belgikako Alderdi Sozialistako kideak ziren. Horiez gain, baziren komunistak eta erakunde katolikoetako bolondresak ere. Haurrek zorte ona izan zuten familiekin, nahiz eta baziren gutxi batzuk dirua-

gatik jaso zituztenak, umeok etxean izatearren diru laguntza ematen baitzieten erakundeek, eta ume horien bizipenak ez ziren hain gozoak izan. Halaxe, mirantetarren ahizpetarik bat alaba baten moduan hartu zuten dendari batzuen etxean; dena eman zioten, ikasketak ordaindu, karrera bat. Aitzitik, beste ahizpak senperrenak ikusi zituen; zerbitzari lanak egitera behartzen zuten neskatoa, etxea garbitzera, animaliak jeztera, etxe ondoko baratze estuan lan egitera. Gogoangarria da, euskal umeak jaso zituzten familien artean, Bruselako Eeckman senar-emazte judutarren ahalegina; eurek sei seme-alaba izanik ere, babesean hartu zituzten beste zortzi euskal haur. Aita merkataria zenez, dirua egin zuen nazioarteko salerosketetan. Ezkertiarra zen ideiez, eta judua, gauzarik okerrena nazientzat. Bigarren Mundu Gerrak ez zien onik ekarri eeckmandarrei. Heriotza esparruetan hil zituzten guraso biak.

Ezari-ezarian, handitzen zihoazen haurrak eta egoera berrira moldatzen. Sorterriko eta Flandriako zuhaitzek ez zuten gerizpe bera, bizimodua oso desberdina zen Bilbon eta Ganten. Ogi zuria izan zen lehenengo ezusteko ona, Bilboko gerrako egunetan beltza baino ezin zuten-eta dastatu. Orobat, etxean jos-

tailuak edukitzea. Bakoitzak berea gainera. Horrelakorik pentsa ere ezin zezaketen Euskal Herrian. Etxeko jolas haiek, halako epeltasuna, nolabaiteko segurtasuna ematen zieten haurrei. Hara joandako euskal haurrentzat horixe izan zen aldaketa nabarmenena: jostailuak zeuzkaten; ez zuten kalean jolasten, Bilbon bezala, herdoildutako burdinazko gurpilekin edo trapu zaharrez egindako pilotekin. Ganten olgetarako eskura zituzten andrakiletak, kamioi txikiak, garabiak, bizikletak; nahiz eta gurasoak langile klasekoak izan. Familiarekin, gainera, denbora asko igarotzen zuten, asteburuetan batik bat. Sorterrian ez, ordea; gurasoak urrun egoten ziren une oro, ez zuten haurrekin jostaketan bat egiten, beren unibertso txikian agintearen irudia baino ez ziren. Baina Belgikan arrunta zen haur andana biltzea etxe batean igandean eta han olgetan aritzea, barruko geletan edo lorategian. Neba-arrebak, lehengusuak, lagunak, ume aldrak elkarrekin.

Nozitu zuten beste aldaketa handia kulturari zegokion, esan nahi baita, kultur ikuskizunak famili giroan gozatzeko zaletasun hori. Umeekin zinemara joateko ohitura zuten Ganten, haur antzerkia ikustera edo dantzatzera. Eta, jakina, Vooruiteko Balzaal hartara behin baino gehiagotan bueltatuko zen Karmentxu

Cundin. Gurasoak eta haurrak, denak nahasian, baltsean aritzen ziren han. Ganten estreinako gogoan hartu zuen beirate hura bestelakoa irudituko zitzaion Karmentxuri, atzera ere ikusi zuen aldian. Feestlokalvanvooruit egoitzakoa zen dantza-gela hura. Flandriako Alderdi Sozialistaren eraikina. Beharginentzat ekitaldiak antolatzen zituzten bertan: hitzaldiak, zinema emanaldiak, dantzaldiak. Baita haurrentzako urtebetetze ospakizunak ere. Gizon talde bat gurpil handi bati tiraka bandera gorri harro baten abaroan. Baita emakume gihartsu bat ere, haurra besoetan. Etorkizunaren gurpila, bazetorren askatasunarena. Ez, dagoeneko Karmentxuri ez zion beldurrik ematen gurpil hark.

Neba Ramonek ere ez zuen zorte txarrik izan familia berriarekin. Georges Roels izeneko gizon baten etxean egotea egokitu zitzaion Karmentxuren nebari. Usoak maite zituen Roels zaharrak. Usategia zeukan etxeko baratze txikian eta bertan hezten zituen hegaztiak.

– Mezuak bidaltzen al dituzue? –galdetu dio Ramonek Roels jaunari, usategian hegaztiak gobernatzen dabiltzalarik.

– Noiz edo noiz.

– Gustura bidaliko nioke mezu bat amonari etxera.

– Zer esateko? –bota dio gizonak, bizkarra emanda, garbiketa egiten jarraitzen duela.

– Bere hutsunea daukadala baina pozik nagoela.

Roels jaunak hasperen egin du.

– Idatzi papertxo batean –diotso isilune baten ostean, besoak zereginetan, burua bueltatu gabe– eta usoaren hankari lotuko diogu.

Laster itzuli da Ramon etxe barrutik paper zati batekin. Usorik bulartsuena hautatu du mutilak eta papertxoa jarri diote hankan, haritxo batekin lotuta. Aita Roelsek eskuetan hartu du usoa eta bota du airera.

– Zoaz Bilbora!

Ramonek beirazko begiekin so egin dio usoari, hegaz badoala. Distira egin diote begiek, usoak hegoak zabaltzen dituen bakoitzean. Roels lurrera makurtu da. Badaki laster bueltatuko dela hegaztia, etxeko teilatura baino asko harago joan gabe.

Robert gaztea ez zen ordura arte sekula egon bigarren hezkuntzako Ottogracht ikastetxeko zuzendariaren bulegoan. Zentroaren alde hori erabat ezkutua zen ikasleentzat. Beste mundu bat, ikastetxe berean,

helduen esparrua, boterearena. Toki mitikoa zen ikasleentzat, esamesak baino ez zituzten kontatzen zuzendariaren bulegoari buruz, zigorren bat zela medio ikasle okerren batek kontaturiko irudimenez betetako testigantzak.

Baldosa zuri-beltzen korridore luzean entzun du Robertek bertaraino eramango duen idazkariaren zapaten hotsa. «Itxaron hemen». *Studieprefect* jartzen duen bulegoaren atarian geratu da Robert. Hormari lotutako banku batean esertzeko eskatu diote. Bere buruari galdetzen dio zergatik hots egingo ote dioten bertara. Ezer txarrik egin ez duenez, lasai dago. Baina badu ezjakintasunak sortzen duen urduritasun zimiko bat. Jesarririk, itxaron gelako hormei begira dihardu. Kaobazko ebanisteria finez apainduta dago, Ganteko komertzianteen jauregietan garai batean jazo ohi zen legez. Bere etxeko hormetako paper merkean pentsatu du Robertek. Hilerriaren ondoan eraikitako oholezko etxe xumean, Ferrerlaan kalekoan. Francesc Ferrer Bartzelonako pedagogoari gorazarre egiteko jarri zioten izena estratari. Bartzelonako Aste Tragikoaren arduradunetako bat izatea egotzi zion Gobernuak eta, ondorioz, exekutatu egin zuten, nahiz eta nazioartean protesta handiak izan hura askatzeko eskatuz. Anato-

le France idazleak berak Ferrerren alde idatzi zuen gutun publiko bat, Dreyfus kasuan Emile Zolak idatzitako *J'accuse* haren tankeran.

Robertek bulegoko gauzei begira jarraitzen du. Beheko su dotorea, eta haren gainean margo bat. Urteen joanak ilundu egin du oihala, hautsak eta kedarrak kalteturik. Neguko eszena bat dator koadroan. Lehen planoan gizonezko bat eta emakumezko bi ageri dira solasean. Ez dute aldarte txarrik. Atzealdean, bi isurkiko harrizko zubia; azpitik, ibaia. Koadroaren eskuma aldean, bazter batean, bi gizon oinetakoak janzten. Oinetakoak ez, hobeto erreparatu dio Robertek: patinak dira. Ibaia izoztuta dagoela ematen du, eta haren gainetik dabil jendea, patinetan. Soineko eta kapeletan arreta jarriz gero, kapa luzeak dituzte eta hiru puntako sonbreiruak, XVIII. mendeko estanpa bat izan behar luke, pentsatu du Robertek.

Herman adiskidea hartu du gomutan berriz ere. Patinatzaile baldarra da laguna, mundu zabalean ez da baldarragorik. Gustuko zuen izotz gainean haren atzetik ibiltzea, hala ere. Elkar besarkatzea lurrera erortzen ziren bitartean, barrez lehertzen. Behinola gainera erori zitzaion Hermanen gorputz handia. Aurrez aurre geratu ziren. Herman ezpainetara begira

geratu zitzaion une batez. Ez zituen begiak ahotik kentzen. Segundo luzea izan zen hura. Gero, jaiki egin zen eta besotik heldu zion Roberti.

– Tira, gora!

Ez zuen sekula ahaztuko Hermanen begirada hura.

– Robert Mussche? –deitu dio idazkariak.

Sartu da zuzendariaren bulegoan. Kaleko auto eta gurdien mugimendua ikusten da leihoetatik. Harritu egin du kanpotik datorren bizitasunak. Ikasleen geletatik ez da ezer ikusten, barruko patioetara mugatzen baita beraien ikuspegia. Kalera begira, gogora etorri zaio, lipar batean, nola lehen hezkuntzan eskolako lehenengoa izateagatik hiri osoan barrena buelta bat eman zioten kalesa batean. Auzotik atera eta erdigunera ekarri zuten, eta gero kanal bazterretatik. Horixe izaten zen garai hartan ikasle onena saritzeko manera bitxia. Eta gomutan du, halaber, hirian itzuli luzea eman ondoren, nola lurrean etzanarazi zuten eta estali zioten gorputz osoa liburuz, etxeko liburutegiko lehen aleak izango ziren liburu haiekin. Urrez estali beharrean, liburuz.

Feytmans zuzendariak aintzakotzat zuen Robert; ikasle fina zen, ez zen klasean bazterrak nahasten ibil-

tzen zen mutil horietakoa. Taldeko azkarrena izaten zen gehienetan. Hamabost urterekin, apendizitisak jota, ospitalean igaro zituen egun amaiezin haietan bisitan joan zitzaion Feytmans. Heziketak eskatzen dituen hiru lau esaldi bota eta ateneora bueltatu zen zuzendaria. Ez zion gauza berezirik esan, baina keinu hura, eskolako zuzendaria berarengana joatea, estimatu zuen Robertek.

Ikaskideak ere joaten zitzaizkion bisitan, denen artean Herman handia buru. Ospitalera joaten zirenean jolas usaina ekartzen zuten lagunek, kaleko hatsa, eta gustuko zuen Robertek usain hori, faltan botatzen baitzuen eguneroko bizitza. Mutil koskorren izerdia, tinta eta neguko freskura nahasten zituen lurrin hura.

Feytmans jaunak idazmahai aurreko aulkian esertzeko gaztigua egin dio mutilari, esku ahurra zabalduta. Robert haren eskuari begira geratu da: atzamar laburrak ditu, haragiak ia estali egiten dio ezkontzako eraztuna. Ezingo duela atera bururatu zaio Roberti.

– Jakin dut zure aitarena.

– Okerragoa ere izan zitekeen. Bizirik dago behintzat.

– Bizitzak batzuetan halako gauzak ekartzen ditu...

Roberten aitak lan istripua izan zuen oihal lantegian eta birikietako bat oso minduta zeukan geroztik. Fabrikako lanak utzi eta emaztearekin batera patata frijituen gurditxoarekin moldatzen zen sos batzuk ateratzeko; baina itxura guztien arabera, ez zen nahikoa familia osoaren betebeharrei aurre egiteko.

Feytmans zuzendaria aulkitik altxatu eta leiho ondora hurreratu da. Kalera begira jarraitu du berbetan:

– Kontua da norbaitek eraman beharko duela eguneroko ogia zuen etxera.

– Halaxe da –esan dio Robertek ahopean, aulkitik mugitu gabe.

– Banque Nationale-ko zuzendariak gazte azkar eta langileak eskatu dizkit. Aproposa zinateke lan horretarako.

Bulegotik irten zenean, Robertek negar egin zuen amorruz. Alde batetik, egia da, lana izango zuen etxekoei laguntzeko. Beste alde batetik, tamalez, ezingo zuen ikasten jarraitu, unibertsitate karrera bat izan. Haurtzarotik izan zuen ametsa ezin izango zuen bete. Baina konturatzen zen ezin ziola ezetzik esan zuzendariaren proposamenari. Onartu egin behar zuen aukera, bere anbizioek ez zuten hainbesteko garrantzia. Bere premia zuten etxean eta premia horri jaramon

egin behar zion. Azken urte haietan Hermanekin izandako elkarrizketa luzeak hartu zituen gogoan, kanal ertzetik paseoan zebiltzala jaiotako hitzak.

– Robert, zure ustez, zerk mugiarazten du mundua? –galdetu zion Hermanek halako batean–. Nietzschek zioenez, ezkutuko indar hori boterea da; Marxen ustez ekonomia da; eta Freuden aburuz, maitasuna. Bada, zein dago zuzen zure ustez? Zerk bizi gaitu?

– Eta zuk zer uste duzu? –bota zion Robertek, denbora irabaztearren.

– Bat nator Nietzscherekin –ebatzi zuen Hermanek, ziur–: Botereak mugiarazten du mundua.

– Nik zalantzak ditut –ausartu zen Robert–. Hasiera batean pentsatu dut ekonomia dela indar ilun hori... Badakizu, gainera, zenbat miresten dudan Marx.

– Bai, noski.

– Baina ez, Herman. Maitasunak bizi gaitu! Sakoneko indar hura maitasuna da. Edo nik hori sinetsi nahi dut behintzat. Horretan ados nago Freudekin.

Zuzendariaren bulegotik irten denean, ordea, Robertek ez daki zer pentsatu.

Michel Thiery, Hermanen aita, gizon ezaguna zen Ganten. Ogibidez irakaslea izanagatik, naturalismoaren alorrean egindako lanek eman zioten benetan entzutea. Bera da Ganten botanikako azterketetan aitzindarietako bat, horrenbeste, ezen halako museo txiki bat ere moldatu zuen han-hemen egindako bidaietan hurreratutako landareekin. Urteetan bildu zuen botanika liburuen bilduma garrantzitsu baten jabe ere bazen. Horretaz gain, argitalpenak zituen bere izenean, basoetan egindako marrazkiez eta luzaroan egindako azterketen ondorioez osatuak. Irakasle gisa aurrerakoia eta ausarta zen Michel Thiery, munduan zehar pedagogia mailan egindako azken aurrerapenak ezagutu eta probatzea gustuko zuena. Bere ardurapean zeuden mutilekin mendi ibilerak antolatzen zituen eta, sarritan, eskolak basoan bertan eman ere bai. Museora eramaten zuen ikasle andana eta laborategian elkarrekin lan egiten zuten, basoan aurkitu berri zituzten landareak neurtu eta sailkatzen.

Hermanen eta Roberten jatorriek ez zuten batere zerikusirik, nahiz eta ideologiaz ezkertiarrak izan bibiak. Hermanen familiak bazuen posizio bat hirian, manera burgesak zituzten, maite zuten kultura. Oinez egiteko moduan ere ezagun zuten hori, nola jartzen zi-

ren mahaian bazkaltzeko, jantzietan, eguneroko bizitzako keinurik ñimiñoenetan. Maite zuen Robertek finezia hori, eta imitatzen ahalegintzen zen, ahal zuen neurrian. Roberten jatorria bestelakoa zen. Ferrerlaango auzoan ahal zutena egiten zuten. Etxean jaso ahal izan ez zuen kultura hori edozein tokitan bilatzen zuen mutilak.

Nahiz eta auzo txiro batekoa izan, edo horrexegatik beragatik, Hermanen gurasoek biziki laket zuten Robert eta maiz gonbidatzen zuten etxera. «Halako lagunik ez duzu sekula izango», esaten zioten behin baino gehiagotan Hermani.

Robertek bazuen jendearekin ondo geratzeko dohaina, adinekoei era batera berba egiten zien, gaztetxoei beste batera. Bakoitzaren tokian jartzen bazekien gazteak. Eta hori ez da erraz aurkitzen nerabetasunean. Zer esanik ez, Thiery jaunari askotan kasu egiten zion landare honi edo beste hari buruz aritzen zitzaienean, Hermanek baino gehiago. Honek asperdura imintzioak egiten zituen. Normala zenez, aitari mila bider entzundako kontuak atzera ere aditu baino nahiago zuen Hermanek hortik zehar ibili, bere lagunarekin, lorategian edo kalean. «Aita, nahikoa da, utziozu bakean lagunari». Roberti besotik oratu eta

berarekin batera eramaten ahalegintzen zen. Robertek begiramenez itxaroten zuen Thiery jaunak jardunarekin bukatu arte eta, hargatik, Herman zain izaten zuen atariko atean, lauzazko eskaileratxoan eserita.

Eta oraingoan ere laguna zain zeukan ikasgelan, artega, Feytmans jaunak esan ziona jakiteko irrikaz.

– Agiraka egiteko deitu dizu?

– Ez. Lana lortu dit Banku Nazionalean –esan dio Robertek, aparteko pozik azaldu gabe.

– Ikaragarria da. Lan on bat izango duzu, poltsikorako dirua... –Robertek gauzak alde onetik ikus ditzan saiatu da Herman.

– Eta gainera ez dut azterketa gehiago egin beharko. Nik nahi dudana bakarrik ikasiko dut: poesia, historia, literatura... Nahi ditudan liburuak irakurri eta irakurri ariko naiz, derrigorrezko materia aspergarri horiek betiko ahaztuta.

Nahiz eta azken esaldian bere burua engainatzen ahalegindu, Hermanek bazekien ikasketak uztea kolpe handia izan zela Robertentzat. Begietan nabari zitzaion negar egin zuela. Hermanek gerora idatzi zuenez, Robertek ez zion sekula inbidiarik agertu, unibertsitate ikasketak bukatu zituelako berak eta hark ez. «Notak elkarrekin ikusten genituen, eta zoriondu ere

egiten ninduen bikainen bat ateratzen banuen», idatzi zuen.

3

Bi lagun on dauden tokian beti izaten da hirugarren bat.

Robert Brise deitzen zen Robert eta Hermanen hirugarren laguna. Ottograchteko ikaskidea. Musika zen Briseren pasioa. Pianoa jotzen iaioa zen gaztea. Hari entzuten ordutan egoten ziren Robert eta Herman thierytarren etxean. Robertek Beethovenen piezaren bat jotzeko eskatzen zion ardurenean.

– Ez da izan Ludwig van Beethoven bezain konpositore handirik munduan –esan dio Robertek ohiko segurtasunarekin.

– Debussy eta Ravel ez dira makalak... –arrapostua Hermanek.

– Ez zaitzala garaiko modak itsutu. Horiek ez dute Beethovenek zuen adorea. Artista duina zen, gauza guztien gainetik. Badakizue, handikiei ematen zizkien musika eskolak. Konde eta markesei. Ikasleen artean, bazuen Rainer izeneko artxiduke bat. Kontua da, artxiduke hori arratsaldero berandu iristen zela eskoletara. Beethoven zain izaten zuen beti. Egun batean Beethoven aspertu da. Inoiz baino zorrotzagoa da Rainerre-

kin. Ez dio akats bakar bat ere pasatzen uzten. Makilarekin kolpatu egiten du atzamarretan, ondo jotzen ez badu. «Izan ezazu pazientzia pixka bat», erregutu dio gazteak. «Pazientzia izan dut zure zain egoten, baina ahitu egin zait». Geroztik Rainer gaixoa puntuala izan omen zen. Eta Beethoven neurritsua bere eskakizunetan.

– Tira, Herman, zeuk ere ikasi beharko duzu puntualagoa izaten –zirikatu du pianotik Brisek.

– Baita zuk ere ahoa ixten.

– Baina hori baino hobea izan zen Goetherekin egin zuena –jarraitu du Robertek bere bi adiskideen arteko ika-mikari jaramonik egin gabe–. Ez zuten ondo elkar ulertzen Goethek eta biek. Idazlea ezagutu nahi zuen Beethovenek, miretsi egiten zuen, ahalegintzen zen berarekin kontaktuan jartzen, bere poemekin egindako doinuak-eta igortzen zizkion, baina alferrik. Ez zeuden elkar ondo hartzeko eginak. Beethovenek kontatzen zuen, behin batean Goethe eta biak besotik helduta paseoan zebiltzala, hara non agertzen diren enperatriza eta printzeak. «Lasai, jarraitu hizketan ezer gertatuko ez balitz bezala», agindu dio musikariak. Baina poetak Beethovenen besoa askatu eta erpai geratu da, errege gortea noiz iritsiko. Musikaria

enperatrizaren taldearen erditik igaro da baldar, kapelari keinu txiki bat eginda, aurrera. Nobleek agurtu egin dute konpositorea. Goethe, ostera, albo batera jarri da, pasatzen utzi die agintariei, kapela eskuan hartu eta harekin alabantzak eginez. «Ez zuten horrenbeste merezi», horixe esan dio Beethovenek, bekozko; «edozer egitea agin dezakete: barkuak, jauregiak, armak; baina gure garuna ez, hori ezin dute fabrikatu». Goethek ez zion sekula barkatu atrebentzia.

– Hara! Iraultzailea hura ere! –Hermanek.

– Gustuko dut Beethoven, baina Mozart areago, hura da perfekziotik hurbilen dagoena –Brisek.

– Egia da –Robertek– eta Beethovenek ere onartzen zuen hori. Bazekien Bach eta Mozart baino gutxiago zela bera.

– Gaztetan Mozartekin jo nahi izan zuen kontzertu berean –esan du Brisek pianotik–, bere ametsa zen, baina Salzburgoko maisuak muzin egin zion. Ez bide zuen bere ondoan musikari gazterik nahi. Beethoveni bere garaian min egin zion mespretxu horrek.

– Hala ere, aitortu behar zaio –desenkusatu nahi du Robertek Beethoven– urteen poderioz jakin zuela barkatzen. Jende aurrean beti onartzen zion jeinutasuna Mozarti. Nahiz eta uste zuen Mozart ume mimatua

izan zela, aita Leopoldek erakutsi ziola txikitandik zer egin, bideratu egin zuela musika munduan ez ezik bizitzan ere. Beethoven, ordea, ez; bera erabat autodidakta izan zen. Ez zuen izan babes berezirik familian.

– Tira, jo ezak zerbait, Brise –agindu dio Hermanek, eserlekuan burua etzanda–. Berba larregi egiten ari zarete, ohi duzuen legez.

Beethovenen Opus 27.aren bigarren zatia jotzen hasi zen Brise, piano sonata, *Ilargi begia* deritzona. Sekula ez zitzaion gustatu Roberti izenburu hura; Ludwig Reelstag poetak jarri zion, Beethoven hil eta urte anitz geroago. Ilargi begiaren irudia baino gehiago zen musika hura Robertentzat, edertasun mota hura ez zuen atsegin. Roberten iritziz, barruko hutsune handi bat azaltzen zuen doinu horrek, izatearen astuna, nekea.

Beethoveni buruz Robert hizketan entzunda, txunditurik geratzen zen Herman. Areago, Brisek jotako notak aditzen zituenean nola hunkitzen zen ikusita.

Vic Opdebeeck-ek 1945eko martxoaren 16an honela idatzi zuen bere egunerokoan:

Maitea,

Etxean sartu naiz Beethovenen kontzertutik bueltan. Zortzigarren sinfonia entzun dut. Benetan da jeinua gizon hau! Bere musikak inarrosi egin nau eta negar batean hasi naiz. Zutaz oroitu naiz. Nire ondoan behar zenuen.

Non zaude, bihotza?

4

Roberten ametsa, halaxe esan zion behintzat Hermani behin baino gehiagotan, munduan zehar libre ibiltzea zen, inolako loturarik gabe. Hego Amerikara joatea eta hango bazterrak ezagutzea, zibilizazio zaharren aztarnak, oihan amaigabeak. Aitatasunari dagokionez, ez zuen sentitzen haurrak izateko gogoa. Beldurra ere bazion aitatasunari, barru-barrutik, ardura eskerga hori bere gain hartzeari. Geratzen zitzaion askatasun apurra galtzeko ikara, kulturarako, irakurketarako bideratzen zituen ordu urri horiek xahutzeko pena. Baina Bilbotik etorritako Karmentxu Cundin txikerrak, bederatzi urteko neskato hark, bere beldur guztiak uxatu zituen egun batetik bestera. Astia kendu ordez, pertsona legez heltzen lagundu zion Karmentxuk, berarekin igarotako ordu haietan guztietan konturatu zen emandakoaren bikoitza jasotzen zuela bueltan. «Alaia zara eta alaitu egiten duzu jendea; hori baino bedeinkapen hoberik ez dago, esan zion Beethovenek behinola Liszt gazteari. Bada, gure etxera ez da iritsi bedeinkapen hoberik, Karmentxu bai-

no», horra Robertek urte batzuk geroago egindako aitortza.

Edonola ere, bankuan zuen lana zela-eta, batik bat August Mussche zen –Roberten aita– Karmentxuz arduratzen zena. Aita piztu egin zen haurra etxean zegoenetik. Gaitzak atzera egin zuela ematen zuen, itxura gazteagoa ageri zuen Augustek, kalean zehar Karmentxurekin, ohiko seriotasunak alde batera utzi eta, bere ere umea balitz bezala, korrika.

Hego haizeak trebetasunez marrazten duen ekaineko iluntze epelean, patata frijituak saltzea da Karmentxuren jolas gustukoena. August aitona beha duela, gurditxoari oratuta dago, zelatan; eta eskean datozenei zer nahi duten galdetzen bera izaten da lehena. Augusti ez dio ia-ia lanik egiten uzten. «Zuk segi frijitzen», agintzen dio neska-mutil koskorrek ohikoa duten clown serioaren berba eta moduekin. Amantaltxoa ipini eta bera izaten da zerbitzari prestua. Zerbitzaria eta nagusia. Kukurutxoa eman eta kobratu egin die auzokide batzuei. «Eskerrik asko. Etorri berriz ere» esanez agurtu ditu. Irribarre batekin erantzun diote bezero esker onekoek.

Eroslerik ez dagoenez oraintxe, aspertu egin da neskatila eta frijituta dauden patatetara eraman ditu

atzamarrak. Augustek sardexkarekin egin dio keinua, ez lapurtzeko patata gehiago, frijitutako haiek saltzeko direla. Haatik, handik gutxira, eskukada bete eman dio. «Hozten ari ziren», esan dio txantxetan. Patatak jaten ari den bitartean haurrari masaila laztandu eta «Noizbait kiloka patata prestatuko dizut, enpo egin arte jateko. Ea behingoz asebetetzen zaren», agindu dio.

Augustek asko hitz egiten zion Karmentxuri. Uste baitzuen haurrei ahoak eman ahala egin behar zitzaiela berba, behar bezala hizketan ikas zezaten, hizkuntzaren maila desberdinez jabetu eta, era horretara, bizitzako edozein egoeratan jakin zezaten nola egin behar zuten aurrera. Horrelaxe sartu zion Augustek txirrindularitzarako zaletasuna. Bizikletan ibiltzen ere berak erakutsi zion Ferrerlaan lokatzezko kale luzean bizkarretik helduta. Auzokideren bati eskatu eta moldatu zen Karmentxuri bizikletan ikasten erakusteko. Augustek asko zekien txirrindularitzari buruz. Martxoan izaten zen Gante-Wevelgem itzulia, afizionatuen egun bakarreko proba. Jendetza itzela biltzen zen Ganteko kaleetara karrerista haiek ikustera. Bazegoen gazte bat, Gante inguruko herri txiki batekoa, aitonaren begikoa zena, Robert Van Eename, argal-arga-

la eta belarri irtena. Tximista baten abiadurarekin egiten zuen lasterka bi gurpilen gainean. Ardena mendiak igotzen bera izaten zen aurrena. Isildu gabe kontatzen zizkion aitonak Van Eenameren balentriak, baina, neskatoak arreta gehiago jartzen zuen bere bi oinak pedaletan nola jarri asmatu nahian.

Zinemara ere joaten ziren astero, Disneyren marrazki bizidunak ikustera, hain justu; edo Charles Chaplinen hitzik gabeko filmak. Karmentxuk ikaragarri maite zuen Charlot pertsonaia. Maite zuen haren trazak hartuz etxean mozorrotzea, aitonaren kapela buruan paratu eta bibotea margoturik. Augustek gaiztoarena egiten zuen beti, halaxe agintzen baitzion Karmentxuk. Charloten atzetik zebilen polizia izaten zen, eta berak hartzen zituen kolpe gogorrenak.

1938ko Gabonetan opari berezia jaso zuen Karmentxuk. Abenduaren 5ean izaten da Ganten Gabonetako oparien eguna, Eguberri eguna baino zatiaz lehenago. Sinterklaas deritzon jeinuak ekartzen ditu erregaluak, eta denen zapatetan uzten. Karmentxuri, urte hartan, bizikleta bat ekarri zion Sinterklaasek. Papertxo bat zekarren gurdietako batean zintzilik. «Gure Karmentxurentzat, Van Eename txikerrarentzat».

Ikusi ditudan garai hartako argazkien artean, bizikleta gainean dagoen hartan bakarrik egiten du irri, beste guztietan serio antzera dago, pentsakor.

Udaro Ingalaterrara joateko ohitura zuen Hermanek. Ceunistarren etxean igarotzen zituen hiruzpalau aste. Ceunis familia Gantekoa zen jatorriz, baina urteak ziren Hitchin aldera bizitzera joanak zirela. Michel Thieryren laguna zen Gerard Ceunis, gaztetatik, eta gogotsu hartzen zuten etxean Herman, aitak hala eskatuta, gazteak ingelesa ikas zezan. 1929ko udan Herman ez zen isildu bere lagun Roberti buruz hitz egiten, hau eta bestea egin zutela elkarrekin, bera ere arras gustura izango zela Hitchinen ingelesa sendotzen. Kontua da, mutilak Roberti buruz hainbeste hitz egin ziela etxe hartakoei, ezen hurrengo urtean, 1930eko udan, Robert ere gonbidatu baitzuten Hitchinera. Han igaro zituen hamabost egun, Gosmore Roadeko *Salve* izeneko etxe dotorean.

Vanna zen etxeko alaba. Roberten adina izango zuen gutxi gorabehera. Roberti oparitu zion argazkiaren arabera, neska ederra zen Vanna. Begi zoliak ditu, ondo marraztutako ezpainak. Ilea motz. Neska doto-

rea izan bide zen. Alkandora zuri bat du soinean eta perlazko lepokoa. Emakume fina. Begirada azkorra azaltzen du, indartsua. Edozein maitemintzeko moduko neskatila.

Halaxe gertatu zitzaion Roberti. Eta era horretan kontatu zion Hermani, karta bidez, bizitza aldatu zitzaiola Ingalaterrako bidaian, ezin zuela burutik kendu Vannaren irudia: «Leihoaren ondoan, eskua kristalean etzanda, esku fin hura. Eta eguzkiaren izpiak bere begi urdinetan». Begira-begira egoten zitzaion Robert, baina beste ezertara ausartu gabe.

Vanna ez zen Robert bezain erromantikoa. Gustura egoten ziren elkarrekin, batez ere literaturaz solasean. Asko irakurritako neska zen eta unibertsitatean letrak ikasteko asmoa zuen. Bizkitartean, Vanna ez zen horretan gelditzen. Urrunago zihoazen haren kezkak.

Goiz-alba batean, Robert gelan lo dagoela, Vannak txistu egin dio kaletik. Leihora hurreratu da Robert eta hantxe dago Vanna, motorbizikleta gainean.

– Bazatoz?

Robert ez da sekula motorbizikletan ibili. Zalantza egin du hasieran, lotsagatik, baina baietz esan dio gero.

– Oratu errime gerritik!

Vannaren gerri estuari heldu eta hantxe eraman du Robert Ingalaterrako bide bihurrietatik barrena. Haizeak alkandora airatzen dio neskari. Eskuarekin haren gerria senti dezake Robertek. Zalantzaz oratzen dio, mindu nahiko ez balu bezala. Vanna, aitzitik, segurua da, ziurtasun osoz hartzen ditu bihurguneak, gorputza etzan eta motorra albo batera eta gero bestera eramanez. Vannaren zuhurtziak harrituta utzi du Robert. Miretsi egiten du horregatik.

Robertek Hermani idatzitako gutunak jarraian izan zuen erantzuna: «Ezta pentsatu ere, Vanna neurea da». Herman ere zeharo maiteminduta geratu zen neska harekin aurreko urtean eta beretzat nahi zuen.

Vanna, ordea, ez zen inorentzat. Ez zion baiezkorik eman ez bati ez besteari. Ingalaterrako mutil batekin ezkondu zen. Eta 1940an Roberti igorritako gutun baten arabera, badakigu Bigarren Mundu Gerrako frontean zebilela senarra, armada britainiarrean.

Geroztik ez da ezer jakin Vannari buruz.

Hamabost egun haien bukaeran, Vannak liburu bat eman zion opari Roberti. Matthew Arnold da egilea, eta izenburua: *Essays in Criticism*. Macmillan and Co., New York. Dedikatuta dator: «Just an old book I

am very fond of a thought you might enjoy reading. Very Best Wishes. Vanna». Eta pasarte hauxe azpimarratuta: «Gero eta gehiago, gizateria konturatuko da beharrezkoa dugula poesiara gure arreta bueltatzea bizitza interpretatzeko, kontsolatzeko, zentzuz betetzeko. Poesiarik gabe hankamotz geratzen da zientzia».

Vannak nabarmendu zizkion lerro horiei buruz pentsatzen egon zen Robert, bueltako itsasontzia hartu zuenean, olatuei begira. Zer esan nahi ote zuen horrekin Vannak? Poesiaz ari zen benetan ala bere izaera hotz estuegiaz?

Robertek ezin zuen burutik kendu Hitchingo egonaldia. Hainbeste nahastu zuen mutila Vannak ezen Ingalaterratik bueltan baitzirudien artean gogoa han zeukala, erabat itzuli ez balitz bezala. Horixe idatzi zuen behintzat Hermanek egun haiek gogoan hartuta.

Igande arratsaldeetan egin ohi zuten legez, Hermanekin batera zinemara joan da Robert. Akziozko film bat ikusi dute, kezka handirik hartu gabe. Eta filma bukatu ondoren Den Anker kafetegira joan dira zerbait hartzera.

– Abenturazko film horrek berotu egin nau –esan du Hermanek, gorputza atzera botata–. Likore bat eskatuko dut, calvados bat.

– Nik ez dut halako gauza handizalerik behar. Te xume bat hartuko dut, besterik ez. Ingalaterran egiten genuen bezala –esan dio Robertek, misterio aire batekin.

«Gizajoa, pasatuko zaio», pentsatu du Hermanek bere kabutan.

Hara non datorren zerbitzaria, zilarrezko koilaratxo eta esne ontziarekin, portzelanazko kikara eta te ontzi dotoreekin.

– Te xume bat hartuko du *jauntxoak*. Ez zaigu likorea baino merkeago aterako –zirika egin dio Hermanek–. Ni harroputz baino zu putzago.

Igandeetan zinemara. Emil Janningsen abentura filmak, *Kameliadun dama* Norma Talmadgerekin, Alice Terryren *Maitaleak*. Ahotsik gabeko zinemaren urrezko garaia zen hura. Emil Jannings izar handia zen orduan, garaiko filmetako heroia, baina ez zen moldatu soinuaren agerpenarekin eta bazterrera geratu zen; ez zekien ahotsarekin antzezten. Eta gainera, Biga-

rren Mundu Gerran nazien alde egin zuela zabaldu zenez, aurrerantzean ezin izan zuen lanik topatu.

Zinemara joaten zirenean, aldi oro, filmeko kredituak bukatu baino lehen altxatzen zen Robert. Aurrenekoa izaten zen zinematik irteten. Pelikula bukatzear zegoela sumatzen zuenean alde egiten zuen. Hermanek ez, hark gustuko zuen bukaera-bukaera arte itxarotea, argiak piztu eta ikusle guztiak irten arte. Amaiera ona zenean pentsakor geratzen zen, gozamena luzatu nahian edo. Amaiera eskasa bazuen, aldiz, aulkian geratzearen arrazoia beste bat zen, filmari bigarren aukera bat eman nahi izan balio bezala. Batzuetan zein besteetan, Robert zain izaten zuen kanpoan, zigarro baten keaz kiribilak marrazten.

5

Gerrako umeak etxean hartu zituen beste familia bat Alinerena izan zen. Emakume berezia zen Aline, suhar eta itzal handikoa Ganteko aurrerakoien artean.

Aspaldidanik ezagutzen zuten elkar Robertek eta biek. Emakume iraultzaile eta naturista hark bi semealaba bazituen ere, *Habana* ontziaren bidaiaren berri jakin zuenean, hirugarren bat hartu zuen: Graciano del Rio bilbotarra. Gracianok Mexikon bukatuko zituen bere ibilerak Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, Gante utzi eta Atlantikoa zeharkatu behar izan baitzuen ihesean, eta hantxe bizi izan zen geroztik.

Robertek eta Alinek ohitura zuten haur guztiekin batera asteburu pasa mendialdera joateko, kanpindenda hartuta. Halatan, Karmentxu eta Graciano maiz suertatzen ziren elkarrekin, jolas-lagunak bihurtzeraino.

– Badakizu, Karmentxu? –esan dio Gracianok denda barruan jolasten dabiltzala–, Aline biluzik ibiltzen da etxean.

– Arroparik gabe? –Karmentxuk, mesfidati.

– Bai, ezer gabe. Biluztuko al gara gu ere? –bota dio, birritan pentsatu gabe.

– Bai zera! –ezetz esan dio Karmentxuk, erdi harriturik erdi nazkaz, eta ospa egin du kanpin-dendatik.

Roberten gurasoei ez zitzaizkien ondo iruditzen Alineren ekandu berri haiek. «Hori jende arraroa», entzun izan zion behin baino gehiagotan Robertek amari Alineren nudismoaren inguruan. Karmentxu haiekin batera nahastea ere ez zuten begi onez ikusten gurasoek, baina Robertek ez zien kasurik egiten, gustuko zuen Alinerekin geratzea. Emakume txinparta zen, ero samarra baina bizi-bizia, eta bazirudien Karmentxu ere ondo moldatzen zela Gracianorekin. Gauzak horrela, zergatik trabak jarri beraien arteko adiskidetasunari.

Udako kanpin egun haietan, mendiko bidezidorretatik barrena oinez zihoazela, Espainiako Errepublikako kantak abesten botatzen zuten urratsa aurrera Robertek, Alinek eta haurrek. Elkarren atzetik joaten ziren martxan, bataren atzetik bestea, bihotz oneko soldadu ezgauzen batailoia. *A las barricadas, a las barricadas, por el triunfo de la Confederación.* Salto batean iristen ziren tontorretara horrela, konturatu gabe ia.

Robert Musscheren liburutegia erakutsi zidan bere alaba Carmenek 2011ko azaroan. Gante kanpoaldeko Lochristi herrian daukaten etxean bildu zituen ale guztiak Carmenek, gela oso bat harturik aitaren liburuak gorde eta ordenatzeko. Lochristiko etxea Carmenen senarraren familiakoa izan zen ehun urte baino gehiagoz. Herriko medikuaren etxea zen, XX. mende hasieran eraikia. Beheko solairuan garagardotegi bat ere izan zuen garai batean. Marc, ekonomista erretiratua, gizon kultua eta atsegina da. Langarra ari duenez, autotik korrika batean joan gara atarira.

Sarreran, umeentzako arbeltxo batean, latinezko esaldi bat daukate: *Non vobis, sed vos*. Alegia: *duzuna baino areago, zarena*. Ingalaterrara egindako bidaia batean apezetxe bateko atalasean ikusi omen zuten zizelkatuta, eta euren lema da harrezkero. Egongelan sartu gara. Leiho altuak ditu, ispilu ederrak, piano luze bat. Hantxe hartu dugu kafea lanean hasi baino lehen.

– Etxe handiegia da hau bi lagunentzat, hotz egiten du –esan dit Marcek–. Lehen jende asko ginen etxean, baina orain ez. Askotan pentsatu dugu etxe hau utzi eta Gante erdialdean apartamentu bat har-

tzea, biontzako modukoa, kanalei begira. Baina pena ematen dit aitonak eraikitako etxea uztea.

Goiko solairura eraman naute gero, Robert Musscheren liburutegia dagoen tokira.

– Bakarrik lagako zaitut, alboko gelara noa ni –esan dit Carmenek–. Uste dut liburuak bakarka begiratu behar direla.

Aitaren paperak antolatzen dabil bera, kutxetan gordetako gutunak, argazkiak, agiriak. Apalategiei begira hasi naiz, liburu bildumaren handiarekin mira eginda. Gaztetandik inguratu zituen aleak daude bertan. Flandrieraz, frantsesez, ingelesez, alemanez eta espainolez idatziak. Poesia, fikzioa, pentsamendua, historia. Euskal Herriaz mintzo den liburu bat ere aurkitu dut ustekabean: Pedro Basalduaren *El dolor de Euzkadi*. Eusko Jaurlaritzak 1937an argitaratutako alea, propaganda hutsa. Hainbat gauzaren artean Lauaxeta idazlearen olerki bat dator.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean.
¡Amar gasteren lerdena
bixitza-barik lurrean!

Albo ohar labur bat dauka olerkiak, kontatuz nola fusilatu zuten idazlea Gasteizko hilerrian.

Bertrand Russell, George Orwell, Robert Louis Stevenson, Herman Melville, Johann Wolfgang von Goethe, Friedrich Schiller, Miguel Unamuno, Michel de Montaigne, Willem Kloos, Pio Baroja, Karel van de Woestijne, Miguel de Cervantes, Federico Garcia Lorca, uzta eder ugaria zuen Robertek liburutegian. Baina argazki-liburu batek deitu dit arreta: *Lehen Mundu Gerrako argazki debekatuak.* Alemaniako Armadak ateratako erretratu sekretuen edizioa da: urkamendiak eta urkatuak, emakume bortxatuak, haur hildakoak bide bazterretan. Horren aldamenean dagoen Robert Gravesen *Good-bye to Old That* oroitzapen liburuaren alea atera dut apaletik. Gerra handian egon zen Graves, Galesko erregimentuan. Frantziara bidali zuten, lubakietako gerrara. Han bat egin zuen Siegfried Sassoon eta Thomas Hardy idazleekin, besteak beste. Beharbada ingelesezko idazle belaunaldirik onenetakoak topo egin zuen han, non eta gerra krudel baten erdian. Gertakari barregarriak kontatzen ditu Gravesek, eta baita bortitzak ere, latzetan latzenak. Gasa orduantxe erabiltzen hasi ziren. Alemaniarrak lehenik eta britainiarrak eurak gero. Kloroa. Hura arnasten

zuenari birikak barrutik odolusten hasten zitzaizkion eta, oinaze jasanezinaren ostean, ito egiten zen. Idazleek ezin zuten onartu britainiarrek ere halako baliabide ankerrak erabiltzea, ustez mendebaldeko zibilizazioaren zaindari ziren horiek.

Liburuko orrialdeak ausaz irakurtzen hasi naiz, Siegfried Sassooni buruzkoak aurkitu arte. Nola bere agintepean zeuden soldaduak, borrokatzen hasi baino ordu batzuk lehenago, basora eraman eta aldizkarietako pasarte barregarriak irakurtzen zizkien, aberriari eta erreginari buruz berba egin beharrean. Edo nola ahalegindu zen, beste batean, frontean zeuden bitartean, behor beltz bat, galant bezain aiurri gaiztokoa, domatzen. Nonbait, behorraren gainean jarri eta hesi garai bat zegoen tokira bideratzen zuen jauzi egin zezan. Hesiak metro eta laurogei zentimetro izango zuen. Behorra hesira hurbildu bai baina geratu egin zen haren aurrean. Bigarrenez, behorra eraman du toki berera eta geratu egin da orduan ere. Siegfried, ordea, ez da haserretzen, ez du behorra zigorraz kolpatzen. Pazientziaz saiatuko da behin eta berriro, eta azkenean behorra hesiaz beste aldera igarotzea erdietsiko du.

Sassoon ezaguna egin zen «Gerrari mespretxua - Soldadu baten aitortza» izeneko gutun publiko bat idatzi zuelako, agintarien ganora falta eta gezurra salatuz eta esanez benetan sufritzen ari zirenak lubakietako soldaduak zirela, oso ondo jakin gabe zeren alde ari ziren borrokan. Gravesek gutuna osorik jasotzen du liburuan. Hala ere kritikoa da, ez gutunaren edukiarekin, gutun hori idaztera bultzatu zuten besaulkiko intelektual bakezaleekin baino. Sassoonek larrutik ordainduko zuen idatzi hura, zigor militar bat jasoko zuen eta, Gravesen aburuz, Sassoonen gorputza ahulegi zegoen kartzela egunak jasateko. Ez zuen merezi esfortzuak. Gravesek laguna ikusten zuen ideien gainetik.

Carmen Musscheri galdetu diot bi liburu hauei buruz, eta itaun egin Lehen Mundu Gerrak Robertengan izan zuen eraginaz. Carmenek argazki bat atera du paperezko zorro zahar batetik. «Erreparatu ondo paparrekoari». Esku bi fusil bat erdibitzen irudikatzen zuen paparrekoa zeraman Robertek bere jakatik zintzilik. Carmenek azaldu zidan Gerraren Kontrako Ligako kide izan zela Robert gaztetan, bere garaiko beste asko bezala, eta paparrekoa kendu ere ez zuela egiten soinetik gazte sasoi hartan. Gerla Handiak arrasto

iluna utzi zuen flandestarren artean. Ypresko hiru gatazka odoltsuek gerraren kontrako sentimendu mingotsa sortu zuten. Milaka lagun hil ziren bataila haietan.

Soldadutza egin zuenean ere ez zuen ondo igaro Robertek, Ganten bertan egin arren. Beverloko ospitale militarrean egon zen gaixorik denboraldi batez, eta birikietakoak jota zegoen bitartean gutun bat idatzi zion Hermani, adieraziz ondo zegoela baina ez zela ondo moldatzen soldadu waloiekin; ezinikusirik ez zegoela euren artean, amorrurik ere ez, baina ez zela lasai sentitzen haiekin. Garai hartan frantsesa zen kultura hizkuntza Belgikan eta flandriera langileena. Horrexegatik, langile erakundeetako egunkariak flandrieraz argitaratzen ziren eta ezkerreko intelektual askok flandrieraren aldeko hautua egin zuen, nazionalista ez izanik ere. Robert ekaitz arratsalde batean basoan zehar ibiltzeagatik zegoen Beverloko ospitale militarrean, pneumoniarekin. Maite zituen ekaitz egunak, maite zuen euria eta hotza aurpegian sentitzea.

Ludwig van Beethovenen antzera. Konposatzen ziharduenean, maisuak gogoko izaten zuen paseatzea, euritan bazen hobeto, ideiak argitzen zitzaizkion-eta horrela. Zahartzaroan, jadanik gortuta zego-

ela, Beethoven kantari joaten zen larrerik larre. Behin, idiei uztarria jarri nahian zebilen baserritar bat kexatu egin zen. Besoak airera mugitzen zituen gizon hura ikusita, aztoratu egin ziren behiak. Uztarritik libratu eta ihes egin zuten mendian gora. Baserritarra kexuka eta oihuka hasi zitzaion, baina Beethoven ez zen ezertaz ohartzen. Handik egun batzuetara lasaitu egin ziren baserritarrak, jakin baitzuten nor zen larrerik larre besoak airean eta kantari ibiltzen zen gizon zoroa, eta aurrerantzean ez zioten jaramonik egin. Ezta behiek ere. Burua pixka bat altxatu, zoroa begietsi eta belar janari jarraikiko zitzaien.

Ospitalean zegoela, Robertek egoera desatsegin bat bizi izan zuen eta halaxe idatzi zion Hermani. Baziren pare bat gau, saguzar bat ospitaleko gelan sartu eta ostendu egin zela. Iluntzean hegaz hasten zen, bira eta bira, gelako sabaian. Aurreneko gauean jasan izan zuten soldaduek, baina bigarrenean amorruak zapart egin eta hura harrapatzeari ekin zioten. Soldaduek kapela militarrei korapiloa egin eta pilotak bailiran botatzen zituzten animaliatxoaren kontra. Saguzarrak gizonen oldarrei eutsi eusten zien, haiek jaurtitako kapela bolei itzuri egiten zien nola edo hala. Gisa

hartan jardun zuten bi orduz, deiadar eta suminez kapelak airera botatzen.

Robert higuinduta zegoen trantze hartan. Gelditzeko erregutzen zien, uzteko piztia bakean. Alferrik zen ordea. Mutil haiek saguzarra akabatu nahi zuten kosta ahala kosta. Eta halako batean akitu zen hainbeste hegal egiteaz eta pausatu zen lurrean. Soldaduek gorak eta bibak bota zituzten. Haietariko bat mamua hartzera joan zenean baina, ospitaleko zaindaria sartu zen gelan, zalaparta hura zertara zetorren jakin nahian.

Saguzarra eskuetan hartu eta kaiola batean sartu zuen zaindariak, eta libre utzi zuen hurrengo iluntzean, gau sakonean aske.

Carmenek hots egin dit bere gelatik, aitaren paperen artean zerbait aurkitu duela esateko. Besoko bat da, Espainiako Errepublikako banderaren koloreekin. Kataluniako frontean janzten zuen Robertek. Eta igandero gerrako haurrei eskolak ematean ere bai geroago.

– Liluragarria da!, den-dena gorde zuen gure amak.

6

Granollers, 1938ko maiatzak 31. Egun bi baino ez dira Robert bertan dagoela. Goizeko bederatziak puntuan hegazkinen hotsa entzun da. Bederatziak eta bostean deseginda dago herria. Pasada bakar batez italiarren Savoia-Marchetti S.79 hegazkin bonbaketariek sutan utzi dituzte bazter guztiak. Minutu bateko kontua baino ez da izan, lurrikara baten iraupen zolia izan du, lipar hiltzaile bat.

Robert kale erdian harrapatu du bonbardaketak. Konturatu orduko, inguruan zuen guztia desegin da. Lurra behean, goian zerua. Parez pare duen etxean, hondakinen artean, harri, ohol eta burdina zatien azpian oihuka ari da norbait. Kapela bat, plater hautsiak, zartatu egin den erloju zahar bat kendu ditu haren aztarnaren bat idoro nahian. Auhena entzuten ari da Robert, gizonaren bila dabil hura salbatu guran, baina ezin du ezer egin. Bat-batean, zalaparta, iskanbila kalean, erreskate taldeak, anbulantziak, polizia. Jendea korrika ezker-eskuin. Hondakinen artean preso dagoen gizon haren lanturua entzuten du soilik zarata guztien gainetik.

Auhena eten egin da une batez, bor-bor egin dio ahoak, irentsitako hautsarekin itolarrian zebilen. Gero, isilunea. «Hil da. Nire aurrean hil da eta ez naiz mugitu ere egin». Mina sentitu du Robertek, oinazea gorputz osoan. Horren ostean, nazka. Bere burua madarikatu du. Zer egiten dut nik hemen kalearen erdian? Zergatik ez dut ohol bakar bat ere kendu? Zergatik mugi ditzaket nik beso-zangoak aske eta hondakin artean dagoen horrek ez?

Ezintasunez damutu da Robert. Ordura arte ez zuen horren gertutik ikusi pertsona bat hiltzen. Ezin al zen ezer egin hura salbatzeko? Soldadutzako saguzar hura hartu zuen gomutan. Saguzarrak zortea izan zuen azkenean, ospitaleko zaindariak libratu zuen eta bizirik atera zen. Baina orduan ere berak ez zuen ezer egin. Begira egon, hitz totel batzuk esan, besterik ez. Ez zien aurre egin bost soldadu ero haiei. Eta, orain, Granollersen, biztanle zibilen aurka inoiz egin den erasorik larrienetako batean, han ere ez da nor izan erreguka zebilen bizitza hura salbatzeko. 224 hildako eta 161 zauritu minutu bakar batean. Madarikatu egin ditu hegazkinak. Norbaitek bere kargu hartu beharko ditu, bada, krimen hauek.

Aita hilko zaionean ere, zenbait urte geroago, sentimendu bera izango du Robertek. Hogei urte egon zen aita gaixotasunaren aurka borrokan. Hogei urte fabrikan istripua izan zuenetik. Hogei urte arnasa ezin hartuta. Aita, aiurri gogorreko gizon hura, indartsua eta lodia sasoi batean, txori txiki bat bezain singlea bilakatu zen azken urteetan. Halaxe ikusi zuen itzaltzen Robertek, gutxika-gutxika. Egun batean zotin egin eta arnasa betiko joan zitzaion arte. «Baldintza arrunt batzuetan, aita luzaroan bizi izango zen», idatzi zion Robertek Hermani. Baina bizi eta lan baldintza astunak nozitu behar izan zituen.

Aitari esku hotza hartu zionean hauxe agindu zion Robertek bere buruari: «Heriotza ez dadila alferrekoa izan, ez dadila gehiago horrelakorik gerta». Granollersen pentsatu zuen gauza bera, han kalearen erdian, belauniko, ukabilak estutu eta zerura begira.

Theatre Royal. 1938, otsailak 22. Argiak itzali dira. Robert eta Karmentxu elkarren ondoan eserita. Oihala altxatu da. Eresoinka-ren emanaldia. Euskal Herriko kantak eta dantzak taularatuko dituzte. Antzokia mukuru bete da. Gerrako haur guztiak bildu dira

bertara, guraso berriekin. Atera dira dantzariak oholtzara. Kaxarranka dantzatu dute aurrena, Lekeitioko arrantzaleen dantza; San Pedro egunean egiten dute, kofradiako agiriak gordetzen dituen kutxa handi baten gainean dantzatzen du dantzariak. Alkandora urdinak eta zapi koadrodunak ikustean Santurtziko portuaz oroitu da Karmentxu. Gero, pentsatu du bere zortzi urteko adimenarekin, nola demontre konpontzen diren dantzariak halako toki estuan pauso eta brinko egiteko, estropezu egin eta handik goitik ez erortzeko. Urduri jarraitu du dantza, kutxa gaineko gizon haren oinei begira eta, noizbehinka, etengabe mugitzen zen kutxari eusten zioten beheko dantzarien aurpegi neketsuei. Goiko dantzaria noiz eroriko, aldi berean beldurrez eta desiratzen. Dantzen artean, kaxarranka eta ezpata dantza izan ditu gustukoen Karmentxuk, batez ere, bigarren dantza honetan mutilik txikiena bizkar gainera altxatzen duten une hori, nola gurtzen duten txikitxoa dantzari handienek, ezpatek antzokiko argiekin ñirñirka egin bitartean.

Emanaldiaren erdialdera, abesbatzak sehaska kanta bat kantatu du.

Haurtxo txikia sehaskan dago
zapi zuritan txit bero.
Txakur handia etorriko da
zuk ez baduzu egiten lo.

Amonak dio, ene potxolo,
arren egin ba, lo, lo.
Horregatik ba, ene potxolo,
egin agudo lo, lo.

Lo-kantarik ederrenetakoa izango da, doinuari dagokionez, *Haurtxo txikia* izeneko hori. Baina ederta-sun horrek halako amenazu bat gordetzen du azpian. Umea goxo-goxo dago zapi zuritan; aitzitik, bigarren ahapaldian mehatxua dator, esaten zaionean, txakur handia etorriko dela lo egiten ez badu. Federico Garcia Lorcak esana zuen hitzaldi batean, euskal haur kanten irudiak ez direla hain gogorrak, poetikoak direla, baina nago ez dela guztiz egia. Bada sehaska-kanta bat, *Loa-loa* izenekoa, honela dioena: «Aita gureak diru asko du, ama bidean salduta», edo beste aldaera batean, «Aita zurea tabernan da, ama etxean utzita». Kantuak kantu, itxuraz Karmentxu harrapatu du txa-

kur handiak, lo geratu baita Robert konturatu orduko, eta ez da berriz itzarri bukaerako txalo zaparrada arte.

Robert Musschek gorde egin zuen gau hartan antzokian banatu zuten esku-orria eta bertan datoz jasoak datu guztiak, dantzatutakoak eta kantatutakoak eta parte-hartzaileen izen-abizenak. *Haurtxo txikia* interneteko bilatzailean sartu eta Eresoinkaren garaiko grabazio bat aurkitu dut. Ahotsa Pepita Enbilena da. Oilo ipurdia jarri zait. Placido Domingo tenorearen ama zen Pepita Enbil eta han ibili zen Europan barrena Euskal Herriko ohitura eta kulturaren berri ematen. Luis Mariano kantariak ere parte hartu zuen biran. Halako kultura enbaxada bat izan zen. Manu de la Sota Eusko Jaurtzaritzako ordezkariaren gidaritzapean hainbat artista, dantzari eta kantari bildu ziren Eresoinka egitasmoan. Antonio Gezala margolariaren eszenografiaren irudiak jasotzen zituen esku-orri txukunaren arabera, Eresoinkarekin Bruselako Orkestra Sinfonikoak jo zuen Ganten.

Birako argazkiak aurkitu ditut, halaber, sarean. Artista taldea kanaletako zubiren batean argazkia ateratzen, hogeitik gora lagun. Berokiekin jantzita doaz, otsaileko negua nabari zaie begibitarteetan. Lanbroa da ur azalean. Beste argazki batean emanaldiko kar-

tela ageri da, txokolate denda bateko erakusleihoan jarria.

Diktaketetako koaderno bat taxutu zuen Robertek 1937. urtean, haurrentzat St. Nievens kalean igandero antolatzen zituzten eskoletarako. Astean behin biltzen zituzten gerrako haur guztiak, euren artean eta sorterriarekin zuten zilbor-hestea erabat ez hausteko. Robert gaztelania eskolak emateaz arduratzen zen. Bere liburutegiko idazleen esaldiak ageri dira kaierean, handik eta hemendik berak hautatuak. Egile kuttunen liburuak zabaldu eta kopiatu egiten zituen pasarteak. Luzea da idazleen zerrenda, besteak beste, Montesquieu, Goethe, Victor Hugo, Zola, Schiller, Tolstoi, Hume, Carlyle eta Auerbachen pentsamenduak daude jasoak. Txikia da koadernoa, karratuduna, ikasleek ibiltzen zuten horietakoa.

Orriak pasa ahala Saforen hiru esaldi hauek irakurri ditut:

«Amorruaren aurrean ez dago ezer hoberik isiltasuna baino».

Eta beherago:

«Pertsona eder bat ederra da besteek ikusten dutenean soilik, baina pertsona jakintsua ederra da inork ikusi gabe ere».

Eta azkenik:

«Heriotza ona balitz, jainkoak ez lirateke hilezkorrak izango».

7

Zoologiko batera egindako txangoaren argazkiak aurkitu ditugu paperezko zorro batean. Igandeetako eskolako haurrekin ageri da Robert.

Carmen Musscheri galdetu diot nongoa izan litekeen zooa, baina ez du erantzuten jakin. Marc senarrak hartu du argazkia eta segituan argitu digu:

– Anberesko zoologikoa da.

– Nola antzeman diozu?

– Apaingarri egiptoarrak ditu.

Datarik ez badute ere, arropei erreparatuz igartzen da udaberria izango zela. 1938ko bedatsea. Haurrak Anberesko zoologikoan, lehoiei, tximinoei, itsas txakurrei begira. Animalia guztiak ikusi ondoren, irteeran, kaiola huts bat aurkitu zuten. Kaiola barruan, ispilu bat. Eta ispiluaren gainean esaldi hau: «Gizakia, denik eta animaliarik gaiztoena».

Etxean zain zeukan August, aitona. Patatak eta patatak prestatu zizkion neskatilari, zoologikotik bueltan jateko. Labean gorde zituen, zientoka patata frijitu. Baina Karmentxuk beste plan batzuk zituen eta ez zen afaltzera garaiz heldu. Gracianorekin jolasean ge-

ratu zen kalean, luzatu egin zitzaion etxera itzultzeko garaia.

Robert txangotik iritsi denean, Karmentxuri buruz galdetu dio.

– Ez zegoela gose esan dit –erantzun dio Augustek–, kalean geratuko dela Gracianorekin.

Karmentxu etxeratu denean, aitonak labea zabaldu eta patatak erakutsi dizkio. Kiloka patata, patata zaporetsuak, distiraz betetakoak baina ordurako hotzak. Karmentxu saiatu da haiek jaten, aitonari atsekaberik ez emateko, baina ezin izan du. Laurden bat jan eta amore eman behar izan du. Lotara joan da gero.

Sint-Baafs katedralera eraman ditu haurrak pintura flamenkoaren obra gorena erakustera: *Bildots mistikoaren gurpena* edo *Ganteko poliptikoa*. Hubert eta Jan van Eyck anaiek 1432ko udaberrian amaitua. Egurrean margotutako olioa. Hubert zen lanaren arduradun nagusia, halaxe ageri baita latinez idatzitako testuan: *Pictor Hubertus e Eyck maior quo nemo repertus*; dena den, Jan anaia gazteak bukatu behar izan zuen obra hura, Hubert hil egin baitzen bost urte lehe-

nago. Poliptikoa Sint-Baafs katedraleko nabe nagusitik ezkerraldera dagoen kapera batean zegoen, Joos Vijdt eta Lysbette Borluut senar-emazteen izeneko kaperan.

– Milaka xehetasunez osatutako lana da. Mundu osoko herri eta arrazak irudikatu zituzten, ez dago aurpegi bat bera ere berdina denik. Atzean hiriko etxeak ageri dira, jauregiak, gazteluak. Eta gazteluko leihoren batean hantxe ikusiko duzue norbait begira. Landareak ere ez dira iritzira egindakoak, Europakoak ez ezik Asiako lore eta zuhaixkak ere irudikatu zituzten bertan.

Haurrek arreta handiz jarraitzen dituzte Roberten azalpenak.

– Orain begiratu hor gaineko aingeruei. Ikusten duzue nola ari diren kantari. Bada, margolariek hain ondo zaintzen zituzten xehetasunak, ezen jakitunek esaten baitute, aingeruen ahoen keinuari arretaz begiratuz gero, sumatu daitekeela zein notatan kantatzen ari diren eta, ondorioz, zer kanta den abesten ari direna.

– Nik badakit zer kantatzen duten –esan du Gracianok.

Barrez hasi dira ikasle guztiak.

– Ixo –haserretu da Robert–. Ea, zer kanta da, ba?

– *A las barricadas, a las barricadas*... –hasi da Graciano.

Karmentxu aingeruen arropei aho zabalik begira geratu da. Zeinen kapa ederrak zituzten aingeru haiek, belusezkoak, urrez eta bitxiz brodatuak. Ezker aldean organoa jotzen ari den aingeru hartan fijatu da. Ez da inola ere ume bat, ordura arte ezagutu zituen aingeruak bezalakoa. Nerabea dirudi. Eta kapa luze bat darama soinean, urre kolorekoa eta marrazki ilunekin, bost hostoko loreak estanpatuta, geometria perfektua osatzen.

– Karmentxu, faborez, galduko zara-eta! –hots egin dio ataritik Robertek.

– Banoa, banoa.

Maiatzaren Lehena, 1938. Manifestazioaren buruan doaz gerrako haur guztiak, pankartan handi bat dutela lagun: «10.000 haur espainiar hil ditu faxismoak». *Vooruit* egunkari sozialistako lehen orrialdean argitaratu zuten argazkia. Bazter batean umeak gidatzen ageri da Robert Mussche. Karreristek egiten du-

ten ibilbide bera egin du manifestazioak, Korenmarkt kaletik Belfort ingurura heldu arte.

Espainiako Gerran gauzak gaiztotzen zihoazen eta nazioarteko giroa ere berotzen. Elkartasunez, Europako idazle eta pentsalari ugari bildu zen Errepublikaren alde. Manifestaldi haren ostean, egun gutxi batzuk barru, Robert bera ere Katalunia aldera joan zen, *Vooruit* aldizkariak bidalia. Ekialdeko fronteari buruzko berriak eman zituen handik.

Maiatzaren 29koa da Errepublikako agintariek eman zioten agirian jartzen duen data. Hamabost egunerako baimena baino ez zuen.

MINISTERIO DE DEFENSA NACIONAL

Autorizo a M. Robert Mussche, corresponsal del diario Vooruit, para visitar el frente del Este.

Esta autorización tiene un plazo de validez de quince días.

Barcelona, 29 de mayo de 1938.

El Secretario General

Iluna da Robert Espainiako Gerran egon zen garaia. Ez dago argi hamabost eguneko bidaia hura izan ote zen hara egindako ostera bakarra. Jakiterik ez dago baimen hura luzatu egin zuen edo ez. Datu ugari falta zaigu, halako ahaztura zulo bat. Badakigu Granollersen zegoela, Fonda Europa ostatuan hartu zuela gela eta bertan biltzen zela kazetari atzerritarrekin, gerrari buruz ezbaian jarduteko. Badakigu, alabak esanda, Ernest Hemingwayrekin eta Andre Malrauxekin nolabaiteko hartu-emana izan zuela. Ba omen ziren Hemingwayk bidalitako gutunak ere, baina, tamalez, lekualdatze batean galdu egin zituzten. Amaren deskuidu bat izan omen zen eta kartak gordeta zeuden maleta betirako aldendu zen.

Edonola ere, Hemingwayrekin baino harreman sendoagoa izango zuen, seguruena, Arturo Souto eta Victorio Macho artistekin. Bi sortzaileak margolari eta eskultoreak ziren, Errepublikako kausari hertsiki atxikiak. Hainbestekoa zen eurekin zuen adiskidantza ezen Arturo Soutoren erakusketa bat antolatzen lagundu baitzuen Robertek 1939an Bruselan. Erakusketa haren inaugurazioko argazkiak badira. Hori baino gehiago, Arturo Soutok opari emandako koadroak daude Roberten liburutegian. Lapitzez egindako ma-

rrazkiak dira, zuri-beltzean. Koadrootan guardia zibilak ageri dira baserritarrak fusilatzen, bide bazterrean hildako milaka lagun horiei buruzko obra goibelak.

Granollersera bidaiatuta deskubritu zuen, egiatan, mundu berria, totalitarismoaren aurka borrokatzen ziren haiena, jende xehearena, baita artistena ere. Sortzea ez zen nahikoa, sortzeaz gain artistak askatu egin behar zuen. Libratu bere burua eta ingurukoak. Robertek hainbat kronika bidali zituen Kataluniatik, eta Federico Garcia Lorcari buruz idatzitako artikulu luze batek jarraipen berezia izan zuen Ganteko irakurleen artean.

Bertatik bertara konturatu zen anitza dela errealitatea. Sekula ezagutu gabeko hizkuntzen berri izan zuen: katalana, euskara, galegoa. Castelaoren liburuak ekarri zituen, orobat katalanez idatzitako nobela eta poema zakukada eder bat; eta, azkenik, euskararen historiaren berri ere izan zuen, nola eutsi zion bizirik milaka urtean horren hizkuntza txikiak. *Vooruit* egunkarian argitaratzeko asmoz etxera bueltan eraman zituen ehunka argazkien artean Agirre lehendakariaren bat zegoen. Hari buruz idazteko asmoa izan bide zuen Robertek beharbada. Baina ez dut aztarnarik aurkitu.

8

Hermanen hamazazpigarren urtebetetzean, 1929ko irailaren bigarrenean, Robertek liburu bat oparitu dio: Anatole Franceren *L'Anneau d'améthyste*. Eta zorion hitzen artean hauxe idatzi du:

> «Urteak betetzen dituzu gaur eta horrek zoriontsu egiten nau. Aitzitik, urrats bat hurbilago zaude bizitzak, bihozgabe, banatuko gaituen egunetik.
>
> Beharbada egunen batean hartuko duzu liburu hau esku artean, baina ez literatur lanaren ederragatik, oroitzen ahalegintzeko baizik, gogoratzeko behin liburua oparitu zizun aspaldiko lagun hartaz.
>
> Lagun diezazula, beraz, opari honek etorkizunean, ahaztuta zenituen gauza horiek bihotzaren sakonean aurkitzen».

Hermanek irakurri duenean, ezetz esan dio, ez pentsatzeko, arren, horren gauza hitsetan, sekula ere ez direla-eta elkarrekin haserretuko. Betirako egongo

direla elkarrekin. Beraien adiskidantza, hori dena baino askoz indartsuagoa dela.

Hausturak ez dira bat-batean gertatzen, luzarotik sortzen ari den zauri baten ondorio izaten dira. Lurrikarak bezala, lur barneko geruzek indarrak egiten jarduten dute isilean, bata bestearen kontra, azkenik, une jakin batean, lurrazala urratzen duten arte. Hausturaren arrazoia ere, barru-barruko zioa, ez dugu hain garbi izaten denboraldi bat igaro eta gero arte; eta gutxitan izaten da gauza bakar bat arrazoia, desenkontru bakar bat, haserrealdi bakar bat, lurrikara hori guztia sorrarazten duena. Gainera, denboraren poderioz, hainbeste mindu gintuen arrazoi hura lausotzen joaten da, ertzak gastatzen zaizkio, katedraleko atariko irudi gotikoei bezala, eta ez digu hainbesteko oinazea ematen.

Lagunak ez dira bat-batean haserretzen, aitzitik, bakoitzaren bizitzak tira egiten du alde batera eta bestera, eta indar horien ondorioz apurtzen da adiskidetasuna, oihal zahar bati tiratzen diogunean bezala. Eta norberak pentsatzen du nola den posible garai batean hain gertu izandako pertsonak gero hain urrun

egotea, behin ondo elkar hartu zuten pertsona berek saminez jokatzea gero, bihozgabeko amorruz, maitalerik traketsena balitz bezala.

Zerk bultzatu zuen Herman Robertekin hain maltzur jokatzera? Zergatik nahi izan zuen horren gaizki utzi mundu guztiaren aurrean haren oso barruko gauzak azaleratuta? Egiaren jabe zela uste al zuen Hermanek, Roberten gainetik zegoela? Ez al zen nahikoa maitatua sentitzen edo iraganekoa uste zuen zela beraien arteko adiskidetasuna, atzean utzi beharrekoa? Batek daki. Agian arrazoi bat baino gehiago izan zen, gehienetan gertatzen den antzera.

Elkarrekin egondako azken aldietan solasaldiak ez ziren horren lasaiak; hastapenetan ez bezala, engoitik ez ziren bat etortzen begirada bakar batekin. Materiaz eta izpirituaz aritu ziren hartan gertatu moduan. Materia izpirituaren aurka. Robert platonzalea zen horretan, materia eta izpiritua bi ziren.

– Erromatarrek, dakizun legez, *anima* esaten zioten arimari, hots, mugiarazten duen hura, bizidunak bizidun egiten duen hura. Indar hori gabe, Herman, deus ez gara gizakiak.

– Harritzen nau, Robert, kristaua ez izanda, izpirituaren alde horrenbeste egitea. Izpiritua ez da ezer

materiarik gabe. Pertsona bat bi-biak dira. Zientziak erakutsi digu hori.

Emile Zolaren *Ametsa* liburuaz ere eztabaida izan zuten. Robertek gustuko izan zuen bederatzi urteko umezurtza etxean hartzen duten brodatzaileen istorioa. Neguko gau batean eliz atari batean aurkitu eta hezi egingo dute neskatila, ipuin miragarriak kontatuz eta santuen bizitzak irakurriz. Neskak usteko du bere bizitza ere halakoxea dela, harik eta ezkontza egunean bertan hilko den arte. Angelique hark eutsi egingo dio ontasuna aurkitu nahi horri, heriotzaren egunera arte.

– Erabat inozoa iruditzen zait liburua –zakar esan dio Hermanek, Roberten suharra apalduz–. Ez du zerikusirik *Germinal* harekin. Bi idazle desberdinek idatzita daudela ematen du.

– Bada, nik gustuko izan dut. Azkenean Zolak planteatzen duena da, nahiz eta inguru jakin batean jaio, ideal bat jarraitzen baduzu, zure bizitza bestelakoa izango dela. Determinismoaz ari da, zergatik behar duen pertsona baten etorkizunak finkatuta egon, bestelako aukerarik eman gabe.

– Baina ezkontza egunean hil egiten da-eta... A ze nolako askatasun aukera!

– Denok ez gara zu bezala bits-aparretan haziak izan, Herman.

Herman eta Roberten ezbaien sakonean sexuaren kontua zegoen, geroago jakin dudanez. Urteak aurrera zihoazen eta Hermanek ez zuen ulertzen zergatik Robertek ez zuen neskekin harremanik izaten. Maitemintzen zen bakoitzean pertsonarekin maitemintzen zen edo, areago, pertsona hartaz berak zuen ideiarekin. Maitasun erromantikoak izaten ziren denak, hobeto esan, platonikoak, Hermanen ustez, zeharo beste garai batekoak.

Gauzak horrela, Robertek sentitzen zuen, Hermanek bultzarazi nahi zuela hartu nahi ez zuen erabaki bat hartzera, eta lagun artean ere behin baino gehiagotan burla egiten ziola gai honi buruz.

– Robert apaiz sartuko zaigu horrelako martxan...

Sexuari buruz hitz egiten zutenean, beti Hermanek ateratzen zuen gaia. Eta Robert uzkurtu egiten zen, ez zuen horri buruz jardun nahi izaten.

– Sexua ez da dena, Herman. Badira gauza ezinbestekoagoak, adiskidetasuna adibidez. Nik balio handiagoa ematen diot horri. Baita maitasunari ere, eta sexuak maitasuna urra lezake.

– Baita sexurik ezak ere –barre algara egin zuen Hermanek.

Amorratu egiten zuen laguna hain inozo ikusteak, naturaren dei horri etengabe uko egiteak; Robertek gaztelu handi bat eraikitzen zuelako kanpora begira, ez zuelako bizitzako plazerez gozatu nahi, itxuraz.

Yvonne de Ghouy izeneko neskatila ezagutu zuen Robertek 1930ean. Lauzpabost urtean ibili ziren elkarrekin. Haren gutun asko daude gordeta, harreman sendoa izan zuten seinale. Herman, Robert eta hirurak sarritan irteten ziren elkarrekin.

Patjentje izeneko garagardotegian batu dira Urtezahar eguna ospatzeko. Yvonnek Shakespeareren obra guztiak oparitu dizkio Roberti, hauxe adieraziz eskaintzan: «Nire mutil goxoari, esperoan liburutxo honek azkenean asebeteko zaituela». Liburuak mila orrialdetik gora ditu. Barre egin dute hirurek, Yvonnek idatzitakoa Robertek ahots gora irakurri duenean.

Ostean, Yvonne eta Herman bakarrik geratu dira kalean, gaua luzatu guran. Robert etxera joan da eta edaten jarraitu dute beste biek. Absenta probatu dute, hainbeste maite zituzten poeta sinbolisten eran.

– Verlainek Rimbaud benetan miresten zuen. Gazte hau benetan ona da, ni ez naiz sekula iritsiko bere mailara –esan dio Hermanek Yvonneri, besotik helduta kalean barrena doazela–. Ni Verlaine bat naiz, asko jota. Robert da Rimbaud. Ez dut ezagutu bera bezain poeta den inor. Hain erraz daki bizitzako gauza esentzialak jasotzen, benetan garrantzia dutenak. Hain fina da gauzez ohartzen. Baina gehiago idatzi behar luke.

– Ez dakit Robertek maite nauen –diotso Yvonnek, gaia aldatuz.

– Nola ezetz? Ez esan halakorik –Hermanek, erdi barrez oraindik, alkoholaren eraginez.

Yvonnek pausoa eten eta aurrez aurre geratu dira, arra beterik ez da izango aurpegi bien artean.

– Esan nahi dut ez dakidala maite nauen emakume gisa.

– Zer esan nahi duzu horrekin?

– Ez duela nirekin harremanik nahi. Berarentzat andre ederra naiz, azkarra, kultua. Solaskidea besterik ez. Kakatzarra. Ez da, gero, musukatzeko gai, ez du laztanik ematen, ez du...

Eta Herman musukatzeko keinua egin du.

– Tira, Yvonne. Nahikoa edan dugula uste dut –moztu dio Hermanek.

1934an idatzitako gutun batean, Yvonnek sentitzen zuen hura zuzenean esan zion Roberti, eta harremanaren gainbeheraz ohartu. Hermani egoera hartaz aholkua eskatu ziola ere onartzen dio.

Yvonnerekin izandako elkarrizketa horietan oinarrituta, *Aurora* izeneko nobela idatzi zuen Hermanek, ez Roberti ez Yvonneri, inori ezer esan gabe. Soldadutza Frantzian egiten ari zela idatzi zuen, eta urte batzuk geroago argitaratu, 1940an, Johan Daisne goitizenarekin. Nobelan ironiaz kontatzen ditu bikote gazte baten gorabeherak, nola mutilak ez duen sexu harremanik izan nahi neskarekin, eta neskak bai ordea. Horren kariaz, liburuaren bukaeran, harremana moztu egingo da.

Egia da, beharbada, garai moral hertsiaren kritika izan nahi zuela liburuak, egia da Roberten eta Yvonneren arteko harremana baino harantzago zihoala, baina Ganten mundu guztiak zekien Herman nori buruz ari zen. Hori ere ezin zuen ukatu.

Robertek ezin zuen sinetsi nola egin ziezaiokeen horrelakorik bere ustezko lagunik onenak. Nahiz eta aspaldian elkarren artekoa hoztuta izan, garai batean

bizitakoaren gomutak ez al zion eutsi Hermanen kitzika sortzaileari? Laguna bera baino garrantzitsuagoa ote zen idazle famatua bilakatzea? Ez al zuen beste kontakizunik esateko? Beste egoerarik irudikatzeko? Elkarrekin izandako paseo horiek guztiak, elkarrekin izandako une zoragarri haiek gezur hutsa baino ez ziren? Iraganeko hautsa? Edo hori baino okerrago, etxe oneko semeak erabili egin al zuen gazte txiro eta herabe hau?

Bertan hautsi zen Roberten eta Hermanen arteko lagunartea. Hermanek desenkusatu nahi izan zuen esanez fikzioa zela liburuan ageri zena, beren istorioa oinarri gisa baino ez zuela erabili, bazekiela berak ere idazle guztiak oinarritzen direla errealitatean gero pixkanaka-pixkanaka irudimenari hegan egiten uzteko.

Sinetsi nahi dut Hermanek Roberti egiatan esango ziola hori, zuzen zebilela usteko zuela. Hala ere, Robert ez zegoen ezer entzuteko. Oinarri sendoko gizona zen eta ez zituen halakoak onartzen. Ezta Artearen izenean ere. Gutxitan haserretzen zen Robert, baina zapuzten zenean iraun egiten zion amorruak. Ez zuen aise barkatzen. Hermanek bazekien hori. Bazekien kostako zitzaiola Robertengana berriz hurbiltzea.

Hermanek beti izan zuen damu hori. Zergatik eramango ote zituen gauzak hain muturrera. Roberten sentimenduak ezin ziren bortxatu. Eta bera bortxaz sartu zen haren bihotzean eta den-dena urratu zuen bere erpeekin, dena hartu zuen hankapean, gatibu hartzen duten animalia errabiatu bat balitz bezala. Roberten bihotz ederra barru-barrutik zauritu zuen. Behin eta berriro gomutara etortzen zitzaion duela urte batzuk aitak esandakoa: «Sekula ez duzu izango horrelako lagunik».

Aurora eleberri hark ez zion poz handirik ekarri Hermani. Ez da, inolaz ere, bere lanen artean aipagarria. Maila apalekoa da, bere nobelagintzaren ale dotoreenak Bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero etorriko baitziren.

Belgikako Banku Nazionalera sartu da Robert, goizero bezala. Aurrenetakoa da iristen. Lankideak agurtu eta kutxan jarri da, jendaurreko leihatilan. Brontzezko zutabeen artetik kaleko atea ikus dezake. Jende gutxi dabil, lanbrotuta dago goiz partea.

Bankuko zuzendariak bere bulegora deitu dio. Armand Neven zen sasoi hartan banketxeko burua. Ro-

bert harritu egin da, ez daki zer nahi ote duen. Gorbata estutu eta goiko solairura igo da.

Muturtuta aurkitu du zuzendaria. Ez da ohiko agurrik izan.

– Robert, kutxak ez du koadratzen –bota dio egunonik esan gabe.

– Ezinezkoa, Neven jauna, behin eta birritan begiratu dut –Robertek ez daki zer pentsatu, ez zuen espero zuzendariaren esaldia.

– Dirua falta da.

Robert estutu egin da.

– Ez duzu pentsatuko ni izan nazenik, jauna.

– Ez, ez dut horrelakorik pentsatu nahi. Nik ez dut ezer pentsatzen, hori poeta eta filosofoen kontua da –esan dio beltzuri–. Nik erabakiak hartzen ditut. Kutxa zeure ardura da, eta banku honetan araua da dirua falta denean norberak ipintzea.

– Baina...

– Ez dut esateko besterik. Agur.

Robertek dirua ipini behar izan zuen soldatatik. Dezente zen falta zena. Halatan, etxeko gastuei aurre egiteko, bigarren lan bat hartu behar zuela erabaki zuen eta gaileta fabrika batean hasi zen beharrean.

Iluntzero lantegiko kontuak egiten ditu. Berandu eta nekatuta iristen da etxera.

9

Bilbo erori eta berehalaxe haurrak bueltan ekartzeko gestioak egiten hasi ziren agintari berriak. Haurren ihesaldi hura propaganda oso txarra izan zenez agintari frankistentzat, konpondu egin nahi zuten nola edo ahala. Hastapenean, ahaleginak egin zituzten haurrek ez zezaten sekula Santurtziko portua utzi, eta hori erdietsi ezean, itzulera azkar bat zuten xedea, ahalik eta azkarrena, horretarako agiri faltsuak erabili behar baziren ere.

Elkarte katolikoak izan ziren haurrak bueltatzen aurrenekoak. Belgikan, hala ere, Espainiako Gerraren bukaerak eta, batez ere, Bigarren Mundu Gerraren hasierak premiatu zuten itzulera. Alemaniaren aurkako gerrak sortzen zuen ezinegonak bultzaturik eta, ustez, jatorrizko etxeetan seguru egongo zirela pentsaturik, etxeratzeak antolatzen hasi ziren Gurutze Gorriaren bitartez.

Karmentxuk eta Ramonek ere bueltatu egin behar izan zuten. Ez zen izan August eta Roelsen borondatez baina. «Engainatu egin zituzten. Alemanen beldur ziren», kontatu zidan Carmen Musschek; «Gurutze Go-

rriak babestuko zituela agindu zieten. Denboraldi labur baterako zela, Bilbotik irten zirenean bezala».

Egun triste horretako argazkian ageri dira, Gante-Sint-Pieters geltokiko kanpoaldean, aitona-amonak, Robert bera eta, erretratuaren erdi-erdian Karmentxu eta Ramon, dotore jantzita. Etorri zenean baino zatiaz lodiago Karmentxu. Roberten gurasoek jaten ondo eman zioten, itxuraz, Ferrer kaleko oholezko etxe txikian. Carmenek kontatutakoaren arabera, argazkian dago Dora Mahy idazle gaztea ere.

Haurrak joaten utzi eta gutxira, Euskal Herritik zetozen albisteak ez ziren batere lasaigarriak. Umeek nekez aurkitzen zituzten jatorrizko familiak. Publizitatea egiteko erabiltzen zituen gobernu berriak, halako eta bestelako egunkarietan argazkiak plazaratuz. Haientzat dagoeneko etxea ez zen Bilbon utzi zutena, Belgikakoa baino. Batzuen batzuk pena handiarekin itzuli ziren, gerraosteko gosea baitzuten itxaroten sorterrian. Gurasoak ere ez ziren Belgikan aurkitu zituzten bezain kultura zaleak, gogorragoak ziren haurrekin. Eta erbestean den-dena eduki zuten eskura. Izan ziren berriro bueltan Belgikara itzulitakoak ere, ikusirik Euskal Herrian ez zegoela eurentzako tokirik.

Musschetarrek nekez jarraitu ahal izan zuten Karmentxurekin kontaktuan. Bigarren Mundu Gerra lehertu zenean, Robertek frontera jo zuen eta ikaragarri zaildu zen bi herrien arteko komunikazioa.

Baina, agi denean, Karmentxuren hutsune handia zuten. Karmentxuren irudiarekin busto bat egin zuten musschetarrek, berari ateratako argazki batean oinarritua. Hantxe dago gaur egunean ere bustoa, Carmen Musscheren etxean, Beethovenen irudien ondoan... Karmentxuren matrail beteak.

Belgikako Errege Armadan engaiatuta zegoela, aitaren mezu bat iritsi zitzaion Roberti 1940ko martxoaren 29an. Karmentxuren berri ematen zion, arduratuta. Karmentxu itzulian iritsi zen Euskal Herrira, baina artean ez zuen gurasorik aurkitu.

Mussche Robert sarjentua
2. Erregimentua
1. Konpainia
1. Batailoia
3. Pelotoia
Lurreko Armada

Semea,

Eskerrik asko martxoaren 26ko gutunagatik. Ezin duzu imajinatu zeinen pozik jartzen garen Karmentxuren berri izaten dugun bakoitzean. Ematen du ondo dagoela, baina oraindik ez du bere aita aurkitu. Ramonek, bere nebak, aldiz, badirudi lortu duela Bilboko etxera iristea. Espero dugu ezer ez gertatzea beren amonari; izan ere, zer izango litzateke gure txikiaz orduan?

Berarentzat onena nahi dugu. Hala eta guztiz ere, gauza bat esango dizut ziur: erabat damututa nago bere herrira joaten utzi izanaz, eta seguru nago zeuk ere beste horrenbeste pentsatzen duzula!

Maite zaituzten gurasoek.

Alemaniako Armadak 1940ko maiatzaren 10ean eraso zion Belgikari. Laster egin zuten aurrera naziek. Hala ere, Lys ibai ertzean gogor eutsi zien Belgikako Armadak. Maiatzaren 23 eta 28a bitartean, hiru mila soldadu belgikar hil ziren eta beste horrenbeste, edo gehiago, aleman. Ematen zuen belgikarrak nor izango zirela alemanen erasoari eusteko. Alabaina, aliatuen

eta Belgikako gizartearen gehiengoaren aurka, Leopoldo III.ak amore eman zuen Hitlerren aitzinean, eta bakea sinatu. Historialariek diotenez akats historikoa izan zen hura, Bigarren Mundu Gerrak beste norabide bat hartuko zukeen Belgikako Armadak zertxobait gehiago eutsi izan balio.

Anberesko ospitalera eraman dute Robert maiatzaren 25ean, zauritu egin baitute frontean. Bala bat du ezkerreko besoan sartua. Zauri bizia duenez, luzaroan egon beharko du ohean. Eta otu zaio, aurreko udan ezagutu zuen Anberesko neska hari idaztea, Vic Opdebeecki.

Kostaldeko gazteleku hartan ikusi zuten elkar estreinako aldiz. Anberesko neska adiskideekin joan zen Vic, Ganteko mutilekin Robert. Vici harroa iruditu zitzaion Robert, ezagutu zuen lehen aldi hartan. Espainiako Gerrari buruz hitz egiten zuen, puztuta, hau egin zuela bertan, beste honekin mintzatu zela. Idazle famatuei buruz mintzatzen zen eta Vicek ez zuen alerik ezagutzen. Harroa begitandu zitzaion Vici... eta itsusia. Itsusi zegoen txapel zahar harekin. Hau mutil hau, alferrik galduta dago, pentsatu zuen. Euskaldunena omen zen txapela. Euskal haurren egoeraren aldarri

egiteko janzten zuen. Ergelkeriak!, askoz hobeto zegoen txapelik gabe.

Biharamunean hantxe dago neska, bertatik bertara, ospitaleko ohe aurrean. Robertek aldatuta ikusi du Vic, sekula baino ederrago. Adatsak hori-hori, leihoari darion maiatzeko argiarekin. Bero da toki guztietan, eta neskak daraman blusa arin urdinak haren begi urdinagoak nabarmentzen ditu masail isiotuen ondoan.

– Ez zaitut ezagutu euskal txapelik eta lan-jantzirik gabe –bota dio Vicek.

– Ohe azpian gordeta ditut, zer gerta ere –Robertek, irribarre eginda.

– Sinesten dizut –esan eta ohe ertzean eseri da Vic.

– Ondo al zaude? –galdetu dio zaurituari, tonua seriotu eta besoa laztanduz.

– Orain bai.

Egunero egingo dio bisita ospitalera, hutsik egin gabe. Ohearen ondoan jartzen zaio. Lotan bada, bera ere erdi lo egoten da. Itzarrik denean, solasean egongo dira.

Robert ongi sentitzen da Vicekin. Aurretik sentitu ez duen jabaltasun mota bat nabaritzen du berarekin. Ez dute zerikusirik, erabat ezberdina da bakoitzaren

mundua eta, menturaz, horrek egiten du harremana askeagoa, biziagoa. Kontuak kontatzen igarotzen dute arratsalde osoa, Vicek modako jantzi dendara lanera bueltatu behar duen arte.

Egun batean Aline agertu zitzaion ospitalera. Urrunetik entzuten zen haren ahots ozena. Eraikin osoaren luze-zabalean jakin zuten hantxe zegoela. Denak martxan jartzen zituen Alinek. Gerrak ez zuen aldatu horretan behintzat.

– Ze planta dira hauek, Robert, seguru zauritxo bat baino ez duzula! –esan du, beti bezain zakar eta goraki.

Alinek ikusi du Roberten ohearen ertz batean neska ilehori bat dagoela, guztiz ezezaguna. Ohantze ondora iritsitakoan, Alinek izterrarekin bultza egin dio neskari eta Roberten parez pare jarri da. Pauso bat atzera eman du Vicek.

– Zein duzu, ba, txori hau? –galdetu dio betiko ironiarekin Alinek, Vic bertan ez balego bezala.

– Lagun bat.

– Lagun bat? Laguna neu naiz...

Alinek artez begiratu dio Vici eta berbetan jarraitu du ondoren, ohi duen legez, inori txandarik eman gabe.

– Ederto eutsi zenien naziei, Robert. Merezi zuten jasotako egurra, gehiago jaso balute hobe. Gure errege txatxu horrek ditu kulpa guztiak. Ez genuen alemanekin negoziatu behar. Ni ez naiz bat ere fio Hitler zerri horrekin. Ero hau ez da gelldituko edozelan...

Gerraz eta politikaz aritu da batez ere. Robertek begiratu egiten dio, baina beste nonbait dauka burua. Kalakan aspertu denean, Roberti ahoan musu bat eman eta adio egin dio Alinek.

– Agur, potxolo.

Carmen Musschek kontatu zidan, Aline ez zela berriz bisitan azaldu. Zergatiari buruz galdetu ziotenean adiskideek, «Robert ondo zainduta dago!», erantzun omen zuen.

Ospitaleko ordu luzeak arintzearren, frontera idatzitako gutuntxo bat erakutsi zion Robertek Vici. Eskutitza Gracianorena zen. Gutun-azalean, ezkerreko aldean, arkatzez marraztuta zuen zigilua, eta jasotzailearen tokian: Roberto «Gorrion» Mussche. Musschek

horixe esan nahi baitu flandrieraz: kurloia. 1940ko apirilean idatzi zion, eta igarri-igarria da kartan orain-dik mugimendu gutxi zegoela frontean.

1940-04-12, ostirala.

Espero dut zuk ondo lo egitea gaur gauean horre-la irakurri ahal izango duzu nire karta.

Ze aurreko kartan denetarik idazten didazu baina dena da gezurra ze beti zaude ametsetan eta pentsa-tzen dut ametsetan idatziko zenuela.

Roberto, barkatuko didazu zure izena gaizki idaz-ten badut ze zure benetako izena da Loti I. eta abize-na daukazu GEZURTI.

Nire karta irakurtzen duzunean ondo irakurri ze beti bezala ametsetan bazaude ez zara enteratuko zure izen berriaz.

Orduan beste karta arte geratzen naiz. Idatzi az-kar eta ametsik egin gabe.

Osasuna eta ondo ibili. Paseatu eta lo gutxi egin.

Graciano del Rio

– Egin amets politak orduan –esan eta Vicek agur egin dio Roberti, Gracianoren eskutitza irakurri eta be-rehala.

Robertek atzetik begiratzen dio, ohe ilara luzearen artean, badoala. Haren bizkarra ikusten du, adats hori luzeak kulunka.

«Bueltatu eta niri begira jarraitzen badu», pentsatu du bere bostean Vicek, «ezkondu egingo gara».

Atetik irten baino lehen atzera so egin du, baina Robert pentsakor ikusi du, sabaira begira.

10

Bizitzak zenbat aukera ematen dizkigu lagunei dagokienez? Zenbat lagun sentitzen ditugu benetakoak? Hermanek idazmahaitik begiratzen zuen kanpora. Aurrean betiko etxea eta zuhaitzak. Harantzago kanala, izoztuta; ahateak oinez zebiltzan gainean. Zenbat lagun sentitzen ditugu hurre-hurreko? Horixe galdetzen zion bere buruari.

Beharbada bakarra, pentsatu zuen Hermanek, bat bakarra da hain benetako sentitzen dugun laguna. Eta hura ondoan ez dagoenean, kosta egiten da halako sakontasun maila batera iristea. Beharbada ez dugulako astirik harremanetan sakontzen aritzeko, beharbada bizitzak beste alde batetik eramaten zaituelako. Horrelakoetan bizi izandakoaren oroitzapena baino ez da geratzen, behin lagun batekin lortu zenuen batasun estu horren oroitzapena. Behin lortutako hura, seguruenik berriz errepikatuko ez dena.

Lagun on batek zaren bezala onartuko zaitu, akats eta guzti, baita une batez albo batera uzten baduzu ere. Eta nahiz eta denbora asko igaro elkarrekin egon gabe, ez da arduratzen; denborak beste neurri bat du

lagunarentzat, eta ez da larritzen. Aurreko egunean bezala berbetan hasiko zara berarekin, urteek aurrera egin arren betiko gaztetxo hura izango bazina bezala. Jakiteak hortxe egongo dela beti, onartuko dizkizula bizitzan egiten dituzun gehiegikeriak, lasaitasun handia ematen du, beste harreman mota batzuetan agian lor ez daitekeen bakea. Beharbada harreman motarik perfektuena izango da adiskidetasuna, edo gizatiarrena.

Arkilokok idatzi zuen: «Lagun asko dira gauez ibiltzeko, baina gauzak oker datozenean, orduan gutxiago». Bada, gutxi horiek dira muntazkoak. Baina Hermanek berriro galdetu dio bere buruari, bizitzak horrelako zenbat edukitzeko aukera ematen ote digun.

– Ez pentsatu hainbeste galdu duzun lagun horretan. Pentsatu zortea izan duzula horrelako adiskidantza bat izatearekin –esan dio Marthek–, pentsatu behinola zeinen indartsua izan zen.

– Bai, baina nire erruz izan da dena...

Ahateek oinez jarraitzen dute izotz gainean, baldar. Zuhaitz hostogabeak astintzen ditu haizearen fiduriak.

Bizikletak aurrera doaz ordekan. Landa aberats eta zabalak bedatse betean. Begoniak eta azaleak larreetan. Aurrera beti bizikletak. Anberestik irten da Vic, Gantetik Robert. Bide erdian dute hitzordua, landa leun eta emankorren artean dagoen ostatu batean. *Her bet van Napoleon*. Napoleonen ohea. Noizbait han lo egin omen zuen enperadoreak. Goiko gelan haren ohea gordetzen dutela diote.

Bizikleten gurpilen soinua entzuten du Robertek, bideko hartxintxarrena. Zutik jarri da orain azkarrago joateko. Ahotik hartzen du arnasa. Eseri egin da berriz. Aurrera begiratu du, urrun da hodeiertza. Zeru sabaian kirru bakar batzuk besterik ez. Oskarbi gainontzekoa. Larreek diz-diz egiten dute eguzkiarekin, aldapa laburrean behera.

Elkar ezagutu zuten eguna du gogoan Vicek, pedalei eragiten dien bitartean bularra pilpiraka. Lehen ikusian harroa eta itsusia begitandu zitzaion mutil horrekin dauka hitzordua, enperadoreak noizbait gaua igarotako toki berean: *Her bet van Napoleon*, Napoleonen ohea.

BIGARREN ZATIA

11

Robertek abisatu ere ez zion egin ezkontzera zihoala, artean haserre baitzegoen Hermanekin. Robert Briseren ahotik jakin zuen Hermanek lagun zaharraren ezkontzaren berri. Hunkituta, gutun luze bat idatzi zion Roberti, lehenik eta behin ezkontzagatik zoriontzen, eta ondoren, barkamen eskean. «Ezin liteke noizbait zuk zure lagun onena deitu zenion horrek ez zoriontzea zure ezkontza egunean. Zure gaztaroko laguna izandako horrek, biok sekula ahaztuko ez dugun sasoi hartakoak. Badakit, beharbada, nire zorionak ez dituzula onartuko; are gehiago, agian zaila izango zaizula gutun hau irakurri ere egitea».

Eskutitzean Hermanek onartu egiten dio Roberti ez zuela ongi egin *Aurora* eleberria idazten, bidegabe jokatu zuela diotso, eta agintzen dio gaztaroko euren arteko egunei buruzko nobela bat idatziko duela berandu baino lehen, aurreko eleberri eskas hari mendekua hartuko diona. Desenkusatzeko diotso Roberti, soldadu artean idatzi zuela liburua, Frantzia hegoaldean, etxetik hagitz urrun, bere bizitzako garairik zailenean. Bakar-bakarrik eta galduta sentitzen zela une

haietan, eta ulertzeko, arren. Eskutitzaz gain, ezkontza oparia ere bidali zien etxera Hermanek, Beethovenen granitozko buru bat, «Konpositore alemanaren lanak elkarrekin entzuten igarotako garai haiek gogoan». Osaba eskultoreari eskatu zion burua egiteko; sinadura ere badakar irudiak: «H. Thiery». Hasieran Robertek uste izan zuen Hermanek berak zizelkatu zuela burua, «Bai lanak hartu dituela mutilak barkamena irabazteko». Baina hilabete batzuk geroago, barre algara medio, Hermanek berak argituko dio H hori ez dela Hermanena, Henry osabarena baizik. Bizkarretik heldu eta belarrira esango dio: «Une batez pentsatu dut, bai, neuk egina dela esatea, zure deskuiduari jarraituz, baina ezin izan dut. Gauza asko ikasi nuen soldaduen artean, baina eskulturak zizelkatzen ez».

Hermanek uste ez zuelarik, Robertek gutuna osorik irakurri ez ezik onartu ere egin zituen Hermanen argudioak, eta berrirotze bidean jarri zen euren adiskidetasuna; nahiz eta bi lagunen artean gaztetan zeukaten berotasun hura betiko maskalduta egon, nahiz eta zauri hark seinalatuko zuen bien artean halako tarte bat. Ostera ere lagunak izan arren, ez zen behinolakoaren pare izatera iritsiko.

Robertek pozik irakurri dio Hermanen gutuna Vici, eta harrotasunez erakutsi oparia, Beethovenen burua esku artean jasoz, garaikurra hartzen duen kirolariaren antzera.

– Damu dela ematen du. Kartan behintzat onartu egiten du gaizki egin zuela –esan dio Robertek, asebeterik–. Barkamena eskatzen dit.

– Eta onartu egingo al diozu?

Betaurrekoak jaitsiz begiratu dio Vici.

– Gaizki pasarazi zizun...

– Tira, Vic, nire betiko laguna da. Barkatzen ere jakin behar da.

– Barkamena zilegi da, egia da, baina badiotsut zure lagun horrekin berriz biltzeak ez dizula onik egingo. Atzea ekarriko digu honek.

Robertek ez dio jaramonik egin azken esaldi horri, eta laineza hartuta joan da Beethovenen burua apalategian jartzera, liburuen gainean, aurretik zituen beste dozena erdi Beethovenen buruen ondoan, hantxe bertan. Agi denean, Herman ez zen opariarekin originala izan, baina bete-betean asmatu zuen keinuarekin. Roberten konfiantza suspertu zuen.

Anberesen ezkondu zen bikotea, astearte batean, 1941eko uztailaren 15ean, Katedralaren hegaleko ka-

pera txiki batean. Robert fedegabea zenez, Eliza Katolikoak galarazi egin zien aldare nagusian esposatzea. Hala eta guztiz, Carmenengandik dakit, bi-bien sinesmenak errespetatu zirenez, gustura zeudela hala senarraren nola emaztearen senideak, alde bateko marxistak eta beste aldeko katolikoak. Vicen ama gaixorik egon zen gutxi lehenago eta, ondorioz, oturuntza ez zen beste mundukoa izan. Gertuko jendea gonbidatu zuten, besterik ez. Bi familiek elkarrekin egun zorionts ua igaro omen zuten, alboko kapera txikian ezkondu arren eta udako astegun buruzurian.

Etxeratu zirenean, ezkonberriek bi irudi jarri zituzten parez pare egongelan. Horma batean Karl Marxen koadro bat eskegi zuten, arkatzez marraztutako erretratua; eta justu haren aurreko horman, Ama Birjinaren portzelanazko erliebe bat.

– Elkar ondo hartzen zuten Ama Birjinak eta Marxek –esan zion behin Vicek Carmen alabari–. Gure etxean ez zen arazorik izan behintzat; norberak bere irudiari begiratzen zion, eta bi haiek ere egun santu osoa elkarri begira egon arren inoiz ez zuten istilurik izan.

– Ama...

Eztei gaua ez zen amestutakoa izan. Luze iritzita zeuden ezkonberriak, akituta goizean goiz hasitako egunaren luzeaz. Vicek urduri sumatu zuen Robert oheratzeko orduan.

– Zer darabilzu buruan, gizona –esan dio Vicek samatik oratuta–. Musu ilun zaude, eta gure bizitzako egunik politena da gaurkoa.

Robertek gerria inguratu eta artez galdetu dio andreari.

– Ezagutu al duzu beste gizonik?

Vicek harrituta so egin dio. Ez daki Robert zertaz ari den. Bai edo ez esan, ez daki zein izango den erantzun zuzena une honetan.

– Jakina –bota du, ondo pentsatu gabe.

Vicen erantzunak haserretu egin du Robert. Pentsatu baitu bera ez dela harekin oheratzen lehena. Lotsa sentitu du. Vic gauzak azaltzen saiatu da, baina alferrik izan da.

Elkarri bizkar emanda lo egingo dute.

– Benetan uste duzu ez zutela ezkon aurrean harremanik izan? –galdetu nion Carmeni.

– Gure ama zabala zen sexu kontuetan. Txikia nintzenetik gauzak oso argi azaltzen zituen. Egia da, ordea, urte haietako gizartea puritanoa zela. Ez... uste dut harremanik izan gabe iritsi zirela ezteietara.

– Baina Roberten giroa bestelakoa zen. Aurrerakoiak ziren. Esan zenidan Aline hura larrugorririk ibiltzen zela etxean eta...

– Bai, baina, ez pentsa. Agian gure amaren giroa kontu horietan zabalagoa izango zen. Anbereskoa zen bera, hiri handiago batekoa. Baina Gante hiri txikia zen sasoi hartan, eta aitaren familiakoak ideiez ezkertiarrak izan arren nahiko itxiak ziren harremanei dagokienez. Barru-barrutik kristau estuak izaten jarraitzen zuten Ganteko langileek. Mendeetako ohiturak ez dira erraz ahazten.

Biharamunean goibel itzartu dira ezkonberriak, isilik dautza ohean. Vicek bizkarra laztandu dio Roberti. Hark buelta eman eta gogor estutu du; musukatzen hasi zaio, zakar antzera. Badirudi keinu baldar horrekin ahaztarazi nahi diola bart gaueko desenkontrua, argi utzi maite duela gauza guztien gainetik, nahiz eta, ustez, bera ez izan lehena.

– Geldi –moztu dio Vicek, gizona lasaitu nahian–. Erabili burua, fantasia apur bat. Ez al zara ba idazlea...

Vicek etzanarazi egin du Robert eta bere gainean jarri da. Biluztu egin du astiro-astiro. Haren eskua oratu eta bere gorputza laztantzen hasi da.

– Laga neuri zure eskua gidatzen, zuk ez egin indarrik, utzi lo balego bezala.

Eta halaxe, Robertek eskuaz sorbaldak ferekatu ditu lehendabizi, besoak gero, sabela azkenik. Robertek eskua askatu eta Vici ahoan musu emateko ahalegina egin du, baina hark ez dio utzi: «Oraindik ez». Bultza egin eta berriz etzanaraziz, gizona laztantzeari ekin dio, goitik behera, bularraldetik sabelpera. Bizkarrez jarri da eta ipurdia hurreratu dio gerrira. Alboz daude biak. Roberten zakila bere barrura sartzen ahalegindu da, geldo-geldo.

Robertek min keinu bat nabaritu dio Vici.

– Ondo zaude?

– Ixo...

Mugimendu trakets batzuk eta Robert hustu egin da.

Hermanen eleberrietan etengabe lantzen den gaia da desira.

Gerraren ostean argitaratu zen mundu zabalean ezagun egingo zuen liburua: *Ilea moztu berri dioten gizona*. Bere ibilbide luzeko gainontzeko lanak bezala, Johan Daisne goitizenarekin plazaratu zuen 1947an eta hainbat hizkuntzatara itzuli zen. Bigarren hezkuntzako emakumezkoen zentro batean eskolak ematen dituen irakasle baten ibilerak kontatzen ditu. Askoren ustea da benetako bizipenetan oinarritu zela Herman hura idazteko, bera ere irakasle izan baitzen garai batean emakumezkoentzako eskola batean.

Kontua da irakasle hori maitemindu egiten dela ikasle batekin. Liburua bakarrizketa bat da eta irakurleak ez daki oso ondo bereizten protagonistak buruan darabilena egiaz gertatu den edo desira baino ez den. Bi plano horiek desagertu egiten dira eleberrian, irakaslearen buruan biak daude nahasian, egunerokotasunean maiz gertatzen den antzera, eta bi planoak dira, zentzu batean, egiazkoak.

Errealitatea, ametsa, desira, muga, lerro ikusezin horien artean mugitu eta idaztea zuen gogoko Hermanek. «Errealismo fantastikoa» deritzonari buruz ere idatzi zuen saiakera bat. Izan ere, Herman Europa

mailan aitzindaria izan zen mugimendu horretan. Haren lanetan ametsa eta errealitatea nahasian datoz beti, bere herrian bizi izan ziren bi mundu gerrek utzitako hondamendiari erantzunez edo. Gerrak goitik behera aldatu zuen errealitatearen pertzepzioa, gerran ez da haurtzaroan erakusten diguten baloreen arrastorik. Horiek ez dute balio infernu hartan. Horrexegatik saiatuko da Herman bere lanetan haurrek mundua ulertzeko duten erara itzultzen; umeen logikak asebeteko du, helduenak baino gehiago. Errealismo fantastiko honek ez du zerikusirik, ordea, izen bera hartu zuen Latinoamerikako literatur mugimenduarekin. Europakoa indibidualistagoa zen, surrealismoaren oinordekoa. Latinoamerikan, aldiz, herrikoiagoa. Postkolonialismoaren garaian, berta-bertakoa kontatzeko modua berreskuratu nahi zuten.

Gerraren ostean engaiamendutik ametsera igaro zen Herman, herria salbatzea pentsatzetik norbanakoaren askatasuna aldarri egitera, gutik nira, beste egile asko bezala. Gerra irabazi, irabazi zen, baina horren latza izan zen ordaina, ezen idazleek gizakiaren onberatasunean zuten sinesmena erabat galdu baitzen. Arrazoitik haratago joan beharra zegoen, eta gizakia-

ren barneko grinek, herrak, ametsek hartuko zuten indarra. Tartean, desira jazarriek.

Horiek izan ziren egunik zoriontsuenak Vic eta Roberten arteko harremanean. Vicek argia ekarri zion, baretasuna.

«Denboraldi txar bat igaro dut, tristezia eta ardura handiko garaiak. Ikusten duzu, ez naiz oraindik asko aldatu. Ez dut zomorroa izan nahi, baina dena astun eta zail bilakatu zen egun batetik bestera. Espainian bizitakoak ere pisua izan zuen nire baitan. Zaila da, adiskidea, kezkarik gabe bizitzea zeure barruan horrenbeste galdera dituzunean. Orain, hala ere, nire inguruan dagoen edertasunaz gozatzen hasi naiz: elurrak estali dituen basoen paisaia, goiz-alba, untxi bat saltaka, zuhaitz bakarti baten itzala. Urtaroak nabari ditut, berriz ere, pasatzen...». Horixe kontatu zion Robertek Hermani gutun bidez Vic ezagutu ondorengo garaiaz. Vicekin ezkonduta, bizitzan behingoz aske izan zen Robert. Ez zuen *egin behar* zen hura egin. Vic ez zen bere lagun girokoa, ezta bere klase sozialekoa ere. Beste mundu batetik zetorren eta Roberten lagunarte itxiarentzat ere arrotza izan zen hasieran. «Zer

dauka neska horrek?» galdetu zion bere buruari batek baino gehiagok. Adiskideak harritu egin ziren Robert halako neska batekin ibiltzeaz; ez zen engaiatua, ez zen intelektuala; baina, onartu beharra zeukaten, zoriontsua zen harekin. Vicekin harremana hastearekin behingoagatik erabaki bat aske hartu zuen Robertek, ingurukoei jaramon egin gabe.

Vicek ironiaz kontatzen zion alabari:

– Ez kontu apartekorik pentsatu. Zure aita tuberkulosiak jota zegoen eta etxean egoteko agindu zion medikuak. Horrexegatik egon ginen elkarrekin eta izan ginen hain zorioneko. Hilabete gutxi batzuetako kontua izan zen. Ezkondu osteko hilabete horiek. Gure bizitzako ederrenak. Eskerrak atseden hartu behar izan zuen denboraldi batez, bestela ez zinen jaioko.

Garai hartako argazki bat erakutsi zidan Carmenek. Argazkian hirurak ageri dira, dotore jantzita. Aita, ama eta alaba. Robertek Carmen du besoetan eta umeari begira ari da. Vicek irribarre egiten du.

– Familia zoriontsu bat ematen dugu hemen –adierazi zidan Carmenek–. Argazki honi buruz, edonork esan lezake, zeinen pozik dauden, baina hauxe izan zen barealdi une bakarra. Inork ezin zuen antzeman

zer etorriko zen ondoren. Laino igarokor baten modukoa izan zen garai zoriontsu hura.

Ezari-ezarian elkarren gorputzak ezagutzen joan ziren bi maitaleak. Hastapeneko baldarkeriak tokia egin zion elkar ezagutzeari. Vicek laket zuen Roberten ondoan ohean etzan eta elkarri kontuak esatea, irrisolasean aritzea.

– Kontatu egidazu gezurren bat –xuxurlatu dio Vicek, eskua paparretik sartuta.

– Fantasiaren bat? –Robertek, bihurri.

– Ea baten bat badakizun.

– Ezagutzen al duzu *Vitruviotar gizona*?

– Ez ba.

– Antigoaleko greziarrek bazuten edertasun kanon bat, proportzio aureoa deitzen zena. Polikletoren aburuz, pertsona baten gorputz perfektua haren burua bider zazpi zen. Horixe esan zuen k.a. V. mendean. Eta kanon horren arabera landu zuten, esate baterako, *Doriforoa*.

– Zaldi gurdian doan hura?

– Gurdian?, ez. Oinez doala dirudi, ezkerreko eskuaz oratuta lantza bat bizkar gainean balerama bezala, biluzik. Tira, kontua da, geroago ohartu zirela eskultura horiek ez zirela hain lirainak, eta kanon berri

bat osatu zuten, pertsona zazpi zatitan banatu ordez zortzitan banatuta. Eta horrela jaio zen *Hermes* izeneko eskultura.

Vicek Roberten paparrean pausatu du burua. Belarri batekin entzun lezake Roberten ahotsa eta bestearekin bihotz taupadak.

– Errenazimenduan sendotu egin zen ideia hori –segitu du Robertek–, Leonardo da Vincik egindako *Vitruviotar gizona* anatomia marrazki famatua ere tradizio horretatik dator. Kontua da, Da Vincirentzat zortzi arra betekoa dela pertsona perfektuaren neurria.

– Eta zuri zer iruditzen zaizu, perfektua naizela? –galdetu dio Vicek, jolasean.

– Ea, egin dezagun proba –Robertek, olgetari jarraituz.

Luze etzan da Vic, aratinik.

Lehendabizi burutik ahora neurtzen hasi da Robert, arra beteka. Atzamar lodia buru gainean ipini dio, txikia ezpain muturrean, eta ondoren musu limuriak eman dizkio mihi-ezpainetan.

– Bigarrena: ezpainetatik samara –eta lepoa milikatu dio, eztiro, alkandorako hegalak zabalduz.

– Segi –esan dio Vicek, botoiak askatu ahala–, segi, segi...

– Hirugarrena: samatik bular tartera –eta hatz lodia lepo parean ipini dio eta txikia bular artean.

Bular erreka ferekatu dio, eta ondoren bular kaiola osoa. Ezkerreko titia eta gero eskuinekoa. Biribilean, ertzetatik erdira. Titi sagarrak nola gogortzen ari zaizkion sentitu du Robertek.

– Laugarrena: bularretatik zilborrera.

Zilborra kilimatu eta mingainarekin bustitzeaz batera, dardarizoka sentitu ditu haren sabeleko giharrak.

Mugimendu azkar batez Vic biluztu egin da gerritik behera.

– Bosgarrena: zilborretik alura.

Hatz mamiekin laztandu dizkio aluko ezpainak; haien ura igurtzi du aurrena, eta ahoaz gozatu dizkio gero, tarteka mingaina zuloan barrena sartuz. Aspaldi ikusi gabeko maitalea musukatzen ariko balitz bezala, leun eta irmo, aldi berean.

– Seigarrena: belaun gainera...

Vicek eskuarekin itxi dio ahoa eta bere barrura sarrarazi du Robert, atsegalez.

Carmen Mussche 1942ko abuztuaren 16an jaio zen, Bijloke ospitalean. Robertek neskatoa zela jakin zuenean «Carmen» jarri nahi izan zion, sorterrira gogoz kontra bueltan bidali behar izan zuten beste alabatxo haren oroimenez. Carmen txikia jaio zela jakiten lehen laguna Herman izan zen; barruan kabitu ezinik kontatu zion Robertek, udako arratsalde epelean, kanal ertzetik paseatzen eta zuhaitzen gerizpean. «Denboraldi txar bat igaro dut, baina orain nabari ditut berriz ere urtaroak pasatzen».

12

Amaren paperen artean zebilela, lau puskatan zatitutako orri bat aurkitu zuen Carmenek. Puskak batu eta egoki jarri zituenean konturatu zen eskutitz bat osatzen zutela, aitak amari makinaz idatzitakoa. Ordurako Erresistentzian sartuta zegoen Robert eta ezkutuan bizi zen Bruselan. Ezin zituen kartak eskuz idatzi, zer gerta ere. 1944an ilunpetik idatzitako eskutitz bat zen, honela zioena:

Kaixo maitea,

Zein arraroa den zuri idazteko idazmakina zahar hau erabili beharra. Ezin dut sinetsi dagoeneko trenean musu eman nizunetik bi aste igaro direla.

Egunak bukaezinak dira, nire itzulpen lana amaituta daukat, baina liburua hain da ergela, ezen erabat amorratuta bainago bertan ageri diren sentimendu hain ez naturalekin. Eta gu geu benetako tragedia bat biziz bitartean, egiazko bizitzatik ateratako tragedia. Bada, horrexegatik nago hain haserre egile burges honek idatzitako estilo ariketa huts hauekin.

Ez diot itzulpen lan honi inolako probetxurik ikusten, baina jarraitu egingo dut bi arrazoirengatik: lehena, denbora igarotzen laguntzen didalako; bigarrena, sos batzuk irabazteko balio digulako, hain da badaezpadakoa etorkizuna.

Dena den, sarritan, nire arreta beste nonbait jartzen saiatzen naiz eta, halakoetan, berehalaxe joaten zait pentsamendua Gantera. Gante da gure herria, munduko toki txiki bat non gure zoriontasuna errotu den. Gantek esan nahi du zu eta gure umetxoa, esan nahi du ama, eta familiak eta lagunek osatzen duten uztai txikia. Nire bihotzean sartzen den uztaia. Baina, gehienbat, zu eta umea zaudete uztai horretan. Eta ez dut behar izan zuengandik banantzerik konturatzeko zeinen garrantzitsuak zareten biak niretzat. Banaketa honek azpimarratu egiten du zure hutsunearen oinazea. Ezerk ezin zaitu ordezkatu munduan. Egunak hasten dira zure goizeko musurik gabe eta bukatu gaueko laztanik gabe. Eta egunez gure Carmen txikiaren hitz totelen falta daukat; izaki bizidun zoragarri hori geurea da soilik. Badakizu zeinen eskertuta nagoen gure batasunarengatik, gure umeagan hartu du forma. Ziklo eternala da: gure gurasoen bizitzak gure haurretan du jarraipena, iragana eta etorkizuna...

Tristura handia ematen dit jakiteak gure aita hil egin zela umea ezagutu aurretik. Horregatik, eskatu nahi nizuke mesede sinboliko eta erromantiko hauxe: ederra litzateke egun hauetako batean hilerrira joango bazina.

Bihar Pazko eguna da eta gure Carmen pozez gainezka egongo da bere txokolatezko arrautza janez. Pena ematen dit berarekin batera hor ez egoteak, bere poza ikusi ahal izateko. Ahal banu une batez bada ere hortxe egon...

Aste honetan Bruselan izan naiz eta Hermanekin hitz egin dut. Itzulpenaren lehen zatia eskatu zidan. Bigarrena datorren astean izango dut prest.

Eman eskumuinak familiari eta lagunei. Batez ere Georges anaiari eta bere emazteari eta umeari. Eman musu bero bat gure amari eta esan ez arduratzeko. Ondo nago.

Eta orain zu, ene maitea. Gertu-gertura nator eta belarrira xuxurlatuko dizut zeinen maite zaitudan. Zure ezpain goxoetan musu ematen dizut, leun. Eta Carmeni maitasunez beteriko laztan bat aitaren partetik.

Maitea, hainbeste botatzen zaitut faltan.

Robert

Carmenek bere buruari galdetu zion zergatik egongo zen gutuna lau puskatan zatituta. Amak apurtuko zuen karta hura? Amorruz, senarra etxean ez zegoelako, bakarrik utzi zituelako bera eta umea? Edo, besterik gabe urratu zen, denborak egin zuen haserretutako eskuen lan bera, orria tolestuta gorde eta kutxa barruko hezetasunagatik? Erantzunik gabeko galderak ziren Carmenentzat. Azken urteotan bere bizitza ere lau puskatan zatitutako eskutitz hura bezalakoa zen. Bere iragana argituz zihoan, piezak bata bestearen ondoan jarri eta logika bat idoro asmoz.

Aitak Ganteri buruz zioena gutunean ez zitzaion arrotza egin. Bazekien ondo, aitak familiarentzat habia hantxe eraiki behar zuela. Izan ere, ezkondu eta hilabete batzuetara Gantera itzuli ziren senar-emazteak alabatxoarekin, Anberesko erraztasunak albo batera utzita. Robertek Gantera bildu nahi zituen bereak. Hantxe bizi behar zuten, hantxe haziko zen alaba eta joango zen, urte batzuen buruan, berak hainbeste amestutako Ganteko Unibertsitatera. Berak lortu ezin izan zuena nahi zuen Carmenentzat. Paul Fredericq Straat-eko pisu bat alokatu zuten, geltoki ondoko auzoan. 59. atean biziko ziren, lehen solairuan.

Robertek, nobiotan, maiz gonbidatzen zuen Vic Gantera, hiriko bazterrik ederrenak erakusten zizkion, hiriaz maiteminarazi nahi zuen. Baina Vic ez zen aise makurtzen, askoz maiteago zuen Anberes. Gantera egindako lehen bisitaldian Sint-Michiels zubira eraman zuen Vic. Handik ikusiko zituzten Ganteko hiru dorre entzutetsuak. Zubiaren erdira ailegatu zirenean, esan zion Robertek:

– Hona hemen Ganteko ikuspegi ederrena.

Zubiak halako sabeltxo bat du eta hiru dorreen ikuspegia zabaltzen da bertatik. Sint-Niklaas elizako dorrea dago hurbilen. Atzerago, Belfort, hiriko agiriak gordetzen dituen dorrea. Eta atze-atzean, Sint-Baafs katedraleko orratza. Zubitik begiratuta halako atmosfera berezi bat sortzen da, ematen du Erdi Arora itzuli zarela, eta denborak ez duela aurrera egin garai urrun haietatik. Zubitik behera begiratuta, aldiz, Ganteko kanalak daude ikusgai, ezker-eskuin. Ezkerraldera, Ganteko moila zaharrak, garai bateko merkatarien etxe eta biltegiak ilaran, Erdi Aroko eta Errenazimendu garaiko jauregiak, bata bestearen ondoan. Belar moila esaten diote portuaren alde zahar horri. Hondohondoan, azkenik, Gravensteen Erdi Aroko gazteluaren silueta iluna.

Belfort dorrearen oinarrian atera zuten argazkia, Mammelokker izeneko marmolezko irudiaren azpian, hain zuzen. Mammelokker deritzo aitari bularra ematen ari den emakumearen irudiari. Cimon eta bere alaba Peroren legenda klasikoan oinarrituta dago erliebea. Cimon gosez hiltzera kondenatu zuten eta, goizero-goizero, alabak bisita egiten zion kartzelara. Ezkutuan, bularra ematen zion aitari. Zaindariak alabaren jukutriaz ohartu zirenean, zigortu beharrean hunkitu egin ziren eta aske utzi zituzten aita-alabak.

– *Caritas romana* deritzo motibo horri eta Ponpeiako hormetan margotu zuten lehendabizi. Rubensek berak koadro bat baino gehiago margotu zituen istorio bera aintzat harturik –azaldu dio Robertek, zigarroa erretzen, Vicek burdinazko barandan eserita entzuten dion bitartean, oinak airean dituela.

– Nonbait entzuna dut, munduan hiru gauza direla alferreko –otu zaio Vici.

– Errege-erreginak, eliza gorena eta aberats handiak, akaso?

– Robert, ez hasi politika kontuekin berriz ere. Gauza poetikoago batzuei buruz ari natzaizu...

– Esan ba.

– Itsasoan euria, egunez ilargia eta gizonezkoen titia.

– Hara.

– Eta ikusten? Cimon hark semea izan balu gosez hilko zen. Bisitan ere ez dakit joango zitzaion, gizonezkoa izanda.

Robert pentsakor geratu da lipar batez.

– Seguru al zaude gizonezkoen titiak ez duela ezertarako balio? –esan dio, zigarroa amatatu eta mutxikina kaxa barruan sartuz.

– Ez daukazu erremediorik.

Herman ausartu da azkenean Roberti proposamena egiten.

– Beti galdetzen zenidan ez zenekiela zer egin okupazioari aurre egiteko, eta orain partiduak jendea behar du. Poz handia hartuko lukete burkideek baietz esango bazenu. Herria beldurrez dago, inork ez du urratsik aurrera ematen, are gutxiago zure egoeran... Baina galdera egin behar dizut. Hitza eman nien bileran. Sartuko zinateke Erresistentzian?

Bazekien Hermanek zeinen zoriontsua zen Vicekin eta Carmen txikiarekin. Bazekien ondo itaun hark zer

esan nahi zuen, bizitza zoragarri hura arriskuan jartzea, alegia. Eta bazekien, oroz gain, Robertek ez ziola ezetz esango. Sekula ez zion ezetz esan eta oraingo honetan gutxiago. Ez zebilen oker. Robert Erresistentzian sartu zen.

Hasieran Ganteko taldean egiten zuen lan. Legez kanpoko egunkari bat argitaratzen zuten, *Het Belfort* izenekoa. Hiriko legeak gordetzen zituen dorrearen izena zeraman paperak, askatasunaren gordari zen gotorlekuarena. Robertek maiz idazten zuen legez kanpoko egunkari hartan. *Julien* izengoitia erabiliz sinatzen zituen artikuluak. Espainiako Gerran izandako eskarmentuak kronika sutsuak idazteko balioko zion, irakurleak pizten dituzten horietakoak. Jendeak oso estimatzen zituen Julienen ekarpenak.

Baina ez zuen hori ardura bakarra. Orobat, naziekin kolaboratu nahi ez zuten presoen familiak laguntzen zituzten diruz, gobernuak laguntza guztiak kendu zizkien-eta. Dirua lortzeko bileretako batean aspaldiko ezagun batekin topo egin zuen Robertek. Armand Neven, Belgikako Banku Nazionaleko zuzendaria ere hantxe zegoen batzarrean. Elkar ikusi zutenean aho bete hortz geratu ziren bi-biak.

– Zer egiten duzu zuk hemen? –galdetu dio zuzendariak.

– Hementxe, dirua lapurtzen –irri-gaitz eginez Robertek.

– Tira, kausa on baterako bada...

Adreiluzkoa zen Paul Fredericq Straateko etxeko balkoia, eta zulo karratu batzuk zituen tarteka. Handixetik begiratzen zuen Carmen txikiak kalera. Bere adineko ume guztiek legez, bi urte inguru izango zituen orduan, atsegin zuen ezkaratzeko armairuetatik gauzak atera eta beste toki batzuetan gordetzea. Atera eta gorde, atera eta gorde, egun osoan. Hori dela-eta, Vicek sukaldean zerbait aurkitzen ez zuenean balkoiko zulotxoetan topatuko zuen. Huraxe zen altxorraren kutxa Carmenentzat. Eta altxorrean: titarea, gatz-ontzia, koilaretxoak. Eskura zetorkion guztia.

Carmen jolasean dabil balkoian. Vicek kaletik datorren zaratotsa entzun du. Garrasiak, armen hotsak, ate eta leihoen danbatekoak. Carmen hartu du besoetan eta kalera begiratu du, makurtuta, balkoiko zulotxoetatik. Zulo batetik Poliziaren auto bat ikusi du, espaloiaren gainean aparkaturik. Beste zulotxotik, auzo-

ko emakume bat korrika. Hirugarren zulotxotik, emakumea lurrean eta poliziak hari heltzen. Etxe barrura sartu eta itxi egin ditu ate eta leihoak.

Atxiloketak lantzean-lantzean izaten ziren. Hala ere, ez zituzten denak eraman. Judu familia bat bizi zen kale hartan bertan, sekula harrapatu ez zutena. Kale hartan gorderik egon ziren gerra osoan. Alemanek bazekiten hantxe zeudela, baina ezin izan zituzten atzitu. Ilunpean iraun zuten naziek alde egin zuten arte.

Auzokoen artean elkartasun handia zegoen. Beheko solairuan margolari bat zuten bizilagun musschetarrek. Margolariak esana zion Roberti, bere bila joanez gero jaisteko leihotik patiora, bere lantegira sartzeko eta atzeko atetik ihes egiteko. Kale kantoian janaridenda txiki bat zegoen. Estualdiren bat bazen, hantxe zuten telefonoa.

Denborak aurrera egin ahala, egoera arras gaiztotu zen. Erresistentzia taldeak sabotajeak egiten hasi ziren, toki estrategikoak hondatzen; geltokiak, trenbideak, zubiak. Horrek azkartu egin zuen errepresioa eta alderdi komunistako jendea desagertzen hasi zen gutxika-gutxika. Baita Roberten uztaian ere.

Alers harrapatu zutenean, Gante ez zela toki segurua erabaki zuen Robertek eta Anberesera aldatu zen, hain zuzen, 1944ko martxoaren 7an. Tren geltokira joan eta agurtu zituen emaztea eta alabatxoa. Anberesen Vicen familiako lagunen etxeetan hartu zuen babesa aste batzuez. Baina Anberes ere leku arriskutsua zela iritzirik, Bruselara joan zen. Zonnestraat-eko bosgarrenean hasi zen bizitzen, partiduak lortu zion apartamentu txiki batean. Baina ez zeukan aski dirurik bizi ahal izateko. Onena apartamentuan bertan lan egitea zen, egunero lantokira joan behar izan gabe. Hermanek lortu zion horretarako lan aproposa: itzulpenak egingo zituen. Alemanetik, frantsesetik eta gaztelaniatik nederlanderara itzultzeko nor zen Robert eta idazlea zen, ongi taxutuko zuen lan hori. Bruselako Cafe de Parisen geratzen zen astean behin Hermanekin eta hark pasatzen zizkion itzulgaiak. Halaber, arropa zaku bat, janari pixka bat eta eskutitzak. Astean behingo hitzordu hori izaten zen Robertek zibilizazioarekin zeukan hartu-eman bakarra. Aste osoan ez zuen beste inorekin hitz egiten, lanean jarduten zuen eta, lanean ez zegoelarik, etxekoekin pentsatzen.

– A ze idazle petrala eman didazun itzultzeko! –kexatu zaio Robert Hermani kafetegian–. Bakardade orduak are luzeagoak egiten dizkit.

– Tira, literatura ona ez da askotan salgarria izaten. Eta editoreak halakoak ere behar ditu.

– Herman, liburu eskas hori itzultzen ari nintzela, gogoeta egiten aritu naiz zerk egiten duen on literatur lan bat.

– Edertasunak –Hermanek.

– Ez du zerikusirik edertasunarekin. Ezta garaikidea izatearekin ere, berrikuntza formalak-eta egitearekin. Horiek teoria kontuak dira, kritikarientzako bazka. Muntazkoena, niretzat, testuan agertzen ez den zerbait da, lerro azpian dagoena...

– Xarma?

– Nik ez nuke hitz hori erabiliko. Nahiago dut *bulkada* esan. Liburu batean idazlea bera nabari duzunean, badakizunean berak beste inork baino hobeto kontatuko dizula istorio hori, ezin diozunean utzi bere ahotsa entzuteari...

Zerbitzariak, mahaira hurreratu eta eten egin du Roberten mintzoa.

– Gozorik nahi?

Bi idazleak zerbitzariari begira geratu dira une batez eta, berehala, ziztu bizian mahai gaineko gauza guztiak bildu eta kafetegiko atzeko atetik ospa egin dute.

Haur bat izaten duzularik beldurrak azaltzen dira atoan. Gaztarora iritsita, pentsatzen du Robertek, uste izaten dugu haurtzaro eta nerabezaroko zalantza eta izu une horiek betiko uxatzen ditugula. Tamalez, ez da horrela izaten. Guraso izatean indar berriz agertzen dira. Badirudi, izuek halako abagunea ematen digutela, urte gutxi batzuetan halako arnasa, ostean erasoan hasteko atzera ere. Hiruzpalau urteko barealdia izaten da, asko jota. Eta haurra izatean beldurra ematen digu hura galtzeak, eta berak gu galtzeak. Bakarrik uzteak, betirako. Neska bada, beldur horiei gaineratu behar zaie gizonen baten mendean izateko izuak, erasoren bat jasoko balu. Izan ere, ezagutzen ditudan emakume gehienek jasan izan dituzte neurri bateko edo besteko erasoak.

Robert etengabe oroitzen zen bere bi Carmenekin. Nola moldatuko zen Karmentxu Bilbon gerraoste ilunean? Lortuko al zuen bizitzan aurrera egiterik? Bru-

selan, kalean barrena zihoala, Karmentxuren adineko neskato bat ikusita, bere buruari galdetzen zion nola egongo zen bere alaba, zer egiten ariko ote zen une hartan bertan. Lotarako orduan txikia hartzen zuen gomutan. Etxean zegoelarik bere ardura zen Carmen lotaraztea. Ipuina irakurtzen zion eta gero berarekin batera etzaten zen. Lo plantak egiten zituen. Carmenek laztandu egiten zuen «Aita, aita» esanez. Bat-batean eten egiten ziren laztanak, lo geratzen baitzen umea. Ez zen erraza hutsune hari eustea. Horren urrun sentitzen zen Gantetik, berrogeita hamar kilometrora egon arren ezin joan haiek ikustera, harrapatu egingo zuten-eta bestela.

Maite zituenekin ezin egote horrek erre egiten zuen barrutik Robert. Apartamentuan bakarrik zegoela, zalantza uneak izaten zituen maiz: «Merezi al du honek guztiak?». Eta segituan hasten zen bere burua lasaitu nahian, esanez erabaki zuzena hartu zuela, norbaitek lan egin behar zuela naziek mundua gobernatu ez zezaten. Baina nekez trankiltzen zen.

Hermanek utzitako liburuen artean *Moby Dick* eleberriaren ale bat zeukan. Hura ez zen itzultzeko, bakardade eta isiltasun ordu luzeak gozatzeko erabiltzen zuen. Hantxe zegoen, ohe ondoko mahaitxo gainean

jarrita, gaueko irakurketarako. Aparteko itsaso zabal horietara bidaia eginez bakarrik hartzen zuen loak. Melvilleren liburuko bederatzigarren kapituluko pasarte batean irakurri zuen: *But oh! shipmates! on the starboard hand of every woe, there is a sure delight; and higher the top of that delight, than the bottom of the woe is deep.*

«Halaxe da», esaten zion Robertek bere buruari, «zauriaren sakona baino garaiagoa da beti zoriona». Beldur izan arren, eta familiarengandik aldenduta, aita izatearen zorionak gainditu egiten zuen mina.

13

Badu Robertek Ganteko lagunarteari buruz idatzitako poema bat, *Na het feest* izenekoa: *Festa ostean*. Bertan agurtu egiten dute lagunek, baina ez dakigu agurraren sakoneko arrazoia zein den. Gutxika-gutxika desagertuz doa, eta lagunak bere oroitzapenarekin bakarrik geratzen dira, berari buruz duten ideiarekin. Poema irakurrita, badirudi besteek ez dakiten zerbait dakiela idazleak, baduela sekreturen bat gordean, kontatu nahi ez duena, edo esan ezin duena. Roberten poema onena da Hermanen ustez, eta giza eskubideen alde borrokatu zirenen nazioarteko antologia batean argitaratu nahi izan zuen, lagunaren literatur balioak ezagutarazteko Flandriako mugetatik harantzago.

Honelaxe dio: «Het wordt reeds laat, de feestroes is voorbij...».

> Berandutuz doa, berba hotsa ari da isiltzen
> eta lagunak elkarri begira daude, nekatuta.
> Badator banaketa, eta ni bazter batera noa,
> azkar, asperdura begitartetik ezabatzera.

Azken brindisa? Denek opa didate zorte ona.
Baina hitzokin askoz gehiago esan nahi dute.
Eta betiko rola jokatuz amore eman diet,
banan-banan, gau hartarako nituen ilusio denei.

Berandutuz doa, berba hotsa ari da isiltzen,
eta neure buruari galdetzen diot
ez ote den arin marraztutako karikatura hura
nire aurpegiaren benetako isla.

Cafe de Paris. Astero legez hitzordua du Hermanekin. Aitzitik, gaurkoan Herman ez da agertuko. Marthe, haren neskalaguna, oporretara doa egun batzuetarako eta agurtu egin behar du. «Joan lasai», esango dio Robertek kamusada ezin disimulatuz, «moldatuko naiz, ez kezkatu».

Itzulpengintzaz gogoetan jardun du kafetegiko mahaitxoan. Egun luzeetan idazle horien laguntasuna baino ez du izan Robertek. Idazle horien munduan sartuta ibili da, itzulgai ziren eleberriotako ahotsak entzuten. Eta ahots horiek laguntzen diote urratsak aurrera ematen, bizidunen bozak baino areago. Bakardadeak behartu egiten du ez dauden horien konpainia izatera,

aspaldi ikusi ez dituzunak, hildakoak, hortxe bertan daude, egunero kaletik gurutzatzen dituen pertsonen maila berean, beraiek bezain benetakoak dira. Urteetan aurrera egin ahala antzeko zerbait gertatzen da, bizi direnenak eta hildakoenak, horien guztien ahotsak izaten ditu norberak gomutan. «Bitxia da», pentsatu du bere bostean, «baina klandestinitateak lotu nau literaturara gehien». Bankuko lana utzita, sekula baino ordu gehiago igarotzen ditu irakurtzen eta idazten. Kanpoko idazle horiek guztiak nederlanderaz ipiniz ikasi egiten du Robertek. Gustuko du erbesteko hizkuntza horietan esaten dena bere hizkuntzan berresatea, inork zanpatu gabeko lurralde batean sartzea bezalakoa da berarentzat. Itzulpengintzak paisaia ezezagunetara zabaltzen dizkio leihoak edo, gauza bera dena, egundo idatzi gabeko esaldietara.

Kafea ordaindu eta gordelekura bidean jarri da Robert. Pauso lasterrean doa, pentsakor... Cafe de Parisen frantsesez mintzo da jendea; lasai ari dira solasean, naziak hortxe bertan ez baleude bezala, bizitzak aurrera jarraitzen du itxuraz eurentzat, inolako trabarik gabe. «Nire hizkuntza ez da aberatsena», ebatzi du Robertek. «Zergatik idatzi nederlanderaz, Frantziako eta Alemaniako tradizio nagusien bitartean dagoen

hizkuntzan?», galdetu dio bere buruari. «Munduan kokatzen nauelako pertsona gisa», esan du ahapeka, lurrean birrintzen diren euri tantei begira doala, ukabilak estutuz. «Ganteko Ferrerlaan kaleko langileen hizkuntzarik gabe ez nintzen ni neu izango».

Bizikletaren gurpil soinua entzuten du Robertek, bideko hartxintxarrena. Zutik jarri da orain azkarrago joateko. Goiz-albako orduak profitatu nahi ditu tren geltokira lehenbailehen iristeko. Goia estalita dago eta horrek atzeratu egingo du egunsentia. Hobe. Nagikeriaz argituko da hodeien artean. Trenbideen gainekо zubitik igaro da, bizikleta geratu du une batez, barandatik zaindariak ikusi ditu, pareka, bagoi inguruetan, zakurrak dituztela. Zorrotz begiratzen dituzte trenak. Susmorik ez pizteko, geltokiko atarian bertan utzi du bizikleta. Oinez egin du geltokiko adreiluzko hormari kontra. Zati batean baxuagoa da horma, solte baitaude goiko adreiluak. Handik jauzi egin duenean trenbideko harriek hotsa atera dute hesiaren bestaldean. Kontu handiz hurreratu da konboi militarrera. Albo batera eta bestera begiratu du Robertek, ea norbaitek ikusi duen. Ezetz ematen du. Bagoipera

sartu da. Olio, hauts eta hezetasun hatsa. Zorrotik leherkari plastikoa atera du. Eta detonagailu elektrikoa. Gero zelula fotoelektrikoa. Trena tunelera sartzean eztanda egingo du bonbak, argi faltan, seinalea bidaliko dio detonagailuari. Trena tunelean leherraraztea da naziei egin ahal zaien kalterik handiena. Denbora asko kostatzen da eztandak lehertu dituen bagoi zatiak handik ateratzea, burdin eta ohol mordoa, eta denbora ez galtzea hil ala bizikoa da gerra batean. Bonba konboiaren erdialdeko bagoietan jartzea komeni da. Halaxe ikasi zuen Robertek aliatuek bidalitako filmean. Ezkutuko bilera batean ikusi zuten Erresistentziako kideek. Zelula fotoelektrikoa ñimiñoa da eta imanarekin lotu behar zaio bagoiaren azpialdeari. Lagun bakar batek egin beharreko lana da, bizikleta hartu, bonba jarri eta etxera, susmorik sortu gabe. Badira bestelako sabotaje moduak; trenbideak desbideratzea, esate baterako, baina horrek talde handi bat eskatzen du. Edo, garai batean ahalegindu ziren bezala, iltze handiak sartzea trenbideetako juntetan. Dena den, ez da oso eragingarria, iltzeen gainetik pasatzen baitira trenak.

Madarikazioa bota du Robertek. Zelula fotoelektrikoaren imanak ez dira itsasten. Erori egiten dira,

behin, birritan. Izerditan blai dago. Denbora aurrera doa eta laster izango dira bueltan zaindariak zakurrekin. Altzairua garbitzen ahalegindu da aizto txiki batez. Eta azkenean bai, lotuta geratu dira. Zaindarien oin hotsak sentitzen ditu gero eta hurbilago. Ezin du handik atera. Txakurrek bere usaina hartuko dute. Zirt edo zart egin beharko du segituan. Azpitik irten eta korrika joango da trenbideetatik, bizirik ateratzeko aukera gutxi izan arren. Eguraldi lainotsuak lagunduko dio. Halako batean, urrunetik txistu egin diete zaindariei: bueltatzeko geltokira. Robertek nahasmen unea profitatu du bagoipetik hanka egin eta adreiluzko hesia zeharkatzeko. Ezer gertatu ez balitz bezala, bizikleta hartzera abiatu da. Baina zaindariak daude bere bizikletaren ondoan, miatzen. Buelta eman eta oinez joan da kontrako bidean, mantso.

Euri tantak berriro. Eztanda urrun bat geltoki aldean. Pausoa bizkortu zaio.

Aste osoan euria egin ondoren, ilunabar aldera atertu eta zerua zabaldu egin zen ekainak berezko duen edertasun gaztearekin. Intxaur mamiak ziruditen hodeiek laster hartuko zuten beste forma bat. Halatsu

Roberten pentsamenduak ere, abiadura bizian metatzen zitzaizkion-eta Hermanekin elkartzeko Cafe de Parisera abiatu zenean.

Hamabost egunez elkar ikusi gabe egon ondoren, gogotsu hartu dute hitzordua Hermanek eta biek. Kafetegian geratu bai, baina eguna luzatu dela profitatuz, paseatu egin dute gaztaroko garaietan bezala. Eta behiala legez agurtu ezinik egon dira luzaroan, Brusela zaharreko kale estuetan barrena dabiltzala. Gauez kaleargi urdinek distira eragiten zuten galtzada-harrietan, kaleari lehorrean iraulkatzen ari den arraintzar baten itxura emanez. Bai batak bai besteak ez zuten solasa eten nahi, jakin arren egoera arriskutsua zela hura, iluntzeko etxeratze-agindua emana baitzuten alemanek.

Robert sekula baino zuzenago mintzatu zaio Hermani, ordu askotan bakarrik egoteak gauzak argitu balizkio bezala.

– Herman, pentsatzen aritu naiz eta arrazoia eman behar dizut bueltan-bueltan.

– Hara! Ezin dut sinetsi. Robert niri arrazoia ematen. Zer dela-eta ohore hau?

– Garai batean egotzi zenidan ez niola neure buruari uzten maitasunaz gozatzen, uzkurregia nintzela.

Bada, egia da. Eta horrekin lotuta, aitortu behar dizut gauza bat.

– Esan.

– Badakizu zerk maitemindu ninduen?

– Zu ezagututa, Vicen begi azulek.

– Bai, hastapenean bai. Ezin nituen nire begiak haren begietatik aldendu. Sorgindu egin ninduten. Baina bihotzean aingura finkatu zutenak bere hitzak izan ziren. Nolako ateraldiak zituen... Umore inteligenteak, bere jardunak, horrek lotu ninduen batez ere Vicengana. Hala ere, eta honetara nindoan, behin hura besarkatu nuenean, elkarren gorputzak ezagutzen hasi ginenean, konturatu nintzen lotura fisiko sendo bat sortu zela gure artean. Ohartu nintzen emakume hark bazuela barru-barrutik erakartzen ninduen zerbait. Bere azalaren ukimena hain zen bakarra niretzat, haren usain goxoa...

– Ez isildu orain –Hermanek, kontent.

– Barre egingo didazu, baina bere azalaren lurrinak lasaitu egiten nau, amak hartzen duenean jaioberri batek negar egiteari uzten dionean bezala. Aurretik izan ez nuen sentipena zen. Ez dakit, ez du zerikusirik kulturarekin, animaliekin lotzen gaituen zerbait da, hitzez azaldu ezin dudana. Soilik, gure arteko lotura oso

fisikoa bilakatu dela ari natzaizu aitortzen, eta arrazoiak azalpen gutxi eman ditzake horretan.

– Lehen beste uste batekoa zinen. Oraindik uste duzu edertasuna eta ontasuna batera doazela?

– Jakina.

– Eta ez al duzu gustuko Gustav Klimten koadroetako erotismo ilun hori? Judithen edertasun beltzarana, Holofernesi moztutako burua eskuetan duela, lirain eta indartsu. Haren biluztasun harroa urrez apaindutako koadro zoragarri horretan.

– Bai, baina utzidazu esaten ez naizela hainbeste aldatu. Eta Klimten pinturaz ari garela, nik nahiago dut beste margo bat, *Neskalagunak* izenekoa. Bertan bi lagun ageri dira: bat biluzik, gorriz jantzita bestea. Batek bestearen sorbaldan etzaten du burua. Eta biluzik egon arren, indarra bi neskatoen espresioan dago. Erotikoa da, zalantzarik gabe koadro hau ere, baina eros horrek badu lotura bat soseguarekin.

– Ezin dut ulertu nola ez zaren kristaua, Robert. Zure ideiak hain daude gertu Jesusek esandako hitzetatik.

– Halaxe da, gertu gaude, bidegabekeriak salatzen zituenean batik bat. Eta zeruaren ideia bera ere, uste dut, ideia oso erabilgarria dela bizirik gaudenontzat.

Norbaiti laguntzen badio lasaiago sentitzen, aurrera. Nolanahi ere, nik ez dut sinesten hainbeste iraunkortasunean, une oroko maitasunean baino. Transzendentziak ez nau konbentzitzen. Beldurra ere ematen dit, pentsa.

Hermanek liburu bat atera du zorrotik.

– Haraindikotasunaz ari garela, hona hemen beste liburu bat itzultzeko.

– Zaborra berriz?

– Ez. Hau ona da: Lorcaren *Yerma*.

– Begira, Lorca Espainiako aurrerakoien ikurra da gaur egun. Eta hala eta guztiz berak oso maite zituen Andaluziako Ama Birjinen irudiak, gustuko zituen prozesioak. Gizakiok alde asko ditugu...

– Bai, alde horietako bat lana da. Eta nik bihar lanera joan behar dut. Beraz, aire etxera!

Herman agurtu eta pozik abiatu da Robert apartamentura bidean. Bilkura atsegina izan da, aspaldiko partez benetan gustura egon dira elkarrekin. Urrats itxiak egiten ditu, bizkor, begirada lurrerantz makurturik ostenduz, Hermanekin hitz egindakoaz hausnarrean. Halako batean, talka egin du emakume batekin espaloian. Gogoetetan hain murgilduta zegoen ezen ez baitu ikusi. Elkarri so egin diote. «Robert!», atera

zaio emakumeari. Arrotza egin zaio bere izena entzutea, *Julien* deitu izan diote azken hilabeteetan, eta erne ipini da bere benetako izena aditutakoan. Gaueko argi likidoak eragotzi arren, atoan ezagutu du andrea: Aline.

– Ze sorpresa zu Bruselan aurkitzea!

– Baita zeu ere –Robertek, bere burua kokatu ezinda, zer esan ez dakiela–. Ongi zaudete?

– Aingeru bat bezala agertu zara...

– Hegalak falta zaizkit.

– Duela hilabete batzuk Gracianok eta Karmentxuk gutun bana igorri ziguten Bilbotik, zuretzat egindako marrazki bat eta guzti, baina ez nekien zuri nora bidali.

– Hemen nabil, itzulpen lanak eginez sos batzuk nola irabaziko.

– Ni ere Bruselara etorri naiz seme-alabekin. Ganten bizitzea ez zen batere erraza. Poz handia hartuko genuke gurera bisitan etorriko bazina. Robert kurloia, irakasle maitea... Gracianok eta Karmentxuk bolo-bolo darabilte zure izena.

– Ez da hainbesterako izango.

– Tira, hauek ez dira toki eta ordu egokiak berbetan egiteko. Zatoz zapatuan bazkalostean. Brusela erdialdean bizi gara, izebarenean.

– Ados –hitzeman dio Robertek, ez duda egin gabe, adio egiteko Alinek eskuak estutu dizkionean.

Karmentxuren izena entzuteak barruak mugiarazi zizkion Roberti. Gau osoa egon zen bueltaka, Karmentxuren berri izango zuela oldozten, egin zion marrazkian topatuko zuela zantzuren bat zer moduz zebiltzan igartzeko. Nola egin neskatoa faxisten girotik erauzi eta ostera ere Gantera ekartzeko? Bere egoeran, ez zen xamurra izango.

Ohean etzanik, Roberti iruditu zitzaion zorteak onera egin zuela; alde batetik, Hermanekin primeran igaro zuen arratsaldea, aspaldiko adiskidetasun maila sakona berdinduz eta, beste alde batetik, orain, ematen zuen Karmentxuren arrastoa berreskuratzeko bidean egongo zela.

Zapatuan Alineren atean jo du Robertek. Ez du haur ahotsik aditu. Bigarrenez sakatu dio txirrinari. Une batez, apartamentura itzultzeko keinua egin du, zalantzati. «Banoa!», esan dio Alinek etxe barrutik.

Baina atea zabaldu denean ez da emakumerik azaldu. Soldadu naziak daude korridorean, burdinazko zoladun botekin eta kaskoekin.

Sugeen abiadurarekin lotu dute Robert. Emakumeari begira geratu da, sinesgaitz. Eta garrasika hasi da Aline, bere onetik aterata:

– Umeak kendu dizkidate, Robert! Umeak hilko dituztela mehatxatu didate!

Alemanek lotu egin dute Aline ere. Ahoa estalita, lurraren kontra jarri diote burua. Begiekin erreguka ari zaio Roberti: «Barkatu, barkatu».

14

Handik eta hemendik Vicek jakin zuen Robert non zeukaten. Anberesko kartzelan gatibu. Bi hilabetez egon zen han, ziega heze eta mehar batean. Uztail eta abuztu osoan behin bakarrik bisitatu ahal izan zuen gizona. Robertekin aurrez aurre jarri zenean, ez zion gizonari itxura onik hartu. Argalduta zegoen, erkin eta kaden. Odolbatuzko orbainak zituen larruazalean. Begirada galduarekin, bere baitara iraulita zegoen. Ez zion aditzen Vicek esaten zuenari. Isilik egon zen denbora gehiena. Nabarmenak ziren torturaren ondorioak. Burdinazko ohean biluzik eta bustita etzanarazi eta argindarrez torturatzen zuten.

Ulertu ahal izan zizkion hitz totelen artean, hauxe besterik ez du gogoan:

– Ez dut inoren izenik eman.

– Eman izan bazenu ere, Robert. Eman izan bazenu ere...

Anberestik Alemaniako kontzentrazio esparruetara zihoan trenean sartu zuten 1944ko abuztuaren 31n.

Deportatu egingo zutela jakin zutenean kexatu egin ziren Vic eta bere familia, ahalegindu ziren agintariak konbentzitzen, esanez tuberkulosia igaro berri zuela eta ezin izango zuela deportazioa jasan. Alferrik izan zen. Nahiz eta bazterrak mugitu, ez zuten deus ere lortu. Tren hura, Robert Alemaniara eraman zuen trena, Anberestik heriotza esparruetara irten zen azkena izan zen. Ez zen infernurako beste trenik atera. Huraxe izan zen azkena.

Ganaduarentzako bagoi haietatik, ohol arteko zirrikituren batetik paper zatitxo bat jaurti zuen Robertek trenbidera. Paperak bere izena eta helbidea idatzita zeramatzan aurkian, eta berarekin batera trenean zihoan beste gizon batena ifrentzuan.

Duitsland Robert
Van Echelpoel
Van Diepenbeekstraat 56

Eta beste aldean:

Mr Roels
Oloonylaan 109
Antw. Alles Goed.

Hala edo bestela, norbaitek papertxo hura idoro zuen trenbide bazterrean eta ailegarazi zion Vicen familiari. *Duitsland* ipini zuen Robertek, Alemaniara zihoala argi uzteko; eta behean Vicen etxeko helbidea, Anbereskoa baitzen haren familia. «Robert Alemanian da. Trenez bidali dute», esan zioten Vici.

«Alles Goed», irakurri zuen Vicek mezuaren bukaeran. «Dena ongi da».

Tren hark Robert Alemaniara eraman zuen egun berean Vic eguneroko bat idazten hasi zen. Emazteak hantxe kontatzen zizkion senarrari egunean zehar gertatzen ziren gauza guztiak. Bidali gabeko gutunak ziren, Roberti zuzenduak, baina etxetik sekula atera ez zirenak. Kaier hartan geratu dira idatzita Vicen kezkak, pozak eta nahigabeak, Carmen txikiaren aurrerapenak, gerrako gorabeherak eta Robertekin berriz juntatzeko zituen itxaropenak, denak.

1944, abenduak 27.

Maitea,

egun gutxi batzuetan hainbeste gauza gertatu da!

Gure herria oso-osorik askatu zen, baina alemanek eraso egin zuten atzera ere, eta Maas hartu. Banuen itxaropena Eguberri egunerako gurekin batera egongo zinela, baina ezin izan da.

Hamaika lagun elkartu gara etxean: gurasoak, Yet ahizpa, Jenny eta Annie lagunak eta, ez duzu sinetsiko, hiru soldadu poloniar. Oso atseginak ziren. Zeinen pozik zeuden etxean hartu genituelako Gabonetan. Nik pentsatu nuen beharbada zu zeu ere beste familia batek hartuko zintuela etxean, eta guk haiek tratatu genituen bezain ondo hartuko zintuztela zeu ere...

Maite zaitut, mesedez, zatoz laster.

Vic eta Carmen

Ardenetako bataila deritzona izan zen egun horietan. Aliatuek espero ez zutela, Normandiakoaren ostean irabazle ikusten baitzuten beren burua, armada alemanak erasoa jo zuen Ardenetako basoan, Anberesko portua hartu nahian. Hasiera batean bazirudien erasoak bere fruituak eman zituela, Anberestik ehun kilometrora jartzea lortu baitzuten. 75.000 soldadu alemanek parte hartu zuten erasoaldian, zeuzkaten tanke talde onenekin. Dena den, lainoa zela-eta nekez egin ahal izan zuten aurrera, eta aliatuei astia eman

zien erasoari egoki kontra egiteko. Fronteak, horrela, konkor itxurako forma hartu zuen. Horregatik ere badatorkio izena, *Konkorraren bataila* ere esaten baitzaio. 1945eko urtarrila arte gogor oldartu zitzaizkien aliatuak eta, azkenean, atzera egin behar izan zuten alemanek.

Gerraren norabidea aldatzeko azken ahalegina huraxe izan zen alemanen aldetik. Geroztik beren gainbehera hasiko zen. Galdutako indarraren eraginez, ekialdeko fronteak askoz azkarrago egin zuen aurrera eta uste da sobietarrek horrexegatik hartu zutela Berlin amerikarrek baino lehenago; orobat, aliatuen aurrerakuntza ere mantsotu zuelako Ardenetako gatazka odoltsu horrek. Gauzak ez ziren aurretik pentsatu bezain bizkor joango. Ardenetako gatazka eguraldi txarragatik oroitzen da, hotza eta elurra egin baitzuen etenik gabe. Soldaduentzat baldintzarik okerrena. Ardenetako batailari buruz idazten, Robertek aspaldi ezagututako bat izan zen: Ernest Hemingway.

Vicen izeba gazteena zen Yet. Europara gerran etorritako amerikar pilotu batekin maitemindu eta Estatu Batuetara joan zen bizitzera, Ohiora. D-Day delakoan

parte hartu zuen osabak, eta ohitura zuen Europara urtero ostera egitekoa andrearekin batera egun hura ospatzera. Profitatzen zuen Carmeni bisita egiteko. «Zoriontsuak izan ziren, urte onak igaro zituzten elkarrekin», esaten zidan Carmenek beraiei buruz.

Amaren egunkarian aipatzen diren soldadu poloniarrenak gogora ekarri zion Carmeni amak kontatutako beste kontu bat. Eguberri horietan, Carmen txikerrak ezin izan zuen egongelara sartu, gizon haiek bertan egiten baitzuten lo, hain justu gorputzetik libratzen ikasten ari zen sasoi berean. Umearen ekandua zen egongelako bazter batera joan eta han egitea kaka. Platerak gordetzeko altzariaren atzean sartu eta hantxe bertan. Baina soldadu poloniarrak iritsi zirenean ezin zuen eta negarrez hasi zen haurra.

Ama berehala konturatu da, eraman du komunera umea, armairu barrutik pixontzia atera eta atzamarrarekin seinalatu dio:

– Hementxe egin behar duzu aurrerantzean, laztana.

1945, urtarrilak 7.

Aitatxo,

gure alabatxoa gaixorik dago. Sukar handia du eta sabeleko mina. Espero dut bihar hobeto egotea.

Thilda ahizpa nagusia, Bob senarra eta Gerda alaba iritsi dira gaur Anberestik. Hantxe zeuden V1 bonbak lehertu zirenean. Bob eta umea gurekin geratuko dira, baina Thildak itzuli egin behar du. Eskolako maisua da eta ezin ditu ardurak utzi. Hain nago kezkatuta beragatik...

Eta hain harro zutaz, Robert.

Besarkada.

Alemaniarren V1 eta V2 misilek izu larria sortu zuten Anberesen. 1944ko urrian erabiltzen hasi ziren, gerraren hondarrean. Ehun eta berrogeita hamalau egunez bonbardatu zuten hiria, milaka V1 eta V2 jaurtiz. Indar handiko bonbak ziren eta arras hiltzaileak. Dozenaka eraikin honda zezakeen haietako bakar batek eta ehunka hildako eragin. Alemaniatik igortzen zituzten plataforma luze batzuen bitartez. Ikusi egiten zen zerua zeharkatuz nola iristen ziren. Azkarrak ziren, hegazkinak baino bizkorragoak, seiehun kilometro orduko hartzen baitzuten. *Buzz bomb* edo *doodlebug* deitzen zieten ingelesek, zomorro handi baten za-

rata ateratzen zutelako hegan. Hala ere, erreakzio-motorra itzaltzen zitzaienean isildu egiten ziren eta jendeak bazekien euren gainera eroriko zirela segundo gutxitan. Horrek areagotu egiten zuen beldurra. Horixe baitzen, batez ere, bonba haien helburua, zibilen artean izua eta etsipena zabaltzea.

Londres eta Anberes izan ziren bonba haiek gehien jasan zituzten hiriak. 1944ko abenduaren 16an V2 batek bete-betean jo zuen De Keyserki etorbideko Rex zinema, arratsaldeko hirurak eta hogeian. Bostehunetik gora hildako eragin zituen. Gary Cooperren film bat ikusten ari ziren, *Buffalo Bill*. Geroztik, itxi egin zituzten antzoki eta zinema aretoak eta debekatu egin zuten berrogeita hamar lagun baino gehiago toki berean biltzea.

Garai latzenetan hogei minuturo egiten zuen eztanda halako bonba batek Anberesen. Bertakoek hiritik kanpo lo egiten zuten eta egunez itzultzen ziren hirira, lanera.

Erasoak saihesteko elkar hartu zuten armada britainiarrak, estatubatuarrak eta poloniarrak. Baziren hegazkinaren hegoaz ukitu eta desbideratu egiten zituzten abiadoreak ere. Gerraren bukaera aldera, triki-

mailu horien bitartez, bonben ehuneko hamarrak soilik egiten zuen eztanda.

Vicen ahizparentzat, ordea, beranduegi zen. Thilda erotu egin zen V1 eta V2 bonben leherketen ondorioz, eta psikiatriko batean igaro zituen bere azken egunak.

15

Robert Mussche irailaren 2an iritsi zen Neuengammera. Hanburgo hiritik gertu zegoen kontzentrazio esparrua zen Neuengamme, Elba ibai ertzean. 1938an eraiki zuten esparrua adreilu fabrika bat zegoen toki berean. Hasierako urteetan adreiluak egitea izan zen presoen betebeharra. Lan horrez gain beste eginbehar batzuk ere izan zituzten, esate baterako, Elba ibaia kanalizatzeko lanak; esparrua txiki geratu baitzen laster eta haren inguruan beste esparru satelite batzuk eraiki zituzten, eta haien artean kanalak zabaldu, batetik bestera adreiluak eta gainerako zamak garraiatzeko.

Gerra hasierako urteetan munizioa egiteko erabili izan zuten presoen esku lana eta, baita ere, Hanburgo eta Bremengo hirietan, aliatuen bonbardaketen ostean, eztanda egin gabe geratu ziren lehergailuak kaleetatik garbitzeko. 1943ko apirilaren 17an, hain zuzen, Neuengammeko sei preso hil ziren bonbardaketa batean kale bazterretatik bonbak jasotzera joan zirelarik. Ez zuten eskubiderik babeslekuetan sartzeko eta hegazkinen erasoen mende uzten zituzten kanpoan.

Lanaren emaitza, dena delakoa zela, bigarren mailakoa zen; esan nahi baita, maiz zentzurik gabeko lanak egitera ere behartzen zituzten deportatuak. Egia da, Reicharen alde behar egiteko erabiltzen zituztela presoak, lantegietan edo obra publikoetan, baina helburua, batez ere, jauntxo eta jopuen arteko sistema bat ezartzea zen. Jauntxoak naziak ziren eta jopuak beren gizarte ideiatik kanpo geratzen ziren guztiak: juduak, komunistak, atzerritarrak, homosexualak, ijitoak, erresistenteak. Esklabo izatea zen euren etorkizuna, eta naziek argi eta garbi utzi nahi zieten hori mendekoei. Lanaren azken xedea horixe zen, presoek egoera berria barneratzea. Halatan, SSetako kideek ez zuten beraiekin ia kontakturik izaten, ez zuten gatibuekin hitzik ere egiten; haien aburuz, goitik zegoen arraza bat izaki, ezin ziren lohitu horren behekoak ziren esklaboekin berbetan. Betebehar horretaz zaindariak arduratzen ziren, kapo izenekoak. Gatibuak ziren hauek ere, guardia bilakatutako presoak; eta, frankotan, eurak izaten ziren ankerrenak.

Azken batean, Reicharentzat presoak ez ziren gizakiak eta, horrenbestez, ez zuten merezi pertsona legez tratatuak izatea. Bizitzeko gogoa errotik kendu nahi zieten naziek. Gosearen erabilpen sistematikoa

egiten zen kontzentrazio eta heriotza esparruetan. Gosea bera ere tresna bat zen presoak zeharo apaldu eta zapaltzeko. Doi-doi lanerako behar zuten hori ematen zieten jaten, ez gehiago. Urdaila txikitu egiten zen, hezurrak mintzen hasten ziren, hortzak zuritzen. Baina, sarritan, gosea ez zen okerrena izaten. Benetan latzena beldurra zen. Eta amesgaizto bihurtzen ziren gauak. Ilunpe sakonetik onik ateratzea eta hurrengo eguna jaiotzen ikustea kontsolamendu handia iruditzen zitzaion edonori. Basoko piztientzat bezala: gau bat osorik, egunsenti bat gehiago bizirik. Arrats itsuan kezka larriz ikaratuta, presoek nekez lortzen zuten loak hartzea.

Gauzarik txikiena aski zen han izu laborria sortzeko, kontu ñimiño bat hilgarria bilakatzen ahal baitzen ustekabean. Adibidez, zapata pare bat. Gure eguneroko bizitzan horren arrunta den gauza bat. Batzuetan neurri ezberdineko zapatak banatzen zizkieten presoei; hots, bat norbere tamainakoa eta bestea handiagoa, edo txikiagoa. Eta neurrikoak ez diren zapatak erabiltzean, eta zenbaki desberdinekoak gainera, urratu egiten ziren oinak. Zauri txiki hori oinaze jasanezina bihurtzen zen gose eta ahul zegoen pertsonarentzat, pixkanaka-pixkanaka hilko zuen tortura bat.

Ezen zauri txiki horiek gaiztotu egiten baitziren higiene baldintza ezegokiengatik, eta eritutako zauriak gangrena ekarriko zuen aurrena eta ondoren heriotza. Oinazezko heriotza luzea, tamaina ezberdineko zapata pare xume baten kausaz.

Neuengamme ezaguna egin zen, orobat, Alfred Trzebinski fisikariak egin zituen esperimentuengatik. Tifusa sartzen zien gorputzean preso sobietarrei eta gero ikertu nolakoa zen emaitza. Baina izan zen hori baino gertaera ankerragorik: 1944an Kurt Heissmayer medikua tuberkulosiaren aurkako txertoak frogatzen hasi zen Auschwitzetik beren-beregi ekarritako hogei haur judurekin. Argazkiak daude gaitzak haurrengan zer eragin zuen jasotzen dutenak. 1944ko apirilean, oharturik aliatuak gero eta hurbilago zeudela, eta beraien krimena estaltzearren, hogei umeak hil egin zituzten Hanburgoko Bullenhuser Damm School ikastetxean.

Uste da 1938tik 1945era bitartean 105.000 preso inguru hil zirela Neuengammen, gehienak azken urteetan. 1944-1945 urteak bereziki gordinak izan baitziren: negu hartan, batez beste, 1.700 preso hil ziren hilero. 1945eko otsailean, esaterako, 2.500 hil ziren hotz eta baldintza txarren ondorioz.

SS Obersturmbannführer Max Pauly zen esparruko arduraduna.

Robert Mussche garai horretan egon zen Neuengammen.

45035 zen bere zenbakia.

Trena gauez iritsi den arren, bagoiko ohol arteko zirrikituetatik begiratuz geltoki handi bat ikusten du Robertek, indar handiko argi dorreek arraitua. Hainbat trenbide ikusten ditu, bata bestearen ondoan. Bagoietako ate astunak zabaldu dituzte SSek eta jaisteko agindu diete barrukoei, oihuka, bultzadaka. Deportatuek ozta mugi ditzakete hankak, bete-bete zeuden bagoietan hiru egunez bidaiatu eta gero kakotuta dituzte-eta gorputzeko gihar guztiak. «Azkar, azkar», txakurrek hozka egiten diete zango-sagarretan bagoietako arrapaletatik jaisten diren gatibu abailduei. «Mützen ab!», oihukatzen dute soldaduek, «Mützen ab!». Aldameneko agureak ezulertuaren keinua egin dio Roberti, bekainak jasota. «Kapelak eranzteko dioskute», itzuli dio Robertek, «kentzeko kapelak». Burdin harizko hesiak eta zaindarien dorreak ikusi dituzte.

Zeruan dena ilun, eta argiak, argi mingarri haiek beraien begietara zuzenduak.

Geltoki ondoko barrakoi eskerga batean sarrarazi dituzte denak. Hormetara hurreratzea izan da heldu berrien keinua, bata bestearen ondoan jarri eta bizkarra babestea, zakur beldurtiak egiten duen gisara. Nekez egingo dute lo, artean egin gabe egoera berri bezain latz hartara.

Goiz-alban iratzarri eta soinetik arropak eranzteko agindu diete, larrugorririk geratu arte. Biluzik daudela, aiztotzar batzuk baliatuz bizarra egin diete, ez soilik bisaian, gorputz osoko ileak moztu dizkiete. Apaiz bat negarrez ikusi du Robertek, ez zuen gerripea inork ukitzerik nahi. Handik baldosa zuriz apaindutako dutxa batzuetara eraman dituzte. Ura erortzen hasi da sabaitik. Ur beroa bota diete hasieran, ia irakiten, eta gero hotza, izotza bezain. Ura moztu dute. Biluzik, tantaka, patiora atera dituzte. Hantxe lehortu dira, egonean, iraileko eguzkiaren indar ahularen epelean. Arropa berria eman diete azkenik: prakak eta atorra eta kapela, marradunak denak. Eta zapata parea.

Roberten alkandorak hiruki gorri bat du paparrean josia, komunistei dagokien hiruki gorria. Ondoan, izenabizenen ordezko zenbakia: 45035.

Hasierako egun horiek izan dira zailenak: kiratsa zerien bagoi haietan egindako ostera luzea eta esparrura ailegatzeko unea. Mundu batetik beste batera igarotzea suposatzen du gatibuentzat, erabat ezberdina den mundu arrotzera, bizidunen eguneroko bizitzatik infernura, nahiz eta lehen ere gerra baten erdian egon eta senperrenak ikusi izan. Zuritik beltzera pasatuko da gatibua, itxaropenetik oinaze etengabera. Bizitzak bat-batean ematen duen jauzi hori izaten da kolpe gogorrena. Aurretik ez zuten sekula pentsatu ere egingo horrelako tokirik egon zitekeenik mundu zabalean. Ezta pertsona bat horren gaizki trata zitekeenik ere. Dena zegoen izua piztera bideratuta, ganaduarentzako trena, zakurren hozkak, kolpeak, oihuak, barrabiletako biloak moztea, xehetasun guztiak zeuden ondo zainduak terrorea sortzeko.

Arropak banatu eta pabilioietan sartu dituzte. Ohatzez beteta daude pabilioiak. Lastozkoak dira koltxoiak eta zakuz egindakoak mantak. Ohe bakoitzeko bi lagun; batek alde batera begira egin behar du lo, besteak bestera.

Zaratotsa entzun da bat-batean. SSak eta kapoa sartu dira atetik barrura. Ilaran jarri dituzte iritsi berriak. Kapoak ezker-eskuin astindu ditu makila bate-

kin. Agurea lurrera erori da eta bertan ere zanpatu egin du. Intzirika hasi da gizona. SSetako batek gelditzeko agindu dio, nahikoa dela. Jipoitua lurretik jaso eta atera egin dute pabilioitik. Ez dute berriz ikusiko.

Aurreneko egunak ez ziren batere gozoak izan Robertentzat. Bakartu egin zuten, hagetatik zintzilikatu eta hantxe laga ordu luzeetan, jana ukatu. Eta hori guztia, erakusteko benetan nork agintzen zuen han. *Errusiarra* esaten zioten kapo hura barru-barrutik gorrotatuko zuen Robertek. Ez zuen egundo aurretik halako karrik sentitu inor hiltzeko, baina hura bai, bere eskuekin itoko luke. Harritu egiten zen bere buruaz, nola senti zitekeen horrela, nola zituen barrenak horren ozpinduak, berak, noizbait kultua eta bakezalea izandako gazte hark. Ez zuen bere burua ezagutzen.

Neuengammen eguneroko laguna zuten heriotza, beste bat gehiago zen, eurak baino biziagoa. Injekzio hilgarriekin akabatzen zituzten gaixoak. Eta maiz gertatzen ziren epaiketarik gabeko hilketak ere, buruzagi politikoak horrelaxe garbitzen baitzituzten, zaindarien dorreetatik egindako tiroz. Hiletetan orkestrak jotzen zuen, presoez osatutako orkestrak. Ez soilik gauez hil-

dakoak erretzera eramaten zituztenean, SSen jaietan ere behartu egiten zituzten musika jotzera; eta igande arratsaldeetan, eguraldi ona baldin bazen, gatibu guztientzat.

Beethovenen pieza bat entzun zuen lehen aldian barruak hartu zion Roberti. Etxean lagunekin edo Vicekin entzuten zuen musika bera, han Neuengammen. Bazirudien gustuko zutela naziek, gozatu egiten zutela musika harekin. Bere zerbait lapurtu izan baliote bezala sentitu zen Robert, bere iragana zikindu balute bezala; Briseren etxeko entzunaldiak, etxeko liburutegiko bustoak, Hermanen ezkontzako oparia. Eta Beethoven bera jaio zitzaion buruan, 9. Sinfonia Vienan estreinatu zuen egun hura, nolako diru arazoak izan zituen orkestra eta abesbatza lortzeko, nola erregetzaren palkoa hutsik zegoen, nola berak musikariei begira igaro zuen kontzertu osoa. Bukatu zenean, txalo zaparrada betean hasi zen jendea. Beethoven ez zen bueltatu, laguntzaileak ohartarazi behar zion izandako arrakastaz. Maisua orkestrari begira zegoen, musika sortzen zutenengana erne, haien antze moduaz arduraturik, munduan gertatzen ari zenari jaramonik egin gabe.

Pertsona ohitu egiten da egoerarik zailenetara, eta Robert ere moldatuz joan zen Neuengammeko izatera, esparruko diziplina gogorrera. Horretan Ganteko abokatu gazte batek lagundu zion, Andre Manderyncxsek. Erresistentziako buruetako bat zen Neuengammen. Esparrura zetozen burkideez arduratzen zen, bere lan taldean sartzen zituen eta SSengandiko tratu hobea jasotzen zuten horrela. Ez zituzten lan nekagarrienak egin behar, oin bustiekin kanalak eraikitzen, esate baterako. Preso politikoak antolatuta zeuden, eta horrek halako babes ikusezin bat ematen zien gatibuei. Andre bera gerraren hasieran eraman zuten Neuengammera; gezurra zirudien arren, urteak zeramatzan bertan, eta hala edo bestela onik ateratzen jakin zuen. Beteranoetako bat zen Andre, gazte-gaztea izan arren. Trikimailu guztiak zekizkien eremu antzu hartan bizirauteko.

Erresistentziako kide zirenekin jarri zen kontaktuan. Lagun egin zituen Maurice De Graes, Jan Everaert eta Valere Billiet «Max», hura batez ere. Max geologoa zen, irakaslea Ganteko Unibertsitatean. Afrikan Iuzaroan ibilia zen mineralen azterketa egiten.

Atseden uneetan gustuko zuen Robertekin solasean aritzea.

– Afrikan jende asko hiltzen da diamanteengatik –esan zion behin, arkatz txiki bat eskuan zuela–. Baina, funtsean, arkatz baten eta diamante baten oinarrizko elementua bera da, karbonoa. Egoera jakin batzuetan harribitxi bihur daiteke, mineralik gogor eta iraunkorrena. Baina har ezazu arkatz bat: berehala hautsiko da, orri zurian zanpatu bezain laster. Eta horrexegatik, erraz apurtzen delako da posible idazketa. Europan ere, gerra hau sortzeko, eromen hau guztia, baldintza jakin batzuk gertatu behar izan dira, horren zibilizatua uste genuen gure kontinentean. Nik neuk harribitxia baino nahiago dut arkatz txiki hau, honexekin idatz baitezakezu hemen gertatzen ari den guztia. Eta horrek bai iraungo duela diamante batek baino areago.

16

1945, urtarrilak 21.

Errusiarrak Berlindik 150 kilometrora baino ez daude! Badatoz, azkenean, garaipena eta bakea.

Entzuten al nauzu, maitea? Zauden tokian jakizu neure pentsamenduan zaudela. Eutsiozu, neuregatik eta zure alabarengatik. Oso ondo hitz egiten du dago-eneko, eta bizi-bizia da. Aitatxo ikusteko desiratzen dago.

Musu batekin agurtzen gara...

1945, otsailak 2.

Gerrari buruzko berriak ezin hobeak dira. Espero dut martxorako edo apirilerako bukatua izango dela. Zure itzuleraren eguna neure bizitzako zoriontsuena izango da. Ezkondu ginen eguna baino gehiago, gure alabatxoa jaio zena baino gehiago. Bizitza berri bat hasiko dugulako orduan, eta atzean utzi oinaze hau, hutsune hau.

1945, martxoak 12.

Laztana,

gauzak ezin hobeto doaz. Kolonia hartu dugu, aliatuek zubia eraiki duten Rhin ibaiaren gainetik. Presoak itzultzen ari dira Alemaniatik. Aurki izango gara elkarrekin...

1945, martxoak 21.

Bihotza,

badira egun batzuk Montgomeryk erasoa hasi duela Rhin aldean. Aurrerakuntza handiak egin ditu. Frankfurt, Wiesbaden eta Darmstadt erori dira. Une historikoak bizitzen ari gara! Egunero milaka preso itzultzen dira etxera. Eta ni zatozenerako planak egiten ari naiz.

Zure lagunetatik inor ez da ni bisitatzera etorri. Ez dakit zergatik. Akaso ni ez naiz horren garrantzitsua eurentzat. Min ematen du, eskertuko nuke maitasun eta ulermen pitin bat. Eskerrak, gure auzoek, Allinckx senar-emazteek, kasu apur bat egiten didaten eta maiz galdetzen didaten ea eurekin batera afaldu nahi dudan.

Faborez, zator azkar!

Vic

1945, apirilak 19.

Irratian egunero entzuten ditut kontzentrazio esparruetan gertatu diren triskantzak. Milaka lagun hil dira Gestapokoen eskuetan. Non zaude ba? Nolako sufrimendua pairatu behar izan duzu?

Bidali egidazu hitzen bat, ezin dut zu gabe bizi. Mesedez, eutsi torturei, egin edozer gauza etxera bueltatzeko.

Maite zaitugu.

Alabak bakarrik ahaztarazten dio itxaronaldi luzea Vici. Berarekin dagoenean, denborak azkarrago egiten du aurrera. Umea hazten ari da, ikusten duen guztia du ikasbide. Ama negarrez ikusten badu, berak ere negar egiten du amaren ondoan. Otoitz egiten ikusten badu, hark ere, amaren ondoan belaunikatu eta otoitz plantak egingo ditu.

Etxeko zereginak egiten ari delarik, Vicek bistatik galdu du haurra. Egongelan zegoela pentsatu du, baina ez du han aurkitu. Aztoratu egin da. Gelak arakatu eta ezta ere. Halako batean komunera joan da, beldurtuta, bainerara erori eta kolpe txar bat hartuko ote

zuen, laket du-eta umeak bainerara gauzak botatzen ibiltzea.

Komunean topatu du. Kaka egiten, pixontzian, amak agindu bezala. Baina ez eserita, oinak barruan sartu eta tente baino, prakak eta guzti. Umeak irribarre txikia atera dio Vici.

17

Erresistentziako kideekin bat egin zuenetik, nabarmen hobera egin zuen Roberten osasunak. Elkarren babesa lortzeaz gain, arduraren bat izateak eta biharko eginkizunak edukitzeak aurrera jarraitzeko indarra ematen zioten. Gorputzaldi hobez esnatzen hasi zen egunetik egunera.

Erresistentziaren lana askotarikoa zen Neuengammen. Agiri faltsuak lortzen zituzten, eta bahiketa aldiaren azken sasoian baita armak ere, nahiz eta ezin izan zituzten erabili, edo ez ziren ausartu.

Robertek alemanez hitz egiten zuenez, preso politiko alemaniarren lagun egin zen. Haiek ziren gerrari buruz gehien zekitenak, soldaduekin mintzatzeko aukera izaten baitzuten lantzean behin, eta gerraren nondik norakoak kontatzen zizkieten: aliatuak gero eta hurbilago zeudela, berandu baino lehen bukatuko zela eromen hura...

Informazio mota hori presoen artean hedatzea zen Roberten egiteko nagusia. Itxaropena zabaltzea, funtsean. Kontatzea, gutxi falta zela infernua amaitzeko, aste batzuetako kontua izango zela den-denak etxera-

ko bidean jartzea. Eta nazien helburua baitzen presoek buruan heriotzaren mehatxua besterik ez izatea eta denak hilduratuta edukitzea, erresistentzia taldeak hitzez borrokatzen ziren nazien kontra, informazioa zabalduz, adorea bilduz, ahoz aho itxaropena berpiztuz. Hitza zen euren arma arruntetan indartsuena.

Ezkutuan egiten ari zen lan horrek azkartu egin zuen Robert. Jendeari kemen emate horrek eta, bide batez, jakiteak laster egongo zela Vicekin eta Carmenekin, bizipoza suspertu zion. Hermani behinola gutun batean esan zion bezala, Robertentzat bi gauza zeuden bizitzan beste guztien gainetik: «Maitasuna eta Justizia». Eta bi jomuga horiek gogoan zeramatzala eutsi zion Robert Musschek negu latz eta luze hari.

Neuengammeko kontzentrazio esparrua husteko agindua eman zuen Heinrich Himmler komandanteak 1945eko apirilaren 15ean.

Aliatuei oilo ipurdia jartzen zitzaien ikustean askatzen ari ziren esparruetako egoera hitsa. Ez sinestekoak ziren han gertatutakoak. Eta triskantza haien oihartzunak munduan zehar zabaltzen ari zirela-eta, egin-

dako sarraskiak estali nahian deportatuen esparruak husten hasi ziren naziak. Gudaroste aliatuak oso gertu zeudela jabetutakoan, Himmlerrek Alemaniako esparru handiena ebakuatzeko agindua eman zuen: Neuengamme eta 96 esparru sateliteetan zeuden preso guztiak Lubeckeko portura lekualdatzea albait azkarren. Esan eta egin. 1944ko apirilaren 19 eta 26 bitartean 11.000 deportatu heldu ziren Neuengammetik Lubeckera, trenez batzuk, oinez besteak.

Kalkulatzen da beste horrenbeste hil zirela bidean.

Orkestrako kideak deitu eta esparruko sarreran jotzeko agindu diete. Milaka preso igaroko dira euren albotik trenbideetarantz. Eta trenak bete direnean, oinez joateko agindua jasoko dute gainerakoek. Ahalik eta lasterren iritsi behar dute Lubeckera, Himmler presatuta dago Neuengamme husteko.

Bien bitartean soinutan jarraituko du orkestrak, milaka urratsen hotsa estaltzen. Esparrua hutsik geratu denean, musikariak beste inor ez dagoenean bertan, naziek hileta-auto batean sartuko dituzte tresnak eta Hanburgo bidean ipini: biolinak, biolak, kontrabaxuak, tronpetak, tronboiak. Musika tresnak darama-

tzan hileta-autoak zorrotz begiratuta egingo du bide osoa, albo banatara dituela SSen motorbizikletak, eta inork ostu behar ez lukeen altxorra atzealdean.

Lorerik gabeko udaberria zen hura, bedatse hotza. Txikoriaz beteta egon behar lukete belazeek udalehen berantiarrean, baina larreak berde bazeuden ere, lorerik ez bazterretan. Bazirudien loreak ere beldur zirela, lur azpian gorde zituela izuak, edo nor edo nor igitaiarekin ibili zela zelaietan, denak beretzat nahi balitu bezala.

– Gosearen arrastoa da hau, Robert –argitu dio Maxek–. Txikoria loreak jangarriak dira eta horrexegatik ez dago euren arrastorik.

Neuengammetik Lubeckerako bidean, barnealdetik kostalderantz, lurralde laiotz eta hondatua aurkituko dute oinez doazen gatibuek. Bideak zulatuta daude eta osinez josiak. Bazterretan hilotzak botata, aho zabalik, ilberri antzeko begizulo ilunekin. Herriak hutsik, etxeak birrinduta, isiltasuna denean. Urrats itxian egiten dute oinez, gelditu gabe ia. Ez dago atzean geratzerik, atzean geratzen dena tiroz hiltzen dute. Batek baino gehiagok pentsatu du, pausaje baldarrari ezin

eutsirik, hiltzea dela onena, espero lezakeen askapen bakarra heriotza duela, oinazeari orpoa erakustea.

Baserrietatik igarotzean jan bila aritzen dira, erremolatxa eta patata hondarren xerka. Baina baratzeak iraulita daude, lurraren zauriak beren gordinean daude, zolituta, itxi gabe. Asko jota, arbi zulatuak aurkituko dituzte, ustelduak. Manderyncxsek patata azal lizun batzuk idoro ditu eta ahora eraman.

– Ez jan hori, pozoia da –esan dio Maxek.

Lantegi edo eliza abandonatuetan ematen dute gaua. Teilatu zulatuetatik zerua ikusten da, betiko zerua, tinko, ardurarik ez balu bezala behean gertatzen denaz. Elizetako ur bedeinkatu ontziak ere agortuta daude, betazala itxita dutela dirudite urak utzitako orbanari erreparatuz gero. Egarri dira presoak. Herriko emakume batek ura eskaini dio gatibuetako bati, ostikoka hil dute andrea SSek. Edalontziko ura lurrera erori da. Beti ez da horrela. Baserritar bat hurreratu zaio Roberti eta salamia eta ogia eskaini dizkio, «Gure semeari ere berdin laguntzea nahi nuke» esanez. Gorde egin dute janaria, bide luzean zehar gutxika-gutxika murtxikatzeko.

Arima ahoan dutela heldu dira Lubeckera bost eguneko bidea egin eta gero. Zopa baino ez zuten ja-

teko izaten. Asko eta asko galdu dira bidean. Gutxi batzuek ihes egitea lortu dute. SSek tiro egin zieten ihesean zihoazenei, baina zuhaitzek geratu zituzten balak, halako dardarizo bat eragin eta hosto berdeetatik tantak erortzen zirela, euri berantiarra.

Britainia Handiko Armadako hegazkinek ateratako argazkietan Lubeckeko badia itsasontziz betea ageri zen, eta ematen zuen, hura ikusita, alemaniarrak bertan biltzen ari zirela geratzen zitzaien itsas armada osoa, batzuk moilara lotuak eta beste asko badian bertan. Azken hauen artean handiena, *Cap Arcona* transatlantikoa.

Cap Arcona 28.000 tonako luxuzko ontzia zen. 1927an egina, Hanburgotik Rio de Janeiro eta Buenos Airesera egiten zuen bidaia. Ontzi dotore lirain azkarra, huraxe zen Alemaniaren Armadako bitxia. Gerra hasi aurretik kolore zuriz margotuta zegoen, eta gorribeltzez tximiniak. Hego Amerikara lan bila zihoan jendea eramaten zuen bidaietan, baina baita jende aberatsa ere goiko bizkarrean. Sukalderako berrogeita hamar kilo kabiar eta sei mila kilo oilasko zituen. Hans Leip, *Lili Marleen* idatzi zuen poetak, hantxe igaro

zuen eztei bidaia, eta propagandarako film naziak ere errodatu zituzten bertan. Baina gerra abiatu zenean dena aldatu zen; hasieran ofizialentzako gelak moldatu zituzten, eta geroxeago, sobietarrak ekialdeko Alemania hartzen ari ziren neurrian, bi milioi zibil libratzeko erabili zuten.

Orain Lubeckeko badian zetzan ontzi erraldoia, RAFeko hegazkinen argazkietan, kamuflajeko margo gris batera mudatuta, garai bateko xarma hura galduta.

Neuengammeko presoak Lubeckeko portura ailegatu ahala, *Thielbek* izeneko zamaontzian sartzen hasi ziren. Behealdeko sotoetan kokatu zituzten eta han utzi, argirik gabe. Arnasteko ere lanak. Zoruan zulo bat egin zuten eta huraxe zen komunekoak egiteko tokia. Hainbat egunez egon behar izan zuten horrela. Laster gorotzekin bete zen zorua eta jasanezina bihurtu zen kiratsa. Zaindariek une batez zabaltzen zieten atea eta buruen gainetik jaurti janaria. Desiratzen zeuden aire pixka bat hartzeko, zeru urdin zati bat ikusteko.

Thielbek bete zenean, *Athen* ontzia hasi zen gainontzeko presoak *Cap Arcona* handira garraiatzen. Kostaduan jarri zitzaion, baina hango kapitainak ezetz

esan zuen, bere ontzian ez zela gatiburik sartuko. *Athen* gau osoa egon zen zain, *Cap Arcona*ri kontra. Azkenean, lehenago *Athen* ontziko lemazainari bezala, *Cap Arcona*ko kapitainari ere mehatxu egin zioten: fusilatu egingo zituztela bera eta ontzi jabea. Eta baiezkoa eman behar izan zien SSetako ofizialei. Jendea garraiatzeko prestatuta egon arren, ontziak ehunka lagunentzako gelak besterik ez zeuzkan, baina hala eta guztiz 4.600 lagun sarrarazi zituzten barrura. Horiez gain, 600 soldadu SSetakoak.

Sobietarrak *bananen sotora* eraman zituzten, tokirik okerrenera. Zama gordetzen zen biltegian pilatu zituzten. Atetila egunean behin zabaltzen zieten eta arnasa hartzen utzi une batez. Gero, ilunpera berriz ere. Aurki hasi ziren hiltzen batzuk, itota. Bizkarretako salbamendu-gurpil guztiak giltzapean gorde zituzten soldaduek, inork igerian ez ihes egiteko. Salbamendu-txalupak, aldiz, zulatu. Goizero gabarra bat hurreratzen zen kaitik barkura, gauez hildakoak jasotzera.

Hantxe zegoen Robert Mussche ere, *Cap Arcona* transatlantikoko 65. gelan. Neuengammetik zetozen presoak harri eta zur geratu ziren luxuzko ganbera haiek ikusi zituztenean, koadro eta oihal garestiez apainduta baitzeuden. Geletan toki nahikorik ez eta

altzariz hustu zituzten eta lurrean etzateko agindu gatibuei, bata bestearen alboan jartzeko, zur noblezko solairuan.

Ontziko geletatik bonbak entzuten zituzten gauez, urrunean, badatorren ekaitzaren ostotsak entzuten direnean bezala, bolbora bustiaren hotsa eginez. Eztanden argia sartzen zen idi-begietatik, eta gelako horma zuria izarniatzen zuen, gau tximeleta baten hegalen antzera.

Britainia Handiko armada gero eta hurbilago zuten, gutxi barru eroriko zen Lubeck.

– Hitler hil da –esan die Robertek kideei biharamunean.

Maiatzaren lehena zen Führerra hil zela jakin zutenean.

– Bere buruaz beste egin du Berlingo bunkerrean. Soldaduek txil egingo dute berehala. Ez da ezer geratzen gerra bukatzeko.

– Eta matxinatzen bagara? –ausartu da Manderyncxs.

– Zertarako bizitza arriskuan jarri? –bukatu zuen Maxek–. Ez, zain egotea izango da onena. Eurek utzi-

ko dituzte armak. Bi edo hiru eguneko kontua izango da, ikusiko duzue.

Ez dago argi zer egiten zuten preso haiek guztiek Lubeckeko badian ontzi haietan pilaturik. Alemanen xedea gatibuak Norvegia aldera eramatea ote zen, nazien aldekoa baitzen orduan Norvegia, edo hantxe bertan hondoratu nahi zituzten ontziak itsaspekoen bidez, egindako basakeriaren frogarik ez uztearren.

Bitartean, izenik gabeko eskutitz bat iritsi zen Lubeckeko suediarren Gurutze Gorriaren egoitzara. Gutunean adierazten zen, milaka gatibu zeudela hiru ontzietan, eta beranduegi izan baino lehen haien kargu hartu behar lukeela norbaitek.

Gurutze Gorrikoak nazien agintariekin batzartu ziren. Ez zegoen ezer egiterik juduekin eta sobietarrekin, hori argi ere argi utzi zuten naziek; baina, gaitz erdi, beharbada preso politiko batzuk askatzeko egokiera izango zen. Azken beltzean, naziek eurek ere bazekiten gerra bukatuko zela, eta nolabaiteko keinu gizatiarra eginez, frantziarrak libratzea erabaki zuten.

Milaka batek utzi zituen ontziak eta lehorreratu ziren. Gainontzeko presoak ere ahalegindu ziren fran-

tsesak zirela frogatzen, frantsesez zekizkiten hitz apurrak murduskatuz, debalde. Horretan ahalegindu zirenak exekutatuak izan ziren.

18

1945, maiatzak 11.

Maitea,

hainbeste berri idatzi nizun azken aldian. BAKEA heldu da azkenean! Gure bizitza aldatuko du hitz horrek. Maiatzaren 8a, sekula ahaztuko ez dudan eguna.

Zure berririk ez oraindik. Dena den, jakin badakit bizirik zaudela eta hitzok irakurriko dituzula noizbait...

1945, maiatzak 13.

Gaur berriz ere hainbat preso politiko ailegatu dira Gantera. Ez dago hitzik adierazteko zer ari naizen bizitzen eta zenbat sufritzen dudan. Hain zara ausarta, bidali egidazu, mesedez, keinuren bat. Noizbait itzuliko zara eta orduan ez gara bananduko, sekula.

Gaur Minnaert buruzagi komunista iritsiko da Gantera. Agian jakingo du zerbait zutaz. Hauetako egun batean izango dut zure berri eta hain zoriontsua izango naiz orduan...

Vic eta Carmen

1945, maiatzak 14.

Gaur egun oso urduria izan dut. Goizean jakin dut Roels jauna onik heldu dela etxera. Zurekin batera zegoen Alemaniara eraman zintuen tren horretan, 1944ko irailean. Baina bestalde, arratsaldean jakin dut hondoratu zen ontzi horren berri, 9.000 lagun zituela barruan. 450 baino ez ziren salbatu. Ontzi horretan al zeunden? Hau galdera beldurgarria. Noiz arte iraungo du tortura honek...

Trankildu egin behar dut, pentsamendu gaiztoak uxatu. Laster izango zara etxean.

Zugatik egiten dugu otoitz, laztana.

Zure Vic

PD: Oraintxe jakin dut preso politiko baten ahotik, ondo zeundela apirilaren 9an, osasun onean. Jainkoari eskerrak!

Agi denean, esparruetatik zetozen presoei buruzko albisteak nahasiak ziren. Etxera onik itzuli ziren Minnaert eta Roelsi galdetu arren, Vicek ez zuen Roberten aztarnarik atera. Carmenek esandakoaren arabera, Minnaert buruzagi komunista oso ezaguna zen Erresistentziako kideen artean. Brujasen jaioa, flandriera

hiztunen eskubideen alde egin zuen gaztetandik. Hori dela-eta, Alemaniaren alde azaldu zen Lehen Mundu Gerran, eta haien babesarekin sortu zuen unibertsitate flandriarra. Aitzitik, traidoretzat jo zuten gerra bukatu ondoren eta Holandara joan zen bizitzera. Astrofisikan espezializatu zen han, Bigarren Mundu Gerra heldu zen arte. Orduan komunista bilakatu zen, garaiko beste intelektual ugari legez. Damurik, Minnaertek ez zeukan Roberti buruzko berririk, Neuengammera eraman zutela bai, baina gauza garbirik ez.

Roels, bestalde, Neuengammera zihoan trenetik botatako papertxoan ageri zen huraxe bera zen. Ifrentzuan Roelsen izena, aurkian Robertena. «Alles Goed» idatzi zuten orduan, *dena ongi*, baina Vic zalantza batean bizi zen presoak Gantera iristen hasi zirenetik, benetan dena ongi egongo ote zen pentsatzen. Itzuli berriek albiste on gutxi izaten zituzten deportatuei buruz, eta notizia txarrak jakin arren, maiz, nahiago izaten zuten isildu, gurago zuten aurrera begiratu, «Noizbait jakingo du, zergatik esango diot ezer nik orain?», beren kabutan onartuta.

Halako batean Vici hots egin zioten, kontatzeko gizon batek irratira deitu zuela, esanez Robert Mussche zela, bizirik eta sano zegoela, laster izango zela

etxean. Vic bizkortu egin zen orduan, Robertek dei hori nondik egin zuen jakin nahian hasi ziren bera eta lagunak. Herman behin baino gehiagotan joan zen Itzulera Mandataritzara, Roberten izena itzulitakoen zerrendaren batean ba ote zetorren jakitera, baina goitik behera arakatu zituzten zerrenda guztiak eta ez zuten lagunaren arrastorik topatu. Irratiko Robert Mussche hura beste norbait izango bide zen; gaizki ulertuko zuten, Mussche esan beharrean Mensche esango zuen, auskalo.

1945, ekainak 7.

Hain arduratuta nago zugatik! Zenbat preso iritsi diren eta zure berririk ez oraindik. Ekainean gaude, bada hilabete oso bat gerra bukatu zela. Zure berri jakiteko esperoan nago. Beste guztiek uste dute ez zarela sekula itzuliko. Nik bakarrik. Gogoan duzu? Duela urtebete elkarrekin ginen. Inoiz joan izan ez bazina, ez ginatekeen orain horren egoera larrian. Zure argazkiari begiratzen diot eta lasaitu egiten nauzu. Itxaropena eman. Eta neu ere itxaropentsu jartzen naiz, baina beste batzuetan hain beldurtuta sentitzen naiz, hain galduta.

Albiste txarrak eman behar dizkizut. Vereecken jauna hil egin zuten 1944ko azaroaren 3an. Zopa burruntzali batengatik kolpatu egin zuten naziek. Zapuztuta dago bere andrea.

Zuri ezin zaizu horrelakorik gertatu, oraindik ere badut itxaropena. Nire indar guztiekin pentsatzen dut nire beso artean egongo zarela egun hauetako batean.

19

1945eko maiatzaren 3an RAFeko miaketa hegazkin batek Lubeckeko badia zeharkatu du, oso goitik, kanoi antiaereoek ez jotzeko moduan. *Cap Arconako* gatibuek besoak mugitu dituzte hantxe daudela oharta-razteko, laguntza eskean eta askatzeko aldarrika. Gerraontzi alemaniarrak tiroka hasi zaizkio hegazkinari eta abioia itzuli egin da, konturatu gabe han behean milaka preso daudela.

Lurra hartu dutenean, pilotuak honela idatzi du txostenean: «Kostaldetik egin dugu hegan. Ez sinestekoa da zenbat ontzi zegoen badian. Gaur arte oso gutxi ikusi ditugu. Ematen du denak bildu dituztela han. Denetarik zegoen: zamaontziak, patruilak. Eta itsaspeko ilara luze bat, bata bestearen ondoan paratuta».

Inteligentzi zerbitzu britainiarra susmoa hartuta zegoen, naziek Norvegia aldera egin nahi zutela, bertan indarrak osatu eta gerra handik jarraitzeko. Kosta ahala kosta ekidin behar zen asmo hura. Nazien ihesaldia eten eta gerra azkar bukatu, horixe izan zen Winston Churchillen agindua.

Arratsaldeko hiru eta erdietan 184 eskuadroiko lau Thyphoon hegazkinek hasi dute erasoa. Alemaniarrek bandera zuriak ipinita dituzte euren soldaduen txalupetan, baina ez dute nazien bandera gorria erriatu gatibuak dauden ontzietatik. *Cap Arcona* bete-betean harrapatuko du erasoak. Thyphoon hegazkinek jaurtitako hirurogeita bi misiletatik berrogeik zuzenean joko dute ontziaren flotatze lerroan. SSak eta presoak geletatik bizkarrera atera dira aztoratuta. Gatibuetako batzuk, nahasmena profitatuz, beheko sotoan dauden errusiarrak askatzen ahaleginduko dira. Baina hilda daude ia denak. Hogeita lau ordu zeramatzaten deus ere jan gabe, eta oso ahul ezertarako. Lehenengo eraso hark sortutako beroak ito egin ditu. Maxek lortu du salbamendu-gurpilak gordeta zeuden ganberako atea zabaltzea eta haiek banatzen hasi da presoen artean. SS batek hura ikusi eta tiroz hil du. Manderyncxs su-itzalgailu batekin ahalegindu da sua amatatzen baina muturreko hodia etenda dutela konturatu da. Zarata handi bat, lurrikara baten antzeko zerbait sentitu dute oinpean. Bigarren eraso bat izan da. Arropak sutan dituzte presoek. Goiko geletakoek hildako eta zaurituen gainetik egiten dute korrika, bi-

zitza salbatu nahian, lagunen gorpuen gainetik, sentituz nola hausten diren kideen burezurrak zapaldutakoan. Gorpuen alfonbra gorri bat da *Cap Arcona*ko karela. SS batzuek salbamendu-txalupa batean jaitsi nahi izan dute baina irauli egin da airean eta itsasora erori dira. Beste SS batzuek lortu dute, hala edo bestela, salbamendu-txalupa egoki jaistea. «Errusiarra» izeneko kapoa igerian hurbildu zaie eta barrura igotzeko erregutu die. Bekokian pistola jarri eta tiro egin dio barruko batek. Presoek kareletik jauzi egin beharra dute baina bultzatu egiten dituzte eta askok kroskoaren kontra egiten dute talka. Oholezko mahaiak, bankuak, altzariak jaurtitzen dituzte uretara itsasoan igerian daudenen gainera. Gero sokekin jaisten ahaleginduko dira. Lehen erasotik ordu betera, ontziak albo batera egingo du. Ehunka pertsona jausi dira itsasora; haien artean Manderyncxs: ainguraren aurka jo du eta uretan datza zerraldo. Ur azala jendez gainezka dago, batzuk hilda, beste batzuk ezinean. Ia ez da ur azalik nabari, dena arropa bustia, buru dardaratiak. Ikaragarri hotz dago ura eta igeri egiteko indarrik daukanak barkura igo nahi du bueltan. Karelera lotzen saiatzen dira txikotekin edo mantekin, baina barkuko kroskoa gero eta beroagoa dago, galdatzen hasi da eta ezin

diote eutsi. *Cap Arcona* labe itzel bat da barrutik. Itota baino jende gehiago hilko da barruan erreta.

Hiru orduren ondoren geratu zen erasoa. *Cap Arcona*n zeuden 6.400 gatibuetatik 4.250 hil ziren eraso hartan. Seiehun SSetako guardietatik bostehun atera ziren onik. Txalupetara igota salbatu ziren. Aitzitik, igeri egin behar izan zuten presoen patua ez zen xamurra izan. Asko ito egin ziren kostara iritsi nahian, arrantza-ontziek alemaniarrak baino ez baitzituzten karelera igotzen. Egon zen alemanez mintzoka salbatu zenik. Baina igeri egin eta lehorrera helduz gero ere ez zen agonia bukatzen. SS nerabeak, Neustadt itsas eskoletako kadeteak, hamasei urteko gaztetxoak, fusilekin zain zeuden hondartzetara igerian zetozen presoak noiz iritsiko. Neka-neka eginda lehorreratu, hantxe tirokatuta hiltzeko. Egarriz ailegatzen ziren itsasertzera presoak, zenbait egunetan ia ezer edan gabe, erasoaren sua jasan eta gero igeri egin ondoren. Ura erregutzen zieten SSetako soldaduei, ura faborez. Haiek ezetz, lurrean etzanda geldirik egoteko. Izan omen zen bat, etsita, esku-ahurrak urertzeko kresalaz bete eta edan egin zuena. Hil egin zuten.

Handik gutxira, Armada britainiarrak portua eta hondartzak hartzea erdietsi zuen. Alemaniarrek armak utzi zituzten. Hondartzan bertan, harean zuloak egiteko agindu zieten irabazleek. Aiztoak hartu eta hondarra zulatzen hasi ziren SSetako kadeteak. Beldur ziren jo eta bertan garbituko ote zituzten, naziek maiz egin ohi zuten antzera: zuloa eginarazi eta barrura. Baina ez, ordukoan bestelakoa zen xedea: itsasoak zekartzan milaka gorpuak hobiratzeko ziren. Geroztik, ia hogei urtez gorpuak itzultzen aritu zen Baltikoa.

*Cap Arcona*ren hondoratu osteko laugarren egunean, maiatzaren 7an, Alemania nazia baldintzarik gabe errenditu da.

Robert 65. ganberan ikusiko dute lagunek azken aldiz. Ez da handik irtengo. Lehen erasoan bertan, jaurtigai batek larriki zauritu eta lurrera eroriko da, eztandaren ondorioz hormatik amildu den koadro baten albora. Koadroan neskato bat ageri da, lo. Robertek begiak itxiko ditu eta neskatoak bere esku txikiaz laztandu egingo dio masaila, «Aita, aita» esanez. Irribarre bat izango da Roberten azken keinua.

Bezperan, maiatzaren 2an, Suediako Gurutze Gorriaren bitartez jakin zuen Britainia Handiko inteligentziak, milaka gatibuz beteta zeudela badiako ontziak. Presazko mezu bat bidali zuten egoitza nagusira, galdeginez bertan behera uzteko erasoa. Damurik, RAFeko hegalariei ez zitzaien halako mezurik iritsi. Akats baten erruz izan omen zen, ia 7.500 hildako eragin zituen akats administratiboa.

Cap Arcona eta *Thielbek* ontzietan zeuden 7.300 gatibuetatik 366 soilik atera ziren onik. *Athen* ontziko 1.998ak libratu egin ziren, hura ez baitzuten eraso. Inoiz izan den itsas galerarik handienetakoa gertatu zen 1945eko maiatzaren hirugarren hartan Lubecken. Eta duela gutxi arte isildua izan da. Historia liburuetan ez zen ageri, garaipena loriatu nahi zuten historia liburu haietan.

Uste dute *Cap Arcona* badian bertan birrintzea zela nazien asmoa, urpeko ontzien torpedoekin, baina hori ez da sekula argitu. RAFek onartu egin bazuen ere akatsa eurena izan zela, egundo ez da barkamen ingeles ofizialik eskatu. Garaiko prentsak garaipen baten gisa saldu zuen *Cap Arcona*ren deskalabrua, itsas

bataila garrantzitsu batean gailendu balira bezala, Nelson almirantearen garaian legez. Ez zuten deus esan hildako milaka presoei buruzko desmasiaz. 1950 arte *Cap Arcona* badian egon zen, bistara, Baltikoko urak ez baitira hain sakonak. Ez zen hondoratu. Zatitu eta txatarrerako erabili zuten altzairua.

Thielbek ontzia, berriz, hondotik atera, konpondu eta saldu egin zuten, *Reinbeck* izen berria jarrita. Urte batzuen buruan Spliteko ontzioletan desegin zuten, eta hura zatitzen hasi zirenean gorpuzkinak aurkitu zituzten gilan.

20

1945, uztailak 29.

Laztana,

zapuztuta nago barrutik eta erabat triste, hala ere, zurekin hitz egin beharra daukat. Bai, maitea, ez zaitut SEKULA berriz ikusiko. Baina horren hurbil gaude espiritualki, ezen zure presentzia nabari baitut egunero. Pasatuko al zait egunen batean barrutik erretzen nauen min hau? Hain zait zaila imajinatzea ez zarela gurekin egongo. Baina zure berririk jasotzen ez dudanez, txarrena onartu behar dut.

Gaurkoa egun zaila izan da. Valere Billiet «Max» irakaslearen aldeko mezara joan naiz. Han esan dute, bizitza galdu duten edo desagertu diren horiek guztiak gurekin daudela, pertsona handiak zirela bizirik zeudenean eta baita orain ere, sakrifikatu direlako mundu hobe baten alde. Bai, maitea, zuk zeure bizitza eta zoriontasuna eman zenituen bizitza hobe baten alde. Eta horrelako heriotza ezin da alferrikakoa izan.

Zuk erakutsi zenidan nola bizi, erakutsi orain zu gabe bizitzen. Gure alabarengatik, denongatik.

Zure ideien arabera heziko dut alaba, eta esango diot nolako gizon zoragarria zinen. Berak beti maitasunez eta begirunez esango du «Aita». Erakutsiko diot pertsona ona izaten, bere aita bezala.

Badakizu?, zertxobait trankilago nago orain eta atseden pixka bat hartuko dut. Arren, ager zaitez neure ametsetan, zoriontasun une bat izan dezadan.

Musu goxo bat, beti zure emazte izango den,

Vicek

Carmen alabari urte asko geroago kontatu zion legez, zinemara joandako egun batean, filmen aurretik botatzen zuten albistegian *Cap Arcona* ontzian zer gertatu zen ikusi zuen Vicek. Barrua hartu zion kontakizunak. Horrenbeste mila preso hilda. Bazekien Lubeck Hanburgotik hurre zegoela, baina artean ez zekien ezer Roberti buruz, ez zekien nondik nora zebilen, eta ez zuen susmatu ere egin itsasontzi hartan izango zenik.

Vicek ez zuen berandu arte jakin Robert Neuengammen egona zela. Gurutze Gorrira hainbatetan idatzi zuen, esanez gizona Alemaniara eraman zutela baina ez zekiela nora, eta, arren, emateko arrastoren

bat. Zantzurik ez, Gurutze Gorriak ez zion inoiz erantzun.

Vicek 1946ko maiatzaren 26an utziko dio bere egunerokoan idazteari. Urte osoa egon da lerrorik idatzi gabe, baina gogotsu hartu du luma azken aldi honetan. Ematen du amorruz dagoela, igarotako guztiak zentzurik ez balu bezala, idatzitakoak, bizitakoak.

Alaba ez duela behar bezala zaintzen onartzen du, gaizki hezten ari dela, eta mundua ez doala uste zuten bezain ongi. Izan ere, non dago elkarrekin amestu zuten mundu eder hura? Gizateriak bonba atomikoa asmatu du, aliatuek sekulako triskantza egin dute Japonian bakearen izenean. Zer etorkizun datorkio gure alabari halako mehatxu bat izanda. Gerra hotzaren hasiera da, garai bateko aliatuak elkarren aurka ari dira. Munduak ez du elkartasunean pentsatzen, bakoitza bere buruaz baino ez da arduratzen, aberasteaz, posizio on bat lortzeaz, besterik ez.

Eta non daude sasoi bateko adiskideak? Vicek ez du harremanik Roberten aspaldiko lagunekin. Intelektualak ahaztu egin dira. Eta gainera, Gobernuak ez dio oraindik alarguntzako dirurik ordaindu.

Inpotentziatik jaiotako hitzak idatziko ditu Vicek, senarrari zuzendutako egunkariaren azken orrian.

Vicek Anberesko kartzelan jaso zuen Roberten ondasun guztia. Eskuko erlojua, hori besterik ez. Horixe geratu zen trena hartu zuen gizonarengandik: erloju zahar bat, laukizuzena, estilizatua, larruzko ubelaren jarraipena balitz bezala. Zilarrezkoa du kutxa eta zenbakiak hiru puntutan soilik. 9, 12, 3. Seia beharko zuen tokian segundoak markatzen dituen beste erlojutxo bat dago. Orratz handia geldituta dauka, hirurak baino zertxobait gorago. Orratz txikirik ez du. Hautsi egin zitzaion. Kanpoko beira zartatuta dauka, baina ez da zulorik ageri. Hirurak baino minutu batzuk lehenago gelditu zen erlojua, gaur arte.

Anberesko torturetan kendu zioten erlojua Roberti eta ez zioten bueltatu. Zertarako, Alemanian ez zuen beharko. Papertxo batekin gorde zuten erlojua. Dena ondo antolatuta zuten naziek, baita heriotza ere. Paperean presoaren izena eta jaioteguna azaltzen da eta ondasunaren deskripzioa.

Name: Robert Mussche.

Geb.: 7-11-12

Inhalt: N 115.

1 armbanduhr, weiss, mit lederband.

Neuengammeko burua, Max Pauly, epaitu eta urkatu egin zuten. Baina beste ofizial asko ez zuten epaitu ere egin. Gezurra dirudien arren, Neuengammek kartzela izaten jarraitu zuen 2006. urtera arte. Lehenengo oroimenezko monumentua 1953an inauguratu zen, bertan hildako umeak gogoratuz. Ia berrogeita hamar urte igaro behar izan zuten han preso izandako guztien omenez behar bezalako memoriala eta museoa eraikitzeko. 2005ean zabaldu zutenean gonbidatu zituzten Carmen Mussche eta Marc, bere senarra, bizirik zeudenekin eta gainerako presoen senitartekoekin batera. Hirurogei urte beranduago.

Aita galtzearen oinazea handituz joan da Carmenengan urteak pasatu ahala. Bere buruari galdetzen dio nolakoa izango ote zen bere bizitza aita itzuli balitz. Baina, batez ere, Roberten hilobi faltaren hutsunea du, nora jo goibel eta hondatuta sentitzen denean, edo berri on bat eman nahi dionean.

21

Atea jo dute Paul Fredericq Straat kaleko etxean. Vic harritu egin da nor datorren zulotxotik ikusi duenean. Herman. Aspaldi da handik igarotzen ez dela. Une batez zalantza egin ostean, atea zabaldu dio.

Hermani inoiz baino ederragoa begitandu zaio Vic. Azal zurian ezpainak gorri-gorri ditu. Begiak urdin, akitu samar, baina neke horrek halako dotorezia bat ematen dio.

– Badakit zer pasatu duzun...

– Inork ez daki hori. Ezta neuk ere. Eskerrak umea hor neukala. Laguntasun handia eman dit txikiak.

Vic besarkatzeko gogo bizia piztu zaio Hermani. Bere bularren kontra estutu eta musuka hasi, lepoan, ezpainetan, titietan.

– Zerk ekarri zaitu hona? Luzaroan ez dut zure berri izan. Garai bateko lagunak, denak desagertuta...

Hermanek pentsatu du esatea maitasunak ekarri duela bertara, edo babes premiak, edo hutsuneak, lagun minaren emaztea besoetan hartzeko gogoak, bere gorputz osoa laztantzeko desirak. Eromena izango litzateke hura, atsegale soila edo botere nahia,

nork daki; eta hala ere, Vici keinuren bat sentitu izan balio, onarpen seinale bat, hantxe bertan joko zuten larrua.

– Roberti buruzko liburu bat idatzi dut eta lehenengo alea zuretzat izatea nahi nuen –esan dio, liburua zorrotik ateratzeaz batera–. *In memoriam Robert Mussche* jarri diot. Ez da gauza handia, baina...

Vicek ez zuen halakorik espero. Liburua eskuetan hartu eta azala ferekatzen egon da une batez. Gorritu egin zaizkio begiak. Gero, burua jaso eta adio esan dio amultsuki:

– Tira, umea gobernatu behar dut orain... Hurrengora arte.

«Urteak aurrera doaz, adiskidea, dagoeneko ez naiz hain gaztea. Gaztetan aurre egiten diezu eraso guztiei, indar hori daukazu, ematen du mundua txikia dela, eta zure indarrarekin mugiaraziko duzula. Hain gara inozoak ezen uste dugun munduaren erdigunea gu geu garela. Baina orain faltan daukat indar hori, orain, besterik gabe, iraun egiten dut. Askotan, neure burua uzten dut denboraren joanean, ohean etzan eta hantxe geratzen naiz, berriz altxatu nahiko ez banu

bezala. Ez dut bizitzaren erasoei erantzuteko kemenik, jaso egiten ditut ziztadak, pixkanaka pertsona bezala hilko nautenak. Senarrak kolpatzen duen emakumea bezala, lehoiaren atzaparretan erori den oreinkumea bezala. Ai, Robert, zure indarra banu... Moldatu egiten naiz orain, horixe da gazte ez izatearen ezaugarrietako bat. Eta pixkanaka neure lekua galtzen ari naiz munduan. Beldurrak ere ikaragarri areagotu dira. Gazteekin mesfidantza dut, idazle gorrotagarritzat naukate. Robert, zuk beste adore bat zeneukan, nola botatzen ditudan faltan zure hitzak. Hainbeste gauza joan ziren zurekin. Gogoan al duzu? Anaiak ginela pentsatzen zuten sarritan lagun berriek. Oostduinkerkera joan ginenean bezala, Herman eta Robert, anaiak. Ezetz esaten genuenean harritu egiten ziren: «Keinu berberak dituzue-eta!». Eta egia zen, oraindik ere nire argazkiak ikusten ditudanean ikusi egiten zaitut batzuetan, zure keinuak nire aurpegian. Eta hitz egiten dudanean, neure buruari esaten diot: «Ene, hau Robert da». Zuk bizitza galdu zenuen, unerik ederrenean, eta nik batzuetan sentitzen dut hiltzea ere ez zela latza izango niretzat, amatatzen joatea. Ez dizkidazu barkatuko hitzok; gerrari aurre egin zenion, zuk, nire lagunik onenak, bizitza eman zenuen, eta nik

orain ez dut bizi nahi. Behin baino gehiagotan pentsatzen dut, heriotza iragankorra balitz neuk ere nahi nukeela bere altzoan erori, egun batzuetan bizitzeari utzi, hilabete batzuez. Hori, heriotza iragankorra balitz. Gogaituta nago oinaze hau nozitzeaz, barruko zulotzar hau. 'Izan al daiteke zoriontsuagorik?', pentsatu nuen behin, zu besarkatuta, arrantzaleen etxetxo hartan. Bada, izan al liteke hutsune handiagorik, nik orain sentitzen dudana baino, Robert?».

Hermanek orri batean idatzi ditu hitzok, idazketari trabarik jarri gabe, bigarrenean pentsatu gabe, sukar batek hartuta bezala. Eta ondoren hautsi egin du papera, lau zatitan. Besoak gurutzatu ditu idazmahaiaren gainean eta burua etzan du gero besoetan. Goiko gelan dago, bakarrik, leiho ondoan, baina gauak ez dio kanala ikusten uzten. Leihoaren kristalak bere aurpegia besterik ez du islatzen.

Txinako poema zahar batek dio, bi pertsonak biziki maite dutenean, elkarri horren lotuta egon direnean eta biotako bat hil, benetan hiltzen dena oinez jarraitzen duen hura dela.

HIRUGARREN ZATIA

22

Carmen Mussche, bizitza osoan, haurtzaroko itsas galeratik iristen zitzaizkion gauzak metatzen ibili da, eta bere bihotzaren balkoiko zulotxoetan gordetzen, umetan Paul Fredericq Straateko etxean egiten zuen gisara.

Neuengammeko esparruaren berrogeita hamargarren urteurrenean, Lubeckera laguntzeko eskatu zion Marc senarrari, hantxe ito zela aita eta eskertuko lukeela bere konpainia. Ordura arte Carmenek ez zion aitari buruzko aipamenik egin izan senarrari. 1995ean hasi zen aitaren paperak miatzen eta benetan zer gertatu zitzaion ikertzen. Amak, Vicek, den-dena gordeta zeukan kutxetan: liburuak, gutunak, argazkiak, dena. Bizitza oso bat, kartoizko kutxen barruan.

Marc eta biak Neuengammera joan zirenean, jazoera bitxi bat izan zuen Carmenek. Neuengammetik Lubeckeko portura oinez egindako ibilaldi luze eta agoniazko harekin du zerikusia.

Milaka preso oinez gau eta egun, atseden hartzeko astirik gabe. Ibilaldi hartan parte hartu zutenen artean baziren bi anaia poloniar, leherrenak eginda, ahi-

tuta, lur jota zeudenak. Ez zuten uste Lubeckera bizirik iritsiko zirenik. Halako batean, gazte frantses bat kantari hasi zen, haur kanta bat abesten, *À la claire fontaine*.

À la claire fontaine,
M’en allant promener,
J’ai trouvé l’eau si belle
Que je m’y suis baigné.

Il y a longtemps que je t’aime,
Jamais je ne t’oublierai.

Kanta horren errepika etengabeari esker heriotzatik libratu ziren preso asko eta asko. Haren erritmora hasi ziren oinez, indarberritu egin ziren kanta xalo hura abesten zuen gaztearen ahotsarekin.

Berrogeita hamar urte geroago, poloniarretako bat, urteetan sartua, beterano frantsesen taldera hurreratu da eta hasi zaie kantari: À la claire fontaine, m’en allant promener... agian baten batek jarraituko diolakoan.

Agure zaharretako bat jiratu egin da kanta entzun baiko. Harako gazte frantses hura bera da! Elkar besarkatu dute mende erdi baten ondoren.

Estutasun handiarekin gogoratzen zituen aita hil ondorengo urteak Carmenek. Anberesera bizitzera joatea erabaki zuen amak, bere familiaren babesa idoro guran, eta Carmen amonarekin geratu zen Ganten, Roberten amarekin, Vicek senarrari emandako hitza bete nahi zuen-eta, alegia, umea Ganten haziko zela eta hantxe egingo zituela ikasketak.

Amarengandik aldentzea latza izan zen umearentzat. Zain egoten zen autobus geltokian, Anberestik noiz etorriko. Eta busetik berehala jaisten ez bazen, larritzen hasten zen Carmen, pentsatuz ama ez zela bere bila bueltatu. Baina Vic hantxe izaten zen beti. Ganten amarekin paseoan zebilela, tranbiaren bat igarotzen bazen, iruditzen zitzaion ama hartara igo eta joan egingo zela betiko. Azkenean, minak gainditu zituenean, Anberes utzi eta Gantera itzultzea erabaki zuen Vicek, alabaren ondora. Unibertsitateko jantokian sukaldari lanetan jardun zuen erretiratu zen arte.

– Zure ama berriro maitemindu al zen inoiz? –galdetu diot lotsa apur batekin Carmeni.

– Bai, beste gizon bat izan zen Vicen bizitzan. Medikua zen, gizon ona, zinez. Gogoan daukat oso atsegina zela nirekin. Edonola ere, familia katoliko hertsi batetik zetorren eta ez zuten Vic begi onez ikusten, haur baten ama alarguna... Bertan behera utzi zuten harremana, nahiz eta gerora gizon hori nire bizitzako gertakari garrantzitsu guztietara agertu izan den. Ezkondu nintzen egunean, hantxe zegoen elizan, atzealdean eserita. Nire bi umeak jaio direnean ere zorionztzera joan zait ospitalera.

– Beste norbaitekin ezkonduko zen medikua.

– Ez dut uste.

– Damutu zitzaion zure amarekin ez jarraitu izana.

– Bai, seguru. Edozein modutan, amak halako lasaitu bat ere hartu zuen harremana eten zenean. Tinko besarkatu eta esan zidan: «Gu biok elkarrekin hemendik aurrera, Carmen; gizonik gabe, gu biok bakarrik». Eta hitza bete zuen. Harreman estu-estua izan dugu harrezkero. Zahartu zenean geurera etorri zen bizitzera, Lochristira. Emakume alaia zen. Ez zidan sekula erreminik adierazi, hori, bizitzan pasatu zuen guztia pasatu eta gero.

Carmen eta Marc kontzertu klasiko batez gozatzera joan ziren Ganteko Bijloke musika aretora 2006ko abenduaren 10ean. Michael Haydnen sinfonia bat interpretatu behar zuten, Florian Heyericken zuzendaritzapean. Kontzertua hasi baino lehen Heyerick entzuleei mintzatu zitzaielarik, hainbat konturen artean esan zuen bere amak, Dora Mahyk, konpositorearen biografia itzuli zuela alemanetik nederlanderara eta eskuragai zegoela aretoko atarian paratutako mahaitxoan.

– Dora Mahy esan al du? –galdetu zion Carmenek Marci.

– Hala iruditu zait.

Carmenek aitaren paperetan irakurria zuelako egin zitzaion izen ezaguna. «Hori da!, Ferrerlaan kalean bizi zen Dora Mahy, aitaren kale berean», esan zion Marci, «hamar bat urte gazteagoa izango zen». Carmenek bazekien Robert eta Dora oso lagunak izan zirela. Emakume horren gutunak zeuden etxean, aita Espainiako Gerran izan zen garaikoak, hain zuzen. Beraz, pentsatu zuen Carmenek, Karmentxu Cundin ere ezagutuko zuen seguruenik.

Atsedenaldian atariko mahaitxora hurreratu zen. Liburuak saltzen ari zen gazteari galdetu zion Doraz, artean jakin gabe mutil hura iloba zuela.

– Hantxe dagoen emakume nagusia da Dora –erantzun zion mutilak.

Laurogeita bost urte pasatuak izango zituen, baina emakume dotorea zen oraindik. Senarraren alboan eserita zegoen. Hura ere itxura oneko gizona.

– Dora Mahy?

– Berbera.

– Carmen Mussche, Roberten alaba.

– Jainkoarren, ezin dut sinetsi! –Dorak aurpegira eraman zituen bi eskuak.

Bazter batera gidatu zuen Carmen eta gauza ugari kontatu zizkion. Bere senarra legelari gaztea zenean Belgikako Gerrako Biktimen idazkaritzan lan egin zuela. Roberten gorpua aurkitu ez zutenez, Vicek ezin izan zuela Gobernuaren diru-laguntza jaso. Urteak itxaron behar izan zuen, baina azkenean eman zioten, Doraren senarraren laguntzari esker. Bila eta bila aritu ziren agirietan eta frogatu ahal izan zuten Robertek Lubecken galdu zuela bizia.

– Zure ama Anberesera bizitzera joan zenean galdu genuen harremana –azaldu zion Dorak.

– Eta gomutan ote daukazu Karmentxu izeneko neskatila bat?

– Noski, ondo baino hobeto. Errepublikako kantak kantatzen ibiltzen ginen egun osoa! –eta kantari hasi zitzaion, ahots fin-fin batekin eta oso apal, begirada urrunean jarrita.

Atsedenaldiaren bukaera iragarri zuten. Kontzertuaren bigarren zatiak hasi behar zuen.

– Etorri etxera egun batean –gonbidatu zuen Dorak–. Gauza bat eman behar dizut.

Bisitan joan zitzaionean Dora Mahyk zapi bat atera zuen gerezi oholezko komoda batetik. Lau toles egin-da zegoen zapia. Kontu handiz zabaldu eta brodatu txiki bat atera zuen barrutik.

– Karta batekin batera bidali zuen Karmentxuk Bilbotik, esker ona adierazteko. Begira zeinen ondo josita dagoen! Gutun bat ere igorri zigun. Flandrieraz idatzi zuen gaixoak. Gogoratzen zen oraindik hizkuntzaz. Hiru lau hitz ziren, esateko ondo zegoela, ez kezkatzeko. Baina hitzekin baino, brodatuarekin adierazi zuen hobeto, bere esku txikiez egindako oihal honekin. Eta ordutik aurrera, isiltasuna. Kontaktua galdu genuen.

Gure bizitzako Carmen biak desagertu egin ziren... gaur arte.

Carmenek Karmentxuren brodatua hartu zuen esku ikaratietan eta eztiro laztantzen egon zen hatz lodiarekin.

– Har ezazu zuretzat –eskaini zion Dorak.

– Ez, ez dagokit niri. Zuri bidali zizun. Zaindu ezazu orain arte bezala.

Adio unean, ate ondoan, Dorak aitortu zion:

– Nik benetan maite izan nuen zure aita, Robert. Tamalez, berak beste asmo batzuk zituen. Hasieran ez genuen ondo ikusi zure amarekin hastea. Denok inbidiatan geunden pixka bat. Baina orain ziur naiz Vic baino hoberik ez zegoela. Onena aukeratu zuen.

Carmenek opari eman zizkion Dorari, gaztetan Roberti bidali izan zizkion gutun zaharrak, aitaren kutxak miatzean aurkitu zituenak. Pozarren jaso zituen Dorak. Eta trukean, Dorak azken urteetako poema bat erakutsi zion, non Robert eta Carmen bera aipaturik diren lehenengo ahapaldian:

Iraganak esan nahi du noizbait
maitatu zenuen gizonaren umea ezagutzea.

– Zergatik kontatu nahi duzu Robert Musscheren historia? –artez galdetu zidan Marcek, afaldu ostean egongelan biok bakarrik geratu ginenean–. Badakit Medellingo festibalean Julio Flor kazetariak Karmentxu Cundini buruz hitz egin zizula, eta baita Roberti buruz ere. Zoragarria iruditzen zait, gainera, Robertek joan nahi izan zuen kontinente hartan bertan berari buruz kalakan aritzea. Baina, kontatu egidazu, zein da zure nobela idazteko sakoneko arrazoia?

Ezustean harrapatu ninduen Marcen galderak, bidaiez edo politikaz nahiko azaletik eta umorez berbetan jardun ondoren etorri baitzen.

– Hilabeteak neramatzan ezer idatzi gabe –esan nion–, eta hurrengo liburua nolakoa izango zen ere ez nekien. Nire lagun min baten heriotzak erabat galduta utzi ninduen. Hura galdu eta alabatxo bat etxean, dena aldi berean. Noraezean sentitzen nintzen, alde batetik pozik, bestetik triste. Ezagutzen nituen gerrako umeen kontuak, betidanik piztu zidaten arreta euren bizipenek, baina oso zaila egiten zitzaidan behar bezala kontatzea.

– Ez zen momentua izango.

– Beharbada ez. Hala ere, Karmentxuren hariari tiraka hasi eta konturatu nintzen oso neurea sentitzen nuela Roberten historia. Herman agertu zen, haren lagunik onena, hura ere idazlea. Eta Carmen txikerra, euskal neskato haren izena hartu zuen alabatxoa. Eta batez ere Vic, Carmenek aita bat izan zezan oroimena gorde zuen emakumea... liburutegia, kartak, idazkiak, objektuak, den-dena gorde zuena. Barruan zerbaitek esaten zidan hau dela kontatu behar dudan istorioa, nirekin guztiz bat egiten duena, orduan sentitzen nuena islatuko duen nobela, hortxe agertuko direlako galdutako laguna, maitasuna, alaba. Zoriontasuna eta hutsunea. Mundu baten galera eta beste baten hasiera. Horrek erakarri ninduen hona. Benetan diotsut, mina leuntzeko modu bat izan dela Roberten bizitza ezagutzea. Baina...

– Esan lasai –bota zidan Marcek, edalontzietan izotzak ipintzen ari zela.

– Egun hauek zuekin igaro eta gero badut beste gurari bat.

– Zein?

– Izan dadila liburu hau paperezko hilobi ñimiño bat Robertentzat. Carmenek bisitatu ezin izan ez duen hilobi hori.

23

Biharamunean Evert Thieryrekin genuen hitzordua, Hermanen semearekin, bere bulegoan. Medikua da Thiery, buruko gaitzak tratatzen ditu. Ez zeukan asti handirik, halaxe esan zigun aurreko egunean Carmeni bidalitako mezu elektroniko baten bidez, baina espero baino luzeago joan zen elkarrizketa.

Thieryren bulegoa paperez beteta zegoen. Liburutegi handi bat eskuin aldean, liburuz eta kaierez josia. Aurrez aurre, idazmahaia. Atzean, leihoa, berde koloreko errezel batzuekin. Ezker aldean, mahaitxo bat gaixoei erakusteko marrazkiekin. Txostenak eta liburu gehiago.

Gizon atsegina da Thiery. Baxu hitz egiten du eta une oro irri airea du ahoan. Aitaren izaerari buruz galdetu nion.

– Urte asko dira hil zela. Pentsa, guretzat ez zen galera traumatikoa izan, hain egoten zen sartuta bere literatur sorkuntzan.

– Nolakoa zen bere eguneroko bizimodua?

– Gure aita erretiroak nahastu zuen. Egunez liburutegi batean lan egiten zuen eta gauez idatzi. Liburu-

tegiko zuzendaria izan zen Iuzaroan, han Ottograchten, ateneotik hurre. Benetako mundua alde batetik eta alegiazkoa bestetik, horrelaxe banatzen zuen eguneroko bizitza. Gu lotara bota eta bere gelara igotzen zen, bestelako errealitateak irudikatzera. Erretiroa hartu zuenean, hala ere, oso gaizki pasatu zuen. Ez zuen asmatu bizitza antolatzen. Uste dut kalte handia egin ziola oreka hori galtzeak. Eta hil egin zen handik gutxira, lana utzi eta segituan.

– Nola bizitzen ziren grinak gerra garaian? Zein toki zuen maitasunak?

– Gerra ez da bizi dugun egoera hau, arrunta, non gutxi gorabehera dena dagoen finko. Gerra batean lehen irmoa zen hura guztia, etxe bat, familia, lana, den-dena zapuztu egiten da. Ezer ez da finkoa, eta horrek behartzen du pertsona beste era batera jokatzera. Askoz sakonago bizi ditu gauzak, maitasuna, nola ez, eta sexua bera. Harreman oso bizigarriak zituzten garai hartan. Ez baitzekiten biharamunean nor hilko zen.

– Zure aitak liburu bat idatzi zuen euskarazko izenburua daukana: *Baratzeartea*. Nondik nora izen hori?

– Jakin dudanez, aitak bidaia bat egin zuen Ipar Euskal Herrira, han bizi omen zen idazle lagun bat bisitatzera. Han entzun zuen eta esan zioten zer den baratzeartea: lorategira sartzeko atea, etxetik baratzera dagoen tarte hori.

– Bi munduen arteko muga...

– Bai, aitak maite zituen muga horiek, eguneroko-tasuna eta desira, benetakoa eta ametsa, bizitza eta heriotza, beti zebilen baratzearte horretan. Bere literatura ere horrelakoa da.

– Robert heroia da itxura guztien arabera. Ba al zuen heroiak alderdi ahulik, ezen ematen baitu bere izaeran dena dela baikorra. Egun hauetan horri buruz hizketan aritu gara Carmen eta biok. Gerrako haurrekin solidarioa, adiskide ona, Erresistentzian ibilia... Ez al zuen alderdi ilunik Robertek?

– Bada, nik esango nuke, heroia izatea bera. Gure aita ez zen hain idealista, pragmatikoagoa zen nahi baduzu, eta onik atera zen gerratik, nahiz eta bera ere Erresistentzian ibili nazien kontra. Baina Robertek dena eman zuen mundu hobe batengatik. Horrelako jendea behar zen orduan. Beharbada jenderik onena hil zen gerran, bihotz onekoak. Baina heroia izateak berak du bere alde iluna, ifrentzua. Begira nola gera-

tu zen Vic, nola geratu zen Carmen, senarrik eta aitarik gabe gelditu ziren. Heroia izatearen atzealdea horixe da, zure ondotik uzten duzun sufrimendu hori guztia. Hori bera da bere alde iluna, ideiak hain argi izatea... Dena den, berriz diotsut, gisa horretako jendea behar zen orduan. Tira, belaunaldi hartako onenak hil ziren, horren zalantzarik ez dut.

– Gizarteak, ordea, aurrera egiten du biziraun dutenekin.

– Gure aitak badu eleberri bat, *Lasaitasunerako trena*, eta han kontatzen du badagoela tarteko zerbait bizitzaren eta heriotzaren artean. Hau da, bera oinarritu zen zientziako lege batean, inertziaren legean, liburuko planteamendua egiteko. Inertziaren legeak dio, gorputz bat mugimenduan bada eta bat-batean geratzen badugu, zerbait horrek aurrera egiten jarraituko duela. Trenetik jauzi egiten dugunean korrika egiten segitzen dugu, ezin dugu bertan gelditu. Bada, lege horixe, Newtonen lehenengo legea deritzona. Aitarentzat, norbait hiltzen denean ere antzeko zerbait gertatzen da: une batez hildako hori bizirik egoten da. Eta tarte bat dago pertsona hori erabat hil arte. Aitak zioen, pertsona batzuk betiko hiltzen direla eta beste batzuk, berriz, bueltatu egiten direla bizitzara. Robert

ez zen itzuli eta gure aita bai... bueltatu egin zen bizitzara, amesgaizto batetik esnatu izan balitz bezala.

– Esaten duzunak badu zerikusirik doluarekin. Norbait hiltzen denean, hura hil dela guk barneratu arte dolua igaro behar da. Neurri batean bizirik jarraitzen du hildakoak denbora tarte horretan.

– Baliteke...

– Herman errudun sentitzen al zen Robertekiko? Ematen du zure aitaren idatzietan badagoela halako sentipen bat.

– Jakina, eta onartu ere egin zuen hori behin baino gehiagotan. Gure aita bizirik atera zen eta Robert hil. Lagun handi bat galdu zuen, nik esango nuke lagunik onena; eta, era berean, iragana.

– Iragana...?

– Lagunik onena galdu zuen, beti atzetik jarraituko zion hura. Robertek ez zion sekula ezetzik esan. Azkenean, bizitzan Vicekin batera oreka eta zoriona erdietsi zuenean, orduan ere baietza eman zion aitaren proposamenari. Horrelako lagun bat galtzeak esan nahi du, zeure bizitzako zati handi bat galdu egin duzula, zeure oraina, etorkizuna eta, halaber, iragana. Iraganeko zati eder horiek betiko galdu dira. Ezin duzu iraganera itzuli.

– Hala ere, beti gordeko zuen behinolako adiskidetasunaren gomuta.

– Nola ez ba. Begira zer dioen Roberti buruz bere liburuetako batean –Evertek ale bat atera du mahai gainean duen munto batetik–. 1957an idatzi zuen *Lago Maggiore*. Liburu baikorra da, tristura urte asko eta gero. Hauxe idatzi zuen Roberti buruz...

Ahoz goran irakurtzen hasi zen Evert:

> «Ehunka kilometro egin zituzten Italian, etxe berriak eta Erdi Aroko hondakinak baino ikusten ez zituztela. Ez zegoen hamar urte lehenago jazotako tragedia haren arrastorik.
>
> – Norbait ba ote dago 40-45eko gerraz oldozten. Ni neu ahoz goran ari naiz gomutan.
>
> – Gurekin ez dauden horiek, agian –esan zuen gutariko batek.
>
> – Aise asmatuko duzu norekin oroitzen ari naizen orain. Bere argazkia oraindik gelan zintzilik daukat.
>
> – Bai –esan zuen neskak–, Robert Musscherekin, Erresistentziaren alde hil zen lagunarekin.

– Mutil lasaia, barne onekoa, eta azken-azkenean heroia. Bazuen barruan su bedeinkatu bat eta Baltikoko uren ehunka tona behar izan ziren su hori amatatzeko. Hantxe hobiratu zuten... Ameslaria, bizitzaren paisaiekin hain maitemindua. Nola gozatuko zukeen bidaia hau egiten eta hementxe gurekin egoten.

Eta orain, hementxe nago ni orain, eta nola! Nik, bizitzako abentura magikoaz horren ausart hitz egin nion honek, elkar ikusi genuen azken aldi hartan...

Baina nire txanda iritsiko da, Robert, goiz edo berandu, helduko zait ordua».

– Ederra –atera zitzaidan.

– Nik esango nuke, gure aitak gauza guztien gainetik pena sentitzen zuela. Pena lagun ona zelako, pena aita ona zelako eta pena idazle ona zelako. Esango zizun Carmenek, umetxoa zelarik ikusten zuen bakoitzean nola besarkatzen zuen gure aitak eta nola negarrez hasten zen gizona.

– Halaxe da –elkarrizketan isil-isilik egondako Carmenek hartu zuen txanda–. Hasieran eskertu egiten nuen Hermanen besarkada beroa. Hain zen handia,

gainera, beso handi horiek zabal-zabalik! Aitortu behar dut, hala ere, azkenean ihesi egiten niola. Ez nuen berarekin topo egin nahi. Hartz baten tamainako gizona, ni besarkatu eta negarrez...! –amaitu zuen Carmenek, olgetan-benetan.

Carmen Musscheren jaiotza luzea izan zen, eta zaila. Frans Daels medikuaren laguntza izan ez balitz, nekez etorriko zen mundura. Gerra bukatu zenean heriotza zigorrera kondenatu zuten Daels, nazien alde egitearren. Suitzara ihes egin behar izan zuen. Urte batzuen buruan, berrogeita hamarreko hamarkadan, berriz bueltatu ahal izan zen Gantera, eta medikuntzan lanean hasi zen atzera ere. Carmenen etxe barrukoak ziren daelsdarrak eta, eskaileran, Luc semearen laguna egin zen. Hamabi urte edo izango zituzten orduan. Lucek ezin izan zuen estudiatu eskola publikoetan, galarazita baitzeukan aitaren iraganarengatik, baina, hala edo bestela, lortu zuen ikastetxe pribatuetan ikasketak burutzea eta, denborarekin, Ganteko Unibertsitateko irakasle bilakatu zen. Luc Daelsen arte lanak ikusgai daude hirian.

Carmen eta biak behin baino gehiagotan agertu dira prentsan elkarrekin. Kolaborazionista baten semea eta Erresistentzian bizia eman zuen idazlearen alaba. Eta hala ere, adiskideak.

Aldizkari baten ale bat erakutsi dit Carmenek bibien argazkiekin. Harritu egin nau Lucek horren garbi onartzea bere aita nazien aldekoa izan zela, beste asko bezala, isilean gorde gabe.

24

Karmentxu Cundinen albiste gehiago ez zuen izan Carmen Musschek 2008an Bilbon gerrako haurrei egin zitzaien omenaldira arte. Gerrako ume izandakoak eta haiek jaso zituztenen senitartekoak gonbidatu zituzten. Lehenik eta behin Santurtziko portuan bota zituzten loreak, *Habana* ontziaren joan-etorriak gogoratuz. Haren ostean omenaldi bat egin zen Euskalduna antzokian. Carmenek Karmentxuren berri izan nahi zuen kosta ahala kosta. Horixe zen Bilbora bidaiatzeko arrazoi nagusia. Dora Mahyk emandako zapi brodatua zen haren azken seinalea. Baina urte asko igaro ziren ordutik.

Urduri ibili zen Carmen, argazki zahar batekin galdezka, ea Karmentxu Cundin areto hartan zegoen. Haren itxurako andrerik bazegoen begiratzen zuen, irudikatuz nolakoa izango zen Karmentxu, edadean sartuta.

Ez zuen aurkitu. Ramon neba bai, ordea, zahartuta eta alzheimerrarekin. Oroimena makaldu eta desagertzen joan zen, Ganteko uso mezulariak hanketan mezu txikiak zituztela bidean galtzen ziren bezala, za-

tika aldentzen. Handik eta hemendik galdetuta, Karmentxuren iloba batekin hitz egitea lortu zuen azkenean Carmenek.

– Gauza bat bakarrik jakin nahi dut –esan zion ilobari–. Karmentxu zoriontsua izan al zen Euskal Herrira itzuli zenez gero?

– Bai. Ezkondu egin zen eta urte onak igaro zituen, nahiz eta seme-alabarik ez izan. Jostuna izan zen bizi osoan, jostun fina.

Carmenek begietara so egiten zion neskari. Karmentxuren begi berdinak zituen ilobak, beltz-beltzak.

In memoriam Robert Mussche liburuxkan Hermanek dio seindun dagoela andrea eta jaioberriari Robert jarriko diola izena, hildako lagun maitearen omenez. Umea neskato jaio zen eta Frederique ipini zioten. 1945eko abenduaren 11n jaio zen, baina berehala zendu zitzaien, otsailaren 2an.

Bigarren semeari Evert jarri zion Hermanek. Beraz, neure kabutan pentsatu nuen, Hermanek ez zuela asmoa bete.

Carmeni galdetu nion. Ezer ez zekiela, erantzun zidan.

Duela gutxi idatzi dit Carmenek, adieraziz paperen artean lau poema biltzen dituen plaketa bat aurkitu duela, Hermanek egina. Poemak alabatxoari buruzkoak dira. Eskuz idatzirik, eskaintza bat dakar: «Vic eta Carmeni, gure Frederique-Roberte maitearen oroimenez». Azkenean Roberte ipini zion, agindu bezala, bere haur txikiari.

2010eko azaroaren 28an jaio zen gure alaba Arane. 2011ko apirilaren 24an hil zen nire lagun Aitzol Aramaio. Elkarrekin egon ginen azken aldietako batean hauxe esan zidan Aitzolek:

– Heroi baten istorioa kontatu behar duk.

– Baina niretzat ez zagok heroirik. Pertsonen alde hauskorra gustatzen zaidak niri, ez balentriak. Belduerra ematen zidatek heroiek.

– Ez nauk halako heroiez ari. Jende arruntaz ari nauk. Heroiak zaudek hor zehar, lehen eta orain, hemen eta mundu zabalean; heroi txikiak, jendea laguntzen dihardutenak.

Isildu egin nintzen orduan. Gaur egun arrazoia ematen diot. Heroiak daude hor zehar, lantzean behin hil egiten zaizkigunak.

Bada, hementxe duzu heroi baten istorioa, nire bihotzeko laguna.

Sausaliton, 2012ko martxoaren 19an
Ondarroan, 2012ko urriaren 26an

ESKERRAK

Carmen Musscheri, bere aitaren istorioa kontatzeagatik.

Maruja eta Carmen Miranteri, gerrako ume izandakoei, euren testigantzengatik. Inge Viessersek lagundu dit nederlanderazko testuekin. Eskerrik beroena Julio Flor kazetariari, Carmenen etxeko bidea erakustearren.

Eleberri hau idazteko, Jesus J. Alonso Carballesen, *1937. Los niños vascos evacuados a Francia y a Bélgica. Historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940* lana sarritan kontsultatu dut. Baita ere, Johan Daisneren *In memoriam Robert Mussche,* hilondoko gorazarre liburua. David Strafforden *Endgame, 1945. The Missing Final Chapter of World War II,* kontuan izan dut Bigarren Mundu Gerraren bukaeraren eta *Cap Arcona*ren berri jakiteko. Orobat, Hermann Kaienburgen *Das Konzentrationslager Neuengamme 1938-1945. Herausgegeben von der KZ-Gedenkstätte Neuengamme,* kontzentrazio eremuaz datuak jasotzeko. Raymond Van Péeren *Ik was 20 in 1944, Relaas uit Neuengamme en Blumenthal* liburuko testigantza la-

gungarria izan da oso. Primo Leviren *Se questo è un uomo* bidelagun izan dut nobelaren idazketa osoan.

San Franciscoko Headlands Center for The Arts egoitzan igarotako bi hilabeteko egonaldi bati esker idatzia da liburu hau.

Karmentxu Cundini eta gerrako ume guztiei, atzokoei eta gaurkoei, horrelakorik gehiago gerta ez dadin.